

KONTABILITATEKO MINORRAREN METODOLOGIAK



Egilea: Jon Larrarte Echano
Tutorea: Maider Aldaz Odriozola

AURKIBIDEA

Edukia

1. Sarrera.....	1
2. Egungo egoera	3
2.1. Kontabilitate Aurreratua eta Zerga Sistema.....	3
2.2. Kontabilitate Publikoa.....	6
2.3. Kudeaketa Kontabilitatea eta Barne Kontrola	10
2.4. Kontabilitatearen eta Kontu Auditoriaren Lege Markoa	13
2.5. Kontu Auditoria	16
3. Metodologia Aktibo Berritzaileak	21
3.1. Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (ABP)	21
3.2. Gamifikazioa	23
3.3. Gela Iraulia (Flipped Classroom).....	25
3.4. Ikaskuntza kooperatiboa	28
3.5. Diseinu Pentsamendua (Design Thinking)	31
3.6. Gaitasunetan oinarritutako ikaskuntza.....	33
3.7. Esanahien bidezko ikaskuntza	36
4. Metodologiaren Aplikazioa	41
4.1. Kontabilitate Aurreratua eta Zerga Sistema.....	41
4.1.1. Ariketa Excelen	41
4.1.2. Ezberdintasunak bilatu	43
4.2. Kontabilitate Publikoa.....	45
4.2.1. Kahoot	45
4.2.2. Talde-lanetako zereginen aktak	47
4.3. Kudeaketa Kontabilitatea eta Barne Kontrola	49
4.3.1. IKD Gazte	49
4.3.2. Roleplay	54
4.4. Kontabilitatearen eta Kontu Auditoriaren Lege Markoa	57
4.4.1. Socratico	57
4.4.2. Albisteen bidezko hurbilpena.....	60
4.5. Kontu Auditoria	62
4.5.1. Metodologia aplikatuak.....	62
4.5.1.1. Excelen erabilera.....	62
4.5.1.2. Debatea	63
4.5.2. Kurtso erdipresentziala.....	64
5. Diziplinarteko loturak.....	67
5.1. Kooperatiben barne kontrola	68
5.2. Auditoreen sekretu profesionala.....	71
6. Ondorioak	75
7. Bibliografia	77
8. Eranskina.....	81
8.1. Ariketa Excelen	81
8.2. Ezberdintasunak bilatu	82

8.3. Kahoot	85
8.4. Socrative	92
8.5. Kurtso erdipresentziala	97

Irudiak

I.Irudia: Sarrera eta gastu partiden arteko oreka	8
II.Irudia: Barne kontrolaren ardura	12
III.Irudia: Auditoria prozesua	17
IV.Irudia: Gela irauliaren osagarriak	25
V.Irudia: Gaitasun alorrak	34
VI.Irudia: Ausubelen teoria.....	38
VII.Irudia: 2.gaiko ariketaren idazpenak	42
VIII.Irudia: Kahoot adibidea.....	46
IX.Irudia: IKD Gazte alorreko talde-motorra	51
X.Irudia: Socrative, emaitzen-taula	59
XI.Irudia: Kooperatiben gobernu korporatiboa.....	70
XII.Irudia: 2.gaiko ariketaren enuntziatuta	81
XIII.Irudia: 2.gaiko ariketaren finantzaketa-taula	81
XIV.Irudia: Eroskiren 2016 eta 2017ko balantzea (1)	82
XV.Irudia: Eroskiren 2016 eta 2017ko balantzea (2)	83
XVI.Irudia. Forum Sport-en 2017 eta 2018ko balantzea.....	84

Taulak

I.Taula: Sarrera eta gastuen sailkapen ekonomikoko partidak	7
II.Taula: Ikerketa laneko akta posibleak	47
III.Taula: Politika bakoitzaren abantaila eta desabantailak	56
IV.Taula: Pandemiara moldatutako egutegia	97

1. SARRERA

Ikerketa-lan hau, ikaslearen Gradu Amaierako Lana izango da, non egungo irakaskuntza metodologia berrietan oinarrituz, unibertsitateko graduko kontabilitate minorrenen metodologiak hobetzeko azterketa bat burutuko den. Helburua, beraz, kontabilitateko espezialitateko metodologiei alternatiba bat bilatu eta bertan burutzen diren jarduerak lantzeko era ezberdinak proposamen berriein hornitzea da, besteak beste, minorreko ikasgaien lotura landuko duen lan edo ekintza bateratu bat proposatuz. Gradu amaierako lanaren ideia, tutoreak ikasleari eskainitakoa da, azken honek onartu zuelarik. Askotan, ikasleek, irakasgaien metodologia eta irakasleek klasea emateko erak kritikatzan dituzte, bada aukera hau, irakaslearen lekuan jarri eta metodologia propioak diseinatzeko erronka gisa bideratu daiteke.

‘Egungo Egoera’ deritzon atalean, graduko 3.mailako 2.lauhilekoan eta 4.mailako 1.lauhilekoan eskaintzen den kontabilitateko espezialitatearen nondik norakoak aipatzen dira, minorrenen ezaugarri eta bertan lantzen diren irakasgaiak izendatuz, irakasgai horietan erabiltzen den ikasmaterial, metodologia eta ebaluazioaren laburpen bat egitera helduz.

‘Metodologia aktibo berritzaileak’ sailean, ikasleei ahalik eta ezagutza gehien ematean oinarritzen diren klase tradizionalak gaitzeko metodologia aktiboak bilatzen dira. Horien bitartez, ikaslearen pentsamendu kritikoa eta ikasketa autonomia bultzatu nahi dira, irakaslea jakinduriaren igorle izatetik, orientatzaile edo gidari izatera igaroz. Gaur egun, geroz eta erabilera handiagoa duten metodologia aktiboaren abiapuntu, izaera nahiz ezaugarriak azaltzen dira, metodo bakoitzeko adibide eta aplikazio batzuk aipatzeaz gain.

‘Metodologiaren aplikazioa’ atalean, izenak dioen bezala, aurreko atalean azaldutako metodologiak hasierako atalean landutako irakasgaietan izan dezaketen aplikazioa aztertzen da, hainbat proposamenen bitartez. Kontabilitateko espezialitatean bost irakasgai daude, bada, irakasgai bakoitzeko bi proposamen iradokitzen dira. Hainbat irakasgaien arteko edukien loturak aztertzen dituen pare bat proposamen ere aditzera ematen dira. Bestalde, kasu batzuetan, proposamenak sortu ordez, irakasgaiak jada aplikatzen direnak identifikatu eta azpimarratzen dira.

‘Diziplinarteko loturak’ zatian, kontabilitateko espezialitateko irakasgaietan landutako edukiak beraien artean konbinatzea bilatzen da. Irakasgai bakoitzeko eduki teorikoan, azaldu diren kontzeptuak gehiago sakontzeko eta ikasleak klasean ikasitakoari buelta batzuk emateko.

Ondorioetan, ikerketa-lan honetan landutakoari buruzko gogoeta eta iradokizunak isladatu dira. Hori gutxi balitz, lan hau egiteko erabili diren informazio-iturriak bibliografian aipatzen dira, APA arauak jarraituz. Amaitzeko, datu eta proposamenen informazio gehigarria eranskinean gaineratu da.

2. EGUNGO EGOERA

Lan honen aztergaia Euskal Herriko Unibertsitateak Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako graduko 3.mailako 2.lauhilekoan eta 4.mailako 1.lauhilekoan eskaintzen duen kontabilitateko minorra edo espezialitatea da. Horretarako, lehenik eta behin, minor honen irakasgaiak eta edukiak zein diren azalduko ditugu.

Kontabilitateko minorra honako irakasgaietz osaturik dago:

- **Kontabilitate Aurreratua eta Zerga Sistema (5.0 Kreditu)**
- **Kontabilitate Publikoa (5.0 Kreditu)**
- **Kudeaketa Kontabilitatea eta Barne Kontrola (5.0 Kreditu)**
- **Kontabilitatearen eta Kontu Auditoriaren Lege Markoa (5.0 Kreditu)**
- **Kontu Auditoria (5.0 Kreditu)**
- Atzerriko Bigarren Enpresa Hizkuntza I (5.0 Kreditu)
- Atzerriko Bigarren Enpresa Hizkuntza II (5.0 Kreditu)
- Enpresarako Ingeles Aurreratua I (5.0 Kreditu)
- Enpresarako Ingeles Aurreratua II (5.0 Kreditu)

Espezialitate honen aipamena lortzeko ez dira zerrenda horretako irakasgai guztiak gainditu behar, 30 kreditu lortzearekin nahikoa da. Hori bai zerrendan letra lodiz agertzen diren 5 irakasgaiak gainditzea beharrezkoa da, letra lodiz ez daudenetatik beste bat aukeratu eta gainditzeaz gain. Izan ere minorra osatzeko 30 ECTS behar dira eta kontuan izanik bakoitzak 5 kreditu dituela, 6 irakasgai egin behar dira (zerrendako lehenengo lauretatik bat, eta azken bostak) Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako graduan kontabilitateko espezialitatearen aipamena lortzeko.

Hizkuntzetako irakasgaien aukera alde batera utzita, edozein espezialitateko ikasleek aukeratu baititzakete, kontabilitateko minorreko 5 irakasgaietan zentratuko gara. Horretarako, irakasgai bakoitzean erabiltzen den metodologia eta lantzen diren ikasgaiak aztertuko ditugu, 2018/2019 ikasturteko Kontabilitate Publikoa, Kontabilitatearen eta Kontu Auditoriaren Lege Markoa eta Kudeaketa Kontabilitatea eta Barne Kontrola irakasgaietako eta 2019/2020 ikasturteko Kontabilitate Aurreratua eta Zerga Sistema eta Kontu Auditoria saioetan oinarrituz.

2.1. Kontabilitate Aurreratua eta Zerga Sistema

Zubiaurre eta Aldazabal-en (2019/2020) arabera, 1.gaiia “**Kontabilitatearen kontzeptu-esparrua**” da. Bertan aipatzen den bezala, urteko kontuek enpresaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakutsi behar dute. Horretarako, urteko kontuetako elementuak erregistratzeko eta balioesteko, ondorengo kontabilitate printzipioak aplikatuko dira: Funtzionamenduan dagoen enpresa, sortzapena, uniformetasuna, zuhurtasuna eta ez konpentsatzea.

Bestetik, kontabilitate-irizpideak aldatzea borondatez edo derrigorrez gerta daiteke. Lehenengo kasuan, Kontabilitateko Printzipio Orokorrak (KPO) eragiketa bat kontabilizatzeko aukera bat baino gehiago eman behar du, esaterako, izakinak balioesteko Batezbesteko Prezio Haztatua edo FIFO erabiltzeko aukera. Bigarren kasuan, adibidez, Urteko Kontu Bateratuak aurkezten dituzten enpresek Nazioarteko balioespen irizpide berri bat aplikatu behar izatea da.

Gai honetan errakuntzak ere lantzen dira. Errakuntzak, KPO-ko 22.balioespen arauak dioenez, aurreko urteetako kontuetan falta diren datuak edo zuzenak ez direnak dira, horiek prestatzeko garaian erabilgarri zegoen informazio fidagarria ez zelako erabili edo honen erabilera okerragatik. Adibide gisa, ibilgetu baten amortizazio kuota kalkulatzekoan, aldagairen bat gaizki hartu izana.

Gai honen azken azpiatala, kontabilitate-estimazioen aldaketa da. Informazio osagarria edo esperientzia handiagoa eskuratu izanagatik edo gertaera batzuen berri izateagatik, kontabilitate-estimazioetan aldaketak ematen dira, besteak beste, bezeroen narriadurak, izakinen errealizazio balioa edota ibilgetuen bizitza erabilgarria eta hondar balioa. Azken bi azpiataleak buruzko zenbait adibide ikusi eta ariketa egiten dira.

2.gaiak **“Finantza inbertsioak”** da. Finantza-tresna, enpresa batean aktibo finantzario bat eta, aldi berean, beste enpresa batean pasibo finantzario bat edo ondare-tresna bat sortzen duen kontratua da. Zenbait adibideren artean, maileguak eta kobratzeko partidak, zehazki, kreditu komertzialak eta ez-komertzialak, ditugu. Hauen hasierako balioespena, arrazoizko balioaren arabera balioetsiko da, transakzio balioan oinarrituz. Ondorengo balioespena, berriz, kostu amortizatuaren arabera balioetsiko da, sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatuz, interes-tasa efektiboaren bidez.

Bestetik, zorra adierazten duten baloreak ditugu. Hauek hirutan sailka daitezke: Mugaegunera arte mantenduko diren inbertsioak (izenak dioen bezala epemugara arte edukiz), negoziatzeko mantentzen diren aktibo finantzarioak (enpresaren helburua hauen salmenta burutzea da) eta aktibo finantzario salgarriak (kasu honetan enpresaren helburua ez dago argi). Aktibo finantzario bakoitzak bere hasierako eta ondorengo balioespenerako irizpideak ditu.

Azkenik, ondare-tresnak ditugu, non hauek ere hirutan sailka daitezkeen: Negoziatzeko mantentzen diren aktibo finantzarioak (salmenta dute helburu), taldeko enpresen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioan (izenak dioen bezala helburua sozietate horiengan kontrola bilatzea da) eta aktibo finantzario salgarriak (helburua ez dago argi). Aktibo finantzario bakoitzak bere hasierako eta ondorengo balioespenerako irizpideak ditu. Teorian ikusitakoa lantzeko ariketak egiten dira.

“Egokitzapen sektorialak” da 4.gaiak. Kontabilitate arloan, Espainiako arautegian, lau erakundek eragiten dute, besteak beste, Europar Batasuna (direktibekin, batasuna osatzen duten herrialde guztiek bete beharreko gutxieneko arauak ezartzen ditu), Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutua (ICAC), Banco de España eta Aseguruen Zuzendaritza Orokorra. Espainian, kontabilitate arloa arautzen duen erakunde nagusia

ICAC da, eta bere ardura dira egokitzapen sektorialak. Azken honek, sektore edo enpresa-mota zehatzei aplikatu beharreko arau zehatzak soilik jasotzen dituzte, sektoreko jarduerekin zerikusi zuzena duten hainbat gai garatzeaz gain. 2007ko KPO indarrean jarri zenetik, zenbait egokitzapen sektorial onartu dira, hala nola, sozietate kooperatibena.

5.gaiari **“Kooperatiben kontabilitatea”** da. Gai honetan, oinarri juridikotzat, Euskadiko Kooperatiben Legea hartzen da kontuan, Espainiakoarekin alderatuz diferentzia batzuk baititu. Kooperatiben definizioa, ezaugarriak eta kooperatiba motak ikusi eta gero, honen gobernu organoak ikusten dira: Batzar Orokorra (bere eskumenak, urteko kontuak onartzea, emaitzaren banaketa, Kontseilu Erreaktorea izendatzea, etab.), Kontseilu Erreaktorea (Sozietate Anonimoetako Administrazio Kontseiluaren antzeko organoa) eta Zaintza Batzordea (zuzenean kudeaketan parte hartzen ez duen kontrolerako organoa). Kapital sozialari dagokionez berriz, kooperatiba eratzeke gutxienez 3.000€ dira, bazkideek egindako borondatezko nahiz derrigorrezko ekarpenekin osatua (ekarpen hauek balore negoziagarri izaerarik ez duten titulu izendunen bidez egiten dira).

Kooperatibako bazkideen ekarpenak ondare garbian kokatzerakoan, zenbait arazo daude. Batetik, bazkideek kapitalaren itzulketa eskatzeko eskubidea dute, eta bestetik, kapital horrek interesak jasotzeko duen eskubidea. Horrela bada, bazkideen ekarpenek fondo propio izaera izango dute, baldin eta Kontseilu Erreaktoreak eta Batzar Orokorrek kapitalaren itzulketa baldintzarik gabe ukatu dezaketenean, eta bazkideari ordainsari bat ordaintzera behartuta ez daudenean. Osterantzean, ekarpenek pasibo izaera izango dute. Kasu ezberdin hauen idazpen kontableak ere lantzen dira.

Emaitzaren banaketarako, lehenik eta behin aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatu (existitzen badira) eta bazkideen kapitalaren interesak zuzkitu behar dira. Geratzen den zenbatekoa soberakin erabilgarria izango da, non horren %20 Derrigorrezko Erreserba Fondora (legeak derrigortua, helburu gisa kooperatiba finkatzea, garatzea eta bermea lortzea duelarik) eta beste %10 Hezkuntza, Formazioa eta Sustapenerako Fondora (bazkideen, langileen eta orokorrean gizartearen ongizatea ekarriko duen jardueretan aplikatzeko zenbatekoa) joango den. Gainerako soberakina borondatezko erreserba edo kapitalaren ordainsarira bideratu ahal izango da.

Kapital zabalkuntza nahiz murrizketatan egin beharreko idazpen kontableak eta sozietateen gaineko zerga (kooperatiben kasuan, noski) aztertzen dira. Hori gutxi balitz, 5.gaiari edukiak praktikan ikusteko 2013ko AMPO, S.COOP.-en urteko kontuak ikusten dira.

6.gaiari **“Zerga zuzenen kontabilizazioa”** deritzo. Ogasun Publikoari ordaintzeko kuotak ez du zertan zerga gastuaren berdina izan behar, irizpide fiskalak eta kontableak ez baitatoz bat beti.

Mozkinen gaineko Zerga bitan banatzen da, zerga korrientea eta zerga geroratua. Bada, Oinarri Zergagarri eta Zerga Aurreko Emaitza artean denborazko diferentziak sortzen dira, noiz egotzeko irizpide desberdinak direla eta, hurrengo ekitaldietan konpentsatuko direlarik. Hori da zerga geroratuen aktibo nahiz pasiboen jatorria.

Hauen adibide eta ariketak lantzen dira.

Ekitaldi batean lortutako galerak etorkizuneko mozkinen aitortzearen konpentsatu ahal izango dira, ekitaldi horretan zerga gutxiago ordainduz, hots, galeren konpentsazioa emango da, legeak zehaztutako baldintzak errespetatuz beti ere. Horrez gain, kenkariak ere baditugu, enpresari zerga-gastua dagokion kopuruan murriztea ahalbidetzen diolarik. Azken bi termino hauei buruzko idazpen kontabletan oinarrituriko ariketak lantzen dira.

Metodologia eta ebaluazioaren kasuan,, ebaluazio jarraian kasuan, 5.gaiari buruzko 2 puntuko azterketa partzial bat egiten da (azterketan bertan, apunteen erabilera baimendurik zegoela), eduki hau urtarrileko azterketa finaletik kenduaz. Ondoren, 6.gaiak 5 puntu balioko ditu, batetik, hiru partaideko taldeak osatu eta talde bakoitzak 2014ko urtarrileko Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergaren 3 edo 4 artikuluri buruzko talde lan egin beharko du. Artikulu horietako gai batzuk honakoak dira: Ibilgetu materialen, ukiezin...inorenganatzegatik emaitzak; autoen erabileragatik gastu kengarriak; bezeroen kaudimengabeziak; mozkinak nibelatzeko erreserba berezia...Bada, artikulu hauei buruzko talde-lanak, eta honen aurkezpenak, 2,5 puntu balio ditu. Bestetik, talde bakoitzari egokitu zaizkion artikuluei buruzko talde lan hauek amankomunean jarri eta artikulu guztiei buruzko azterketa bat egiten da, honek ere 2,5 puntu balio dituelarik. Azkenik, gainontzeko 3 puntuak, azterketa finalak balioko ditu, 1. eta 2.gaiak ebaluatuz.

Ebaluazio ez jarraian, aldiz, 10 puntuak azterketa finalean jokatu dira, nahiz eta ebaluazio mota honen aukeraketa ez da ohikoena.

Klase guztiak presentzialak izango dira eta lehen bost asteetan klaseak 2 ordukoak izango dira, aldiz, hurrengo 10 asteetan ordu t'erdikoak.

2.2. Kontabilitate Publikoa

Aldaz-en (2018/2019) baitan, irakasgai honen lehen saioan taldekako jardura bat egin ohi da, Gipuzkoako Ogasunaren webgunearen Udalgidarekin lehen kontaktua ezartzeko, hurrengo saioetan zehar egunero erabiliko den informazio-iturria baita.

Ikasgaietan barneratuz, berriz, 1.gai teorikoa honakoa da: “**Aurrekontu erregimenaren printzipio orokorrak**”. Bertan azaldu bezala, aurrekontu printzipioak, aurrekontua eta bere exekuzioa arautzen dituzten oinarritzko arauak dira:

1. **Finantza oreka**, erakunde bakoitzaren aurrekontuan sarrerek gai izan behar dute gastuei aurre egiteko.
2. **Orokortasuna**, orokorrean erakundeen sarrerak=gastuak izango dira, erakunde publikoa izanik euren helburua ez baita mozkinak lortzea. Hala ere, aurreko urteko aurrekontua defizitarekin itxi bada, sarrerak>gastuak izan beharko dira.
3. **Lotura eza**, arau orokor gisa toki erakunde baten aurrekontuko sarrerek edozein gastu finantzatu ahal izango lukete, finantzaketa lotua duten gastuak izan ezik, non nahitaez sarrera bat gastu konkretu bat finantzatzera bideratu

behar den.

4. **Osotasuna**, aurrekontu batean barneratuko dira aurrekontu horri dagozkion sarrerak alde batetik eta dagozkion gastuak bestetik, elkarren artean inolako konpentsaziorik egin gabe.

2.gaiari honela deritzo, “**Aurrekontu orokorraren edukia**”. Bertan, toki erakundeen egitura ezberdinak aipatzen dira:

- Toki administrazioa:
 - Udala (udaletxea)
 - Udalaz gaindiko erakundeak (mankomunitateak)
- Izaera administratiboa duten erakunde autonomoak (dantza taldeak, kultur gelak, Kirol patronatuak...)
- Merkataritza izaera duten erakunde autonomoak (ura eta zabor zerbitzuaz arduratzen diren erakunde ez pribatuak)
- Elkarte publikoak, erakundearen kapitalaren edo gizarte fondoaren %50 baina gehiago udalaren edo udalaz gaindiko erakunde baten jabetzakoa denean.

3.gaian, “**Aurrekontu orokorraren egitura**”-n, aurrekontuko sarrera eta gastuak antolatzeko hiru sailkapen lantzen dira:

- **Sailkapen ekonomikoa**, zertan gastatzen den adierazten du.
- **Sailkapen funtzionala edo programen araberkoa**, gastuaren helburuari buruzko informazioa eskaintzen du.
- **Sailkapen organikoa**, norik gastatzen duen adierazten du (aukerakoa da).

Aurrekontuko gastuak sailkatzeko hiru sailkapenak erabili daitezke, sarrerak antolatzeko, berriz, sailkapen ekonomikoa soilik. Sailkapen funtzionala teorian soilik ikusten da eta sailkapen organikoa ez da landu ere egiten, beraz, sailkapen ekonomikoan zentratuko gara.

I.Taula: Sarrera eta gastuen sailkapen ekonomikoko partidak

Sarreraren sailkapen ekonomikoa:	Gastuen sailkapen ekonomikoa:
I. Zuzeneko zergak	I. Pertsonal gastuak
II. Zeharkako zergak	II. Erosketak ondasun arrunt eta zerbitzuetan
III. Tasak eta bestelako sarrerak	III. Finantza gastuak
IV. Transferentzia arruntak	IV. Transferentzia arruntak
V. Ondare sarrerak	V. (Kreditu globala)

VI. Inbertsio errealeen besterentzea	VI. Inbertsio errealak
VII. Kapital transferentziak	VII. Kapital transferentziak
VIII. Finantza aktiboak	VIII. Finantza aktiboak
IX. Finantza pasiboak	IX. Finantza pasiboak


Iturria: Lan propioa, Aldaz-en (2018/2019) apunteetan oinarritua

“Aurrekontu orokorraren prestakuntza eta onespena” 4.ikasgaian azaldu bezala, erakunde autonomoek aurrekontuen zirriborroak igorri behar dizkie alkateari irailaren 30a baino lehen, azken honek aurrekontu bateratuak prestatu eta udalbatzan aurkeztu beharko dituelarik urriaren 15erako. Aurrekontu orokorraren hasierako onespena egin ostean 15 eguneko epea izango dute interesatuek erreklamazioak aurkezteko. Udalbatzak abenduaren 31 aurretik behin betiko onespena egin ondoren udalaren eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

5.gaiari, **“Aurrekontu kredituen erregimen orokorra da”**. Gai honetan hainbat kreditu mota aipatzen dira: Ordainketa kreditua (gastu partida batean aurreikusitako zenbatekoari deritzo), konpromiso kreditua (urte bete baino iraupen luzeagoko proiektuekin erlazonaturik dago), kreditu globala (aurreikusi gabeko ekintzei, edo zenbateko txikiegia duten ordainketa kredituei aurre egiteko sortzen den gastu partida) eta kreditu zabalgarriak (hasiera batean, ordainketa kredituak mugatzaileak badira ere, zenbait baldintza betez gero, kreditu hau aurrekontu aldaketarik gabe gehitu daiteke).

6.gaiari **“Gastuen eta sarreraren egoera orrien aldakuntzen erregimena”** deritzo. Gai honetan toki erakundeek aurrekontu aldaketez hitz egiten da, bai kuantitatibo bai kuantitatibo eta kuantitatiboek. Aldaketa kuantitatiboek adibide, kreditu transferentzia dugu, gastu partida batetik bestera dirua transferitzean datza, sarrerarik gabe. Aldiz, aldaketa kuantitatibo eta kuantitatiboek adibide ugari daude: Kreditu gaikuntza (aurreikusi gabeko sarrerak daudenez, gastuak areagotu daitezke), kreditu txertaketa (ekitaldi bukaeran gastatu zitekeena baino gutxiago erabili denez, soberakin hori hurrengo urterako txertatzean datza), ezabaketagatikoko bajak (gastu partida baten bajaren ondorioz, finantzatzeko diru iturria sortzen da), kreditu gehigarria (gastuari aurre egiteko kreditua nahikoa ez denean, aurreikuspena gehitu daiteke baldintza batzuk betez).

I.Irudia: Sarrera eta gastu partiden arteko oreka



Iturria: 'La gestión económica y la tesorería. 2.-Previsión de ingresos y gastos', Ceballos (2015)

7.gaia “**Aurrekontuaren gauzatzea**” da, non sarreraren eta gastuen aurrekontuaren faseak aipatzen diren. Sarreraren kasuan bi fase daude: R fasea (onartutako eskubidea, sortzapena) eta I fasea (kobrantsa, sarreraren gauzatzea). Kobrantsak ez dira inoiz onartutako eskubideak baino handiago izango, beti lehenengo eskubidea onartu eta gero kobratu egiten baita. Gastuen kasuan lau fase daude: A fasea (baimena), D fasea (xedapena), O fasea (onartutako gastua) eta P fasea (ordainketa). Aurreko kasuan bezala, hurrengo faseko zenbatekoa ezingo da aurrekoa baino handiagoa izan.

8.gaia, “**Aurrekontuaren likidazioa**”, 7.gaiarekin estu loturik dago, likidazioa hitzarekin itxieraz prozesua adierazi nahi delarik. Sarreraren likidazioan, aurreikusitako guztia onartu eta kobratua izan daiteke ($R=I$) edo aurreikusitakoa baino gutxiago kobratu bada ($R>I$), kobrantsa eskubidea hurrengo urtera pasako da. Gastuetan berriz, onartutako obligazio guztiak ordaindu ditzakegu ($O=P$) edo onartutako obligazioen bat ordaintzen ez bada ($O>P$), zorra hurrengo urtera igaroko da. O fasera iristen ez diren partidekin, irizpide orokor gisa, txertaketa egin ezean, esan dezakegu gastu ahalmena galtzen dela.

“**Aurrekontuen luzapena**” 9.gaitik ideia nagusi bat atera dezakegu, abenduaren 31ra iritsi eta aurrekontua itxi ondoren, urtarrilaren 1erako aurrekontu berria onartuko ez balitz, automatikoki itxi den aurrekontua luzatuko litzateke.

10.gaia “**Kontabilitate publikoaren euskarri materiala**” da. Horrela bada, kontabilitate publikoak bi adar ditu (ondare kontabilitatea eta aurrekontu kontabilitatea) eta urte bukaerara iristean batak zein besteak eskatutako dokumentu batzuk prestatu eta aurkeztu behar dira.

11.gaian, “**Toki erakunde baten finantza eta ekonomia egoeraren diagnostia**”-n, toki erakunde baten diagnostia egiteko oinarritzko adierazle batzuk aipatzen dira, hala nola, zorpetze mailaren aldaketa garbia (gastu eta sarreretako finantza pasiboak aztertuz), finantza kargaren bilakaera (maileguez sortutako interesak eta horien amortizazioa behatuz), aurrezki arrunt gordina (sarrera arruntekin ohiko jarduera estaltzea) eta garbia (gordinari maileguen amortizazioak kenduta) eta zor bizia (Udala ekitaldiz ekitaldi metatzen joan den zorra).

Diagnosti ekonomiko eta finantzarioa egiten lagun dezaketen kontzeptu eta adierazle batzuk ere lantzen dira, besteak beste, inbertsio ahalmena (Udalak burutzen dituen inbertsio errealak eta toki erakundeei emandako kapital transferentziak), kapital eragiketak (jasotako kapital transferentzi eta ondare salmentak), finantza eragiketak (eskatutako mailegu eta finantza aktiboak) eta kreditu gerakina (behin betiko aurrekontu eta onartutako betebeharren arteko diferentzia).

Metodologia nahiz ebaluazioari dagokionez, ebaluazio jarraia eta ez jarraia bereiz ditzakegu. Ebaluazio jarraian, nota finaletik puntu 1 bertaratzeak izango du, 2 puntu kurtsuan zehar egindako bi galdetegik (1.a lehenengo 6 ikasgaien inguruan eta 2.a gai teoriko guztien inguruan), non 2.galdetegian nota hobeagoa lortuz gero, 2 puntu horietatik 2.galdetegiak pixu edo ponderazio handiagoa izango duen. Gainontzeko 6 puntuetatik 1,5 puntu 3.gaiaren bukaeran hasitako baina gerora emandako gai teorikoen aplikazioa eskatzen duen talde-lan batek izango ditu (gastu eta sarreraren partidak sailkatu ondoren, hasierako aurrekontuari aldaketak aplikatu eta azkenik

aurrekontu likidatua lortzean datza, 11.gaiako adierazleak aplikatzeaz gain). Beste 3 puntu taldeka egindako ikerketa-lan batek izango ditu, non taldekideek aukeratutako udalerrri baten finantza eta egoera ekonomikoaren analisia egin beharko den 11.gaiako adierazleen bitartez. Azkenik, 2 puntu ikerketa lan horren aurkezpenak izango ditu.

Bestetik, ebaluazio ez jarraian, 10 puntuak azterketa finalean jokatuko dira.

Irakasgai honetako saioak presentzialak dira eta astean bi saio egiten dira ordenagailu gelan. Lehen 5 asteetan saioak 2 ordukoak dira (astean 4 ordu alegia) eta ondorengo 10 asteetan ordu t'erdikoak (3 ordu/asteko).

2.3. Kudeaketa Kontabilitatea eta Barne Kontrola

Irakasgai honetan Garayar eta Garmendia-rekin (2018/2019) 6 gai lantzen dira. Astean bi saio ematen dira eta saio hauek lauhileko erdira arte 2 ordukoak izaten dira, hortik aurrera, aldiz, ordu t'erdikoak.

1.gaiak **“Kostua-Bolumena-Mozkina Analisia”** da. Bertan, ikasgaiaren tituluko hiru faktoreak aztertzen lagunduko dizkiguten adierazle batzuk lantzen dira, hala nola, errentagarritasun ataria (enpresak zenbat produktu saldu behar dituen errentagarri izaten hasteko), sentsibilitate azterketa (errentagarritasun atariko formulako aldagaien aldaketek eragindako ondorioak aztertzea), apalankamendu operatiboa (salmenta igoerak ze proportziotan suposatuko duen mozkinen igoera). Horiez gain, kudeaketa indize batzuk ere lantzen dira: Eraginkortasun komertzialaren indizea, salmentetatik ze proportziok estaldura marjina igaro eta mozkin garbia emango digun alegia, eta kostu finkoen xurgapen adierazlea, non salmentetatik ze proportzio bideratzen den enpresaren kostu finkoak estaltzera lortu nahi den. Azkenik, kostu aldakor eta finkoen seguritate marjinak ere aztertzen dira, bi kostu mota horiek, bakoitza bere aldetik, zenbatean handitu daitezkeen mozkin izateari utzi gabe jakitea baimentzen digutelarik. Adierazle hauek ariketa batzuen bitartez jartzen dira praktikan, ariketa horietako mozkina kalkulatzeko ‘direct cost’ kostu egitura erabitzen delarik, izan ere erabakiak hartzeko egitura egokiena da (errealitatea isladatzen du, zeharkako kostu finkoen banaketak saihestuz).

“Barne transferentzia-prezioak” deritza 3.gaiari. Enpresek sail ezberdinak izaten dituzte, orduan bideango produktuak sail batetik bestera igarotzean, itxurazko salerosketa bat egiten da kostuen esleipen egokia egin eta erreferentzi bat izateko. Lagapen prezio hauek kalkulatzeko era ezberdinak daude, ohikoen artean: alderagarria den merkatu-prezioa (merkatu prezioa bera), gehitutako kostea (ekoizpen kostua eta marjinaren batura) eta birsalmenta prezioa (birsalmenta prezioari marjina kenduz). Produktu edo zerbitzua ez ohikoa den kasuan berriz, merkatu prezioa bilatzea zailagoa da, ondorioz, mozkinen oinarrituz kalkulatu beharko dugu lagapen prezioa, hala nola, emaitzaren banaketa, marjin garbia eta transferentzia prezio negoziatuen bitartez.

Ariketetan lagapen prezioen aplikazio desberdinak ikusten dira. Batetik, produktua ea enpresak berak ekoitzi edo beste enpresa bat azpikontratatzea komeni den aztertuz, non batzuetan taldeko enpresari ordezkari merkatuan erostea merkeago den.

Bestetik, enpresa taldeek itxurazko salerosketa hau mozkinak presio fiskal txikia duten herrialdeetara egozteko nola erabiltzen dituzten ere aztertzen da.

4.gaiak **“Kudeaketa Kontabilitatearen ikuspuntu berriak. Enpresarako Gizarte Erantzukizuna -EGE-, Etika eta Deontologia jardunean”** da. Lehenik eta behin, globalizazioak dakartzan ondorio kaltegarriak aipatzen dira, hala nola, multinazionalen nazioartean duten garrantzi gero eta handiagoa, gizakiak naturari eragindako kalteak edota zerga-paradisuen sorrera. Honi loturik, Garapen Iraunkorren Helburuen inguruan talde-lan bat garatzen da U teoriaren bitartez. Horrez gain, Euskaltzaindiaren arabera, etika eta deontologia terminoak ezberdinak dira, etika moralaz aritzen den jakintza delarik, giza jokaera arautzen duen erregelak multzoa, deontologia, berriz, etikaren adarra da, lanbide bati dagozkion eginbeharrez aritzen dena.

Bestetik, Vodafone Espainiaren gizarte erantzukizuna plasmazten duen 2017-2018ko jasagarritasun txostenarekin jarduten da, non 6-7 ikasleko 3 taldeetan antolatuz, talde bakoitzak dagokion txostenaren atala aztertuko duen, izan ere 139 orri izanik luzeegia da talde bakarrarentzat. Horrela bada, talde batek GRI-200 atala aztertuko du (enpresaren ekonomia politikei lotua), beste batek GRI-300 (Vodafone-en ingurune-politikei erlazionatua) eta azkenak, GRI-400 (enpresaren politika sozialak isladatzen ditu).

“Barne kontrola ikuskariaren ikuspuntutik” deritza 5.gaiari. Nagusiki, bi kontrol mota aipatzen dira, kudeaketa- eta kontabilitate-kontrolak. Lehen, negozioaren eraginkortasunarekin eta zuzendaritza-taldearen politikekin lotuta dago, enpresaren jokabideaz hitz egiten duelarik, sail eta prozedura guztiak kontuan hartuz. Bigarrenak, berriz, enpresaren aktiboen babesa eta enpresaren informazioa eta erregistro kontableen fidagarritasuna ditu oinarri. Barne kontrolaren garrantziaz jabetzeko, Barings, Enron, WorldCom eta Parmalat enpresen kasuak aipatzen dira, barne kontrol efiziente bat ez edukitzeak ekar ditzakeen ondorioak ikusiz.


Iruzur arriskuak ekiditeko, hau osatzen duten hiru elementuak kontrolpean eduki behar dira. Horrela bada, pizgarri nahiz presioak eta iruzur-aukerak egotea ekiditen saiatu behar da enpresa, izan ere azken bi elementu horiek langilearen iruzurraren aldeko jarrera edo motibazioa, hirugarren elementua, bultzatuko dute.

Azkenik, 6.gaiak **“Barne kontrola enpresaren ikuspuntutik”** dugu. Bertan, barne kontrolaren 5 elementuak lantzen dira:

1. Kontrolaren testuingurua

Administrazio kontseiluak taldearen helburuengan eragin dezaketen arrisku korporatiboak identifikatu, ebaluatu, kudeatu, kontrolatu eta horien aurkako mekanismoak ezarri behar dira. Ikuskaritza Batzordeak arrisku nagusien barne kontrola eta horien ebaluaziorako sistemen egokitzapenari buruzko informazioa eman eta gainbegiratu du. Barne Ikuskaritza, dagokion negozioaren arriskuen gestio eta kontrolaren ebaluazio eta egiaztatzeaz arduratzen da era periodikoan. Zuzendaritza Orokorra jardura ezberdinetako arriskuen identifikazio, sailkapen, ebaluazio, kudeaketa eta jarraipen prozesuak homogeneizatzeko arau markoa sortzearen arduraduna da. Eta azkenik, Zuzendaritza Batzordeak arriskuen kudeaketarako erabiliko diren prozedurak erabaki eta definitzen ditu.

II.Irudia: Barne kontrolaren ardura



Iturria: Lan propioa, ACS-n (2018) oinarritua

2. Arriskuen ebaluazioa

Enpresa-taldearengan eragin dezaketen arriskuak kontrolpean edukitzeko, arriskuen matrizea erabil daiteke, non erreferentzi gisa arriskua sailkatzerako orduan enpresaren helburuengan duen eragina eta gertatzeko probabilitatea hartzen diren kontuan.

3. Kontrol aktibitateak

Zuzendaritza taldeak definitutako prozedurak dira eta identifikatutako arrisku bakoitza kudeatzeko modua zehazten du.

4. Informazioa eta Komunikazioa

Erabakiak hartzeko baliagarri izan daitezkeen datuak programa informatiko egokietan gorde eta langileei jardura bakoitzaren informazio zehatza eman, bakoitzaren funtzioak argi eta garbi uzteko.

5. Gainbegiraketa

Barne kontrolaren sistema eta prozedurak kontrolatzea.

Ebaluazio eta **metodologia**ren kasuan, ebaluazio jarraia eta ez jarraia bereiz ditzakegu. Ebaluazio jarraian, froga idatziak, azterketak alegia, 3 puntu balioko ditu. Gainontzeko 7 puntuak ebaluatzeko bi era ezberdin daude.

Batetik, bakarkako eta taldeko lanen bitartez, non nota finaletik puntu 1, 4.gaian aipatzen den Garapen Iraunkorreko Helburuen (GIH) inguruko lanaren bitartez ebaluatzen den. Lan honetan, GIH-etako bat aukeratu eta hori betetzeko jardura bat pentsatzean datza. U teoriaren bitartez, ni eta ni prozesua etxean aplikatzen da, gerora ni eta zu prozesua klasean (etxean ni eta ni prozesuko ideiak taldekideekin komunean jarriz), eta azkenik, gu eta gu prozesua taldeak pentsatu duena gelakideen aurrean azaltzean datza. Beste 2 puntu, 4.gaiako jasangarritasun txostenak zer diren eta talde bakoitzari dagokion Vodafone-en txostenaren zatia aztertuz ebaluatuko da. Beste 2 puntu, klasean gomendatutako enpresa baten 'Arriskuen Kudeaketaren eta Kontrolaren Politika Orokorrak' txostenaren laburpena hartu eta 5. eta 6.gaiako barne

kontrolaren inguruan ikasitakoa kasu erreal batean aztertuz ebaluatzen dira. Gainontzeko 2 puntuak, aldiz, bakarkako bi lanen bitartez ebaluatuko dira, horretarako honako gaietatik bi aukeratuz: EGE, ingurune-gestioa, korrupzioa, transferentzia prezioak,....

Bestetik, 7 puntuak bere osotasunean IKDGazte deritzon programan parte hartuz ebaluatu daitezke. Programa honen helburua, ikasketa metodologia aktiboak erabiltzea da, horretarako fakultate eta gradu ezberdinetako ikasleak elkartu eta enpresa errealek beraien arazoak azaltzen dizkie ikasleei. Ikasleek autogestionatutako programa honen helburua ekintzailtza eta inizatiba bultzatzea da, denen artean enpresa erreal hauen arazoei irtenbidea bilatzen saiatuz.

Ebaluazio ez jarraian, ostera, 10 puntuak azterketa finalean jokatuko dira.

Bestalde, klase guztiak presentzialak izango dira eta lehen bost asteetan klaseak 2 ordukoak izango dira, aldiz, hurrengo 10 asteetan ordu t'erdikoak.

2.4. Kontabilitatearen eta Kontu Auditoriaren Lege Markoa

Irakasgai honetan ematen den teoria kontuen auditoriaren inguruko araudietatik aterata dago Zubiaurre-ren (2018/2019) eskuz, hala nola, 2015eko uztailaren 20ko Kontuen Auditoriari buruzko Legea, 2011ko urriaren 31ko Kontuen Auditoriari buruzko Legea garatzen duen Erregelamendua, 1885eko abuztuak 22ko Merkatal Kodea, 2010eko uztailak 2ko Sozietate Kapitalisten Legea eta 2016an berrikusitako Nazioarteko auditoriako 700 eta 705 arauak (NIA-ES 700 eta NIA-ES 705). Araudi hauek informazio iturri gisa erabiliz osatzen da, beraz, irakasgai honetan ematen den materia.

1.gaiak **“Enpresaren publizitatea: Merkataritza Erregistroa”** da. Merkataritza Erregistroan banakako enpresariak, merkataritza sozietateak eta beste entitate batzuk inskribatzen dira. Erregistroen artean lurraldetarrak eta zentrala ditugu, probintzia bakoitzeko hiriburuetakoa eta Madrilen kokatua, hurrenez hurren. Bakoitzaren funtzioak ere azaltzen dira. Merkataritza Erregistroan inskribatutako egintzak hirugarrenei oposagarriak izango dira.

“Sozietate Anonimoaren eta Erantzukizun Mugatuko Sozietatearen organuak. Batzar Nagusia” deritza 2.gaiari. Sozietateak bere borondatea eratu, exekutatu eta hirugarrenekin kontratuak egiteko organu batzuk behar ditu. Horien artean Batzar Nagusia eta Administrazio organoa ditugu. Batzar Nagusiak ohiko eta ez-ohikoez gain, unibertsalak ere izan daitezke, deialdi formalik egiteko beharrik gabe. Batzar hauen deialdi, bilera leku eta bertan hartutako akordioak ere aipatzen dira.

“Kontuen Auditoriari buruzko oinarritzko araudia” da 3.gaiak. Bertan, kontuen auditoriaren hastapenak (kontuen akziodun zentsoreak, gerora, kontuen zentsore juratuek ordezkatur), irakasgaiaren deskribapenaren sarreran aipatutako informazio iturri diren araudiak eta kontuen auditoria egitera behartuta dauden enpresak aipatzen dira (hala nola, interes publikoa duten sozietateak edota bi urtez jarraian zenbateko jakin batzuk gainditzen dituzten enpresak, Sozietate Kapitalisten Legean arautua).

4.gaiia “**Kontuen auditoriaren kontzeptu eta oinarriak**” deitzen da. Kontuen auditoriarekin babestu nahi diren interesak zeintzuk diren aipatzen dira, besteak beste, bazkideak, etorkizuneko inbertitzaileak, hartzekodunak, langileak eta administrazio publikoa. Auditoria txostenaren helburu nagusia, hirugarrenei sozietatearen informazio ekonomikoaren fidagarritasunari buruz iritzi bat ematea da; horretarako, gestio txostena eta urteko kontuak bat etortzea, gestio txostenaren edukiak araudiak eskatutakoa betetzea eta enpresaren ondarearen, finantza egoeraren eta emaitzaren irudi fidela erakusten dutela egiaztatuz. Bestalde, galdu-irabazi kontu laburtua aurkeztu ezin duten sozietate taldeek kontu bateratuak aurkeztu beharko dituzte, taldean interes publikodun entitate bat ez badago behintzat.

Auditoreak lau iritzi tekniko mota eman ditzake: Salbuespendun iritzia, aurkako iritzia, iritzi ukatua eta aldeko iritzia. Administrazioaileek sinaturiko kontuak ematen zaizkienetik kontatzen hasita, auditoreek gutxienez hilabeteko epea izango dute txostena aurkezteko. Hori gutxi balitz, auditoria txostenik ez egoteak, urteko kontuen onarpenaren deuseztasuna sortuko luke. Txosten hau, bertan parte hartutako auditore guztiek sinatu beharko dute eta txostenagatik erantzukizun zibila beraiena izango da, nahiz eta akatsak laguntzaileak egin.

5.gaiia “**Kontuen auditoreen erregistro ofiziala eta auditore izateko baldintzak**” da. Kontuen auditoria, Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore independente batek egin behar du beti. Erregistro hau hiru atalek osatzen dute: Pertsona fisikoak diren auditoreak (jardunekoa, inoren kontura ari den ez jardunekoa eta ez jardunekoa bereiziz), auditore sozietateak eta hirugarren estatuetako auditoreak eta auditoria sozietateak. Auditore bezala gaitua izateko Kontuen Auditoriari buruzko Legeak erregulatutako baldintza batzuk bete behar dira, prestakuntza teoriko, praktikoa eta gaitasun azterketak gainditzeaz gain. Hala ere, nahiz eta hori guztia gainditu eta Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta egon, auditoreek etengabeko prestakuntza bat izan behar dute, auditoreen Korporazioek, unibertsitateek eta beste entitate batzuk antolatutako zenbait jarduerara eta kurtso eginaz.

6.ikasgaiia “**Auditorearen independentzia eta bateraezintasunak**” da. Auditoreak eszeptizismoarekin aritu behar du eta independentea izan behar da, hots, ikuskatutako urteko kontuetan akatsak egon daitezkeela pentsatuz eta enpresatik kanpo dagoen pertsona bat izanik. Kontuen Auditoriari buruzko Legean adierazten diren bateraezintasunek, auditorearen independentzia mehatxuan jarriko dute eta kasu horietan, auditoreak enkarguari uko egin beharko dio.

Normalean, auditoreak kontratuan erabakitako izendapen epea betetzean utzi beharko du bere kargua, zenbait kasu salbuetsiz. Auditorearen ordainsariari dagokionez, ostera, funtzioak betetzen hasi aurretik finkatuko da eta auditoreak ezin izango du bestelako ordainsari edo abantailarik jaso ikuskatutako sozietatearengandik. Gai honetan, auditoreen kontratazio epeak ere tratatzen dira.

“**Kontuen auditoria sozietateak**” deritza 7.gaiari. Auditoria sozietateek beren abantailak dituzte, esaterako, pertsonal gehiago dute eta beraz lana banatu dezakete, eta langileren bat gaixotu ezkeror, ordeztu egin daiteke. Horrez gain, auditoria sozietateak eratzeko baldintzak azaltzen dira, Kontuen Auditoriari buruzko Legean zehaztuak. Nahiz eta sozietate hauek edozein merkataritza sozietateren forma har

dezaketen, gaur egun, gehienak Erantzukizun Mugatuko Sozietateak dira. Hori gutxi balitz, 6.gaian aipatutako bateraezintasunei dagokienez, auditoria sozietate bateko bazkide baten bateraezintasunak beste bazkideei transmitituko zaizkie. Azkenik, aipatu behar da auditoria sozietateek, auditore pertsona fisikoek bezala, fidantza bat jarri behar dutela, bere lanaren ondorioz sor daitezkeen kalteengandik erantzuteko berme bezala.

8.gafia “**Auditorearen erantzukizun zibila**” deitzen da. Auditoreari erantzukizun zibila erreklamatu ahal izango zaio, baldin eta bere obligazioak betetzen ez baditu, kalte bat sortzen badu, eta azken bi elementuen artean kausalitate erlazio bat badago. Auditoreak, sortutako kalteengatik, modu proportzional eta zuzenean erantzungo du. Erantzukizun hau kontratuzkoa edota kontratuz kanpokoa ere izan daiteke.

“**Auditorearen obligazio batzuk**” da 9.ikasgaia. Auditoreak kontuen auditoria txostena igortzeko beharrezkoa duten informazioa galdatzera behartuta daude, eta beraz, ikuskatutako enpresa informazio hori ematera behartuta dago. 7.gaian aipatutako fidantza, pertsona fisikoen kasuan, jardueraren lehenengo urterako 300.000€-koa izango da, hau depositatzeko era ezberdinak daudelarik. Auditoria sozietateen kasuan, berriz, bazkide kopuruagatik biderkatuko da.

Kontuen Auditoriari buruzko Legean pairatzen den bezala, auditoreak lanetik lortzen duen informazioa (sekretuan) eta dokumentazioa gordetzeko obligazioa du, bere salbuespenekin. Horrez gain, auditoria lanen kalitatea bermatzeko, barneko kalitate kontrol sistema bat jarri beharko du auditoreak.

10.ikasgaian, “**Arau-haustek eta zehapenak**”, auditoreen obligazio profesionalak urratzean sortzen den erantzukizun administratiboari buruz hitz egiten da, zigortzeko ahalmena Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuari dagokiarik. Arau haustek oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke, dolua edo arduragabekeria egon diren kontuan hartuz. Zehapenak, aldiz, Auditoreen Erregistro Ofizialetik baja, isuna edota ohartarazpen pribatua izan daitezke.

11.ikasgaia, “**Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutua (ICAC) eta auditoreen erakunde profesionalak (korporazioak)**” da. Gai honetan, ICAC-en eta korporazioen funtzioak bereizten dira. ICAC esaterako, Auditoreen Erregistro Ofiziala gestionatzeaz, unibertsitate eta korporazioek emandako prestakuntza teorikoko kursoak homologatzeaz eta auditoria txostenei dagokien tasa kobratzeaz arduratzen da. Korporazioak (Kontuen Azterlari Zineginen Institutua eta REA Auditoreak), bestetik, ICAC-i zehapen-prozeduraren hasiera proposatu, NIA-k (Nazioarteko Auditoriako Arauak) itzuli eta espainiar legedira egokitu eta korporazioko kideek burutu beharreko etengabeko prestakuntzak antolatzen ditu, besteak beste.

Azkenik, 12.ikasgaia, “**Kapitaleko Sozietateei buruzko Legea eta Merkataritzako Legea**”, dugu. Auditoreak izendatzeko legezko suposamendu ezberdinak daude, hala nola, Batzar Nagusiak izendatzea, Merkataritza Erregistratzaileak izendatzea eta idazkari judizialak edo Merkataritza Erregistratzaileak izendatzea auditorea bidezko arrazoiagatik errebokatua izan den kasuan.

Bestetik, enpresaren urteko kontuengan interes legitimo bat baldin badugu, eskaera oinarritu bat aurkeztu dezakegu, Merkataritza Erregistratzaileak onartuz gero, enpresa behartuta egongo da urteko kontuak ikuskatzera. Hori bai, akats edo irregulartasunik ez dagoen kasuan, eskatzailearen kontura joango dira auditoria gastuak.

Metodologia eta ebaluazioari dagokionez, ebaluazio jarraia dugu, non nota finaletik 2 puntu talde lan batek izango dituen eta beste 8 puntu azterketak.

Talde lan honetan, era ezberdinetako jarduerak burutu behar dira. Batetik, auditoria sozietate bat eratzeko pausoak jarraitu behar dira (bazkideen datuak, bazkide ez direnak, langileak, etab., izen eta abizenekin, prestakuntza, dispentsak, kapitalean bakoitzak duen partaidetza, botoa, administratzaileak, aukeratutako sozietate forma eta horren arrazoiak, sozietatearen kapital zifra, norik sinatuko dituen auditoria txostenak, etab.). Bestetik, ikasgaietan landutako edukia erabiliz, zenbait galdera erantzun, esaldi batzuk afirmatu edo ukatu eta hipotesi batzuei erantzun behar zaie, batez ere Kontuen Auditoriari buruzko Legean eta hau garatzen duen Erreglamenduan justifikatuz. Hori gutxi balitz, fikziozko enpresa baten urteko kontuei buruzko auditoria txosten bat idatzi behar da, Nazioarteko auditoriako 700 eta 705 (NIA-ES 700 eta NIA-ES 705) arauak oinarritzat hartuz.

Azterketari dagokionez, 1. eta 2. ikasgaiak ez dira ebaluaketan sartzen, irakasleak adierazi bezala, irakasgai gerora ikusiko diren kontzeptuak ulertzeko oinarri gisa balio dute soilik. Horrez gain, materia guztia azterketa baterako utzi ordez, irakasgai honetan azterketa partzial bat egiteko aukera ematen da. Azterketa partzial honek 4 puntu balio ditu (ondorioz, azterketa finalak beste 4 puntu) eta hemen lortutako nota azterketa finalari gehituko zaio, aprobatzeko notarik finkatzen ez delarik, hots, azterketa partzial hontan ez da suspentsorik egongo, 0 bat atera arren. Eta noski, azterketa partzian sartutako gaiak ez dira sartuko azterketa finalean, eta alderantziz. Bi azterketen formatua berdina izango da, irakasleak esaldi batzuk jarriko ditu eta egia edo gezurra diren erantzun beharko da. Ez erantzuteko aukera ere badago, izan ere, erantzun eta huts eginez gero, penalizatu egiten da.

Oro har, klase guztiak presentzialak izango dira eta lehen bost asteetan klaseak 2 ordukoak izango dira, aldiz, hurrengo 10 asteetan ordu t'erdikoak.

2.5. Kontu Auditoria

Irakasgai honen 1. atala Azkue eta Anabitarte-ren (2019/2020) arabera “**Auditoriaren oinarriak: Definizioa eta helburuak**” da. Auditoria jardueraren legezko lehen urratsak Britainia Handian eman ziren Industria Iraultzarekin batera. Espainian, berriz, Europar Batasunean sartu ostean, 1988tik aurrera hainbat enpresentzat auditoriak derrigorrezkoak bihurtu ziren. Auditoria urteko kontuen berrikuspen eta egiaztapenean oinarritzen den jarduera bat da, enpresarekiko independentea den profesional aditu batek egingo duen (objektibotasuna bermatzeko). Enpresaren ondarearen egoera, egoera finantzarioa eta eragiketen emaitzak fidagarri eta sinesgarriak direla eta irudi fidela erakusten dutela ziurtatzeko helburuarekin egiten da, auditoreak bere iritzia auditoria txostenean idatziz. Auditoria txosten honengan interesa duten zenbait erabiltzaile daude, esaterako, akziodunak eta kreditu erakundeak.


2.atala “**Ikuskapenerako arau teknikoak**” da. Atal honetan, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuaren (ICAC) zereginak aipatzen dira. Bestetik, auditoreak jarraitu behar dituen arau tekniko, Espainiak egokitutako Nazioarteko Ikuskapenerako Arau (NIA-ES), multzo eta azpimultzoak eta horien egitura aipatzen dira. Hori gutxi balitz, auditore izateko ICAC-ek dituen eskakizunak ikusten dira.

Common Content Project, Europar hainbat institutu profesional lantzen ari diren proiektua da, auditoriaren globalizazioa, eta merkatu eta arauen harmonizazioaren ondorioz, Europar Batasuneko Direktibak eta Auditoreen Federazio Internazionalaren (IFAC) heziketa arauak betetzen dituelarik. Horrez gain, auditoria jarduera burutzen duten multinazionalen lan taldeen egitura eta hierarkia aipatzen da: Bazkidea, gainbegiralea, seniorra eta juniorra.

Auditorearen independentzia auditoria jardueraren giltzarria da, zintzo eta objektiboa izateaz gain. Horretarako, egoera ezberdinen aurrean, objektiboki jokatzeko inpartzialtasuna mugatzen duten jardueretatik aske egon behar du auditoreak. Auditoreak, legeak finkatutako bateraezintasun baten aurrean, ez independente bilakatzen duen auditoria lan hori ukatu beharko du. Hori kontrolatzeko, Korporazioek auditoreei kalitate kontrolak egiten dizkie, aztertzen den ataletako bat auditoreen etika eta independentzia delarik. Kontrol hauen helburua, auditoria lanen kalitatea bermatzea da. Ildo beretik, auditorea lana burutzeko behar duen informazioa eskatzera behartuta dago, bezeroaren ezezko baten aurrean, lan eremuak jasandako oztopoa auditoria txostenean zehaztuko du.

“**Auditoria metodologia**” da 3.atala. Auditoria prozesu batean eman beharreko urratsak hauek dira: Enpresa ezagutu eta mandatu-akordioa prestatu, plangintza, exekuzioa, ondorioak eta txostena igortzea.

III.Irudia: Auditoria prozesua



Iturria: Lan propioa, Azkue eta Anabitarte-ren (2019/2020) apunteetan oinarritua

Ikuskatu behar den enpresak auditorea hautatu eta eskaria egin ondoren, auditoreak mandatu akordioa prestatu behar du. Lana burutzeko arazoak izan ditzakeenez, auditoreak sektoreari eta enpresari buruzko informazioa (enpresaren barne kontrolaren funtzionamendua) bilatu beharko du.

Honen ostean, Lanerako Plana garatuko da, estrategia globala eta egitarauan oinarrituz (zer proba, nork eta noiz egingo diren), nazioarteko 300 arauaren laguntzaz.

Exekuzioan, hainbat jarduera egin behar dira: Ikuskatze-nabaritasunak, adinakoak eta egokiak, lortzeko kontroleko eta funtsezko probak egin (laginketaren bidez, eragiketa guzti guztiak egiaztatu gabe); ikuskapena, dokumentu, kontabilitate erregistro edota aktibo fisikoen azterketa eginez; enpresako pertsonalak burututako prozedurak behatu; kontabilitate erregistroetako informazioaren baieztapena lortu, esaterako, bankuei estraktuak konfirmatzeko eskatu; kalkulua eta birexekuzioa (enpresak egindako kalkuluak egiaztatu, eta bere kabuz berriro kalkulatu); azterketa analitikoak, hala nola, ratio eta ondare masak aztertu; eta enpresari buruzko ezagupenak dituzten pertsonen galdeketa egin. Hau guztia idatziz egin behar da, auditorearen lan paperak izango direlarik.

Azken fase honetan, txostenaren zirriborroa prestatu eta emaitzak aztertuko dira, lortutako nabaritasunaren arabera iritzi mota emateko. Behin betiko txostena igorri baino lehen, enpresako Zuzendaritzari Aitorpen Gutuna eskatu behar zaio, barne-kontrollean sumatutako ahultasun garrantzitsuak jakinarazteko gutuna igortzeaz gain.

“Auditorearen lan arloak” da 4. atala. Aurreko gaian azaldu bezala, auditoria lanetan, ez dira eragiketa, erregistro eta idazpen guztiak aztertzen. Horrela bada, gai honetan, salerosketa eta inbertsio-finantzaketa zikloak egiaztatzekeo pausuak lantzen dira. Salerosketan, diruzaintzak, izakinek, bezeroek eta hornitzaileek hartzen dute parte, inbertsio-finantzaketa zikloan, ostera, ibilgetu materialek nagusiki

Diruzaintzan, arkeoa egiaztatu, doikuntza kontableak proposatu, saldo doitua lortu (urteko kontuetako saldoari doikuntzak gehitu edo kendu), arkeoko saldoa abenduaren 31ra egokitu eta azkenik, auditorearen saldoa eta saldo doitua konparatu. Amaierako saldoak auditorearen saldoaren berdina izan behar du. Izakinetan, inbentarioa egiaztatu, erosketa eta salmentak banatu eta izakinen balio-narriadurak aztertu behar dira; amaierako izakinen eta balio-narriaduren saldoak proposatu. Bezero eta hornitzaileei dagokienez, zirkularizazioko erantzunak aztertu, merkataritza kredituen balio-narriadura aztertu eta amaierako saldoa lortzean doikuntza kontableak proposatu.

Ibilgetu materialaren funtsezko probak, agirien egiaztapena, inbentario fisikoa, ibilgetu materialaren mugimenduak (altak, bajak, hobekuntzak), ekitaldi itxieran egoera eta balorazioa (zaharkitzea, amortizazioa) eta jabetza erregistroko informazioa.

Irakasgai honetan lantzen diren ariketa guztiak, gai honetan aipatutako egiaztapen eta funtsezko probei buruzkoak dira.

5. atala **“Urteko kontuen auditoria-txostena”** da. Lehenik, auditoria txostenaren definizioa eta auditoriaren inguruko kontzeptu orokorrak ikusten dira. Ondoren, ondorioak eta ikuskaritza txostena erregulatzen dituen Nazioarteko Ikuskaritza Aruak aipatzen dira (NIA-ES 700, 701, 705, 706, 710 eta 720). Azkenik, auditoria txostenaren oinarritzko elementuak eta iritzi motak (aldekoa, salbuespenekin, aurkakoa eta ukatua) gogora ekartzen dira.

Teorian baino praktikan hobeto ikusten denez, KPMG Auditores, S.L. sozietatearen auditoria txosten bat erabiltzen da, teorian ikusitakoa praktikan nola lantzen den ikusteko.

Metodologia zein ebaluazioa behatuz, etengabeko ebaluaketa eta azken ebaluaketa ditugu, hots, ebaluazio jarraia eta ez-jarraia.

Ebaluazio jarraian, lauhilekoaren erdialdean egiten den test erako probak nota finalaren %20 balio du, aldiz, Abenduan egiten den azterketa praktikoak, 4.atalari buruzkoak, notaren %40. Hori gutxi balitz, taldean, auditoria lan bat planifikatzerakoan 'egitarauetan' (3.atalekoa) jaso beharreko ikuskaritza helburuak eta prozedurak arlo zehatzetan garatu eta klasean aurkeztu behar dira, irakasgaiaren notaren %30 balioko duelarik. Gainontzeko %10a, eskola orduetan egindako banakako zein taldeko zereginen (artikuluen irakurketa eta aurkezpena, kasuen ebazpenak eta informazio bilaketak) bitartez ebaluatuko da. Irakasgaia gainditzeko, eskola orduen %85 bertaratzea derrigorrezkoa da.

Ebaluazio ez-jarraian, notaren %100a azken ebaluaketa sistemaren bidez ebaluatzen da. Ebaluazio hau aukeratzeko, nahikoa izango da banakako probetara ez aurkeztea eta egutegi akademikoan jasotako datan dagokion proba egitea.

3. METODOLOGIA AKTIBO BERRITZAILEAK

Klase magistral tradizionalak zenbait indargune dituzte, hala nola, irakasleak emango duen materiaren egitura sendotu eta antolatzeko erraztasunak, irakasleak gai edo kontzeptuak lantzeko denbora kontrolpean izatea eta klasean ikasle-talde handia izateak ez du asko eragiten. Bestetik, ordea, Unibertsitateko Hezkuntza Metodologiaren Berrikuntzarako Komisioaren esanetan, desabantaila ugari ditu: Ikaslearen geldotasuna eta parte ez hartzea bultzatzen du, kontzeptuen inguruko hausnarketari biderik ez zaio uzten, ikasle-irakaslearen arteko deskoordinazioa eman daiteke, ikasleak klasetik kanpo informazioa bilatzeko pizgarririk ez du ematen eta ikasle beraren hezkuntza prozesuaren autonomia galtzen da. Komisio honek, 2006an, Espainiako 55 unibertsitate publiko eta pribaturi inkesta bat burutu zien, non ikasleen %90,9a ados zegoen unibertsitateek irakasgaien ikasketa planak aldatzeko proposamenak egin eta sustatu behar zituztela, Europatik bultzatutako metodologiak berritzeko beharrezkoak diren printzipio eta prozedurak barneratuz (Comisión de Coordinación Universitaria, 2006).

Orain urte batzuk arte, metodologia tradizionala nagusitu izan da klase magistralak ematerako orduan, non irakaslearen saiakerak ikasleei ahalik eta ezagutza gehien transmititzean kontzentratzen ziren. Gaur egun, ordea, Goi Hezkuntzaren Europar Eremuak (EEES) Europar irakaskuntza eta metodologiaren harmonizazioan diharduenek, Espainiako unibertsitateen irakaskuntza metodoan aldaketak suposatzen ditu. Metodologia aktiboak erabiltzea eskatzen da, klasearen garapena eta ikasleen parte hartzean oinarrituz. Hori gutxi balitz, proposamen berri honek, irakasleek jakintzagaien nondik norakoak diseinatu eta erabakitzeko esfortzu handiagoa inplikatu du: Informazio-iturri berriak bilatu, ohiko metodo eta ebaluazioak zalantzan jarri, berrelikadura edo 'feedback' lortzeko mekanismoak garatu, etab. Kasu hauetan, irakaskuntza metodoa ikaslearen bizkortze edo pizgarri erreminta soilak da, ikaslearen abilezia eta jarrera garatzeko estrategia didaktikoak erabiliz azken honen ikasketa autonomoa bultzatu nahi da. Horrela bada, metodologia aktiboekin, irakaslea jakinduriaren igoerle izateko orientatzaile edo gidari izatera igarotzen da (Martín et.al., 2011).

Hori horrela, Euskal Herriko Unibertsitateak Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako graduan eskaintzen duen kontabilitateko minorra edo espezialitatean aplikagarri izan daitezkeen metodologia aktiboak aztertuko ditugu.

3.1. Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (ABP)

Proiektu batean oinarritutako lanak, Serna et. al. (2013) ustetan, ikasleak egungo errealitateko arazoetan barneratzea ahalbidetzen du, esperientzia lortuz, gaitasun berriak garatuz eta abileziak eta jakintza baliatuz. Ikasleak gizarteko arazoekin harremanetan jartzeak, bere garapen pertsonala eta gizartearekiko konpromisoa sustatzen ditu. Gehienetan proiektu hauek klaseaz haratagoko errealitatean oinarrituak izaten dira.

Metodologia honek, diziplina anitzeko taldeak, profil edo esparru ezberdinetan diharduten ikasleekin, ahalbidetzen ditu. Planteaturiko proiektuei konponbide alternatiboak bilatzeko elkarlanean jardungo da, ikaskuntza praktikoa bermatuz. Hari

beretik, metodologia honetan emaitza positiboak lortu nahi badira, diziplinarteko hezkuntza erabiltzea gomendatzen da, hots, ikaslearen zentratzen den ikasketa mota, lezio labur eta bakartuen ordez. Gainera, proiektuak ikasleentzat erakargarriak, desafiatazailak eta batez ere, motibagarriak izatea ezinbestekoa da, horrela, gai aukeraketan nahiz proiektua gauzatzean errazagoa izango da ikaslearen protagonismoa hartzea.

Bestalde, irakasgai bateko notaren ebaluaziorako proiektuak erabiltzea ez da inongo berrikuntza, irakasle ugari ari direlarik gaur egun beraien klaseetan barneratzen. Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza, ez da jarduera osagarri bat, metodologia aktibo bat baizik, non ikasleak bere indarguneak identifikatu eta landu ahal dituen, gustoko dituen proiektuak hautatuz.

Ikasketa honen bitartez, ikasleak, hartutako erabakiak eta jarrera, eta horiek sortutako efektuak egiaztatu ditzake; autonomia, sormena eta iniziatiba bezalako gaitasunak, konfiantza eta jakin-mina gisako jarrera edota jardunaren bitartez eskuratzen den trebezia garatzeaz gain. Era berean, lana bukatu osteko emaitza ikasleari aurkeztuko zaio, bere erabaki pertsonalek sortutako kausa-efektu erlazioei buruz hausnartuz. Hori gutxi balitz, proiektuen bidezko ikasketarekin errazagoa da ikasitako kontzeptuak gogoratzea, izan ere Confucio-k (450 K.a.) zioen moduan "Esaidazu eta ahantziko dut, erakutsidazu eta gogoratuko dut, inplika nazazu eta ulertuko dut" (Egenfeldt-Nielsen, 2009, 185.orrian aipatua).

Ondorioz, garrantzitsua da azpimarratzea irakasleak orientatzaile gisa jardungo duela, ikasleak dituen zalantzak ebatziz eta proiektuaren haria gidatuz. Proiektuaren garapenaren sustatzailea eta ikaslearen gomendatzailea izan behar da, azken honek proiektua egiteko dituen bide ezberdinen artean aholkatuz. Bestetik, ikaslea proiektu ezberdinek sortu ditzaketen arazoei irtenbideak bilatzen saiatuko da, lanak burutzeko teknika hobetzen ahaleginduko delarik.

Metodologia honen barnean, zenbait modalitate bereiz ditzakegu Edutekaren arabera (2007):

- Integrazio-proiektuak. Batetik, erreminta informatikoen erabileraren ondorioz lortutako gaitasunak sendotzea bilatzen da. Bestetik, aldiz, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) erabiliz, gainera irakasgaietako ikasketa-prozesuak erraztu, hobetu edo sakontzea. Integrazio proiektu hauek aurrez zehaztutako helburuak dituzte, non hezkuntzaren benetako hobekuntza eta irakasgaietako kontzeptu garrantzitsuen ulermena bilatzen den.
- WebQuests. Irakasleak aurrez aukeratutako Interneteko baliabideen erabilpenean oinarritzen da, horrela, ikaslea baliabide hauen erabilpenean zentratuko da, horiek bilatu ordez. Irakasleak, bilatutako informazioaren erabilera egokia bermatzeko, behar dituen funtsezko iaiotasunak garatzeko diseinaturik dago. Beste era batera esanda, ikasleak bilatu duen informazioa sailkatu, antolatu, aztertu eta laburtuz, beti ere IKTren laguntzarekin, produktu berri bat sortzea da helburua.
- Elkarlaneko proiektuak. Esparru ezberdinetako irakasleek, sarritan, talde-lanak erabiltzen dituzte ikasketa-metodo gisa. Bada, horiek era kolaboratiboan nahiz kooperatiboan gauzatu daitezke. Proiektua kolaboratiboa izango da, baldin eta taldeko partaide bakoitzak zati espezifiko bat egin, eta ondoren, partaide guztien lana komunean jartzen bada lan bat osatuz. Aldiz, lana kooperatiboa

izango da, baldin eta egin beharreko zereginak partaide guztien artean egiten badira.

Elkarlaneko proiektu hauekin, ikaslea, besteak beste, taldean aktiboki parte hartzera, taldeko konpromisoak bere gain hartzera, besteen ikuspuntuak entzutera, laguntza eskaini eta jasotzera, ikuspuntu propioak taldekideen aurrean argumentatzera eta lortu nahi diren helburuak zehaztera bultzatzen du.

3.2. Gamifikazioa

Gamifikazioa, Prieto et.al. (2014) esanetan, jokoaren mekanika eta diseinuetan propio diren elementu eta kontzeptuak enpresa, marketing komertziala edota hezkuntza gisako esparruetan aplikatzea da. Gamifikazio estrategia hauek hezkuntzari aplikatzeak, ikaslea irakasgai edo ikasketa-plan bateko jardueretan gehiago inplikatzera du helburu. Jokoetan behin eta berriz jokatzeko segitzera bultzatzen dituzten ezaugarri horiek txertatu nahi dira hezkuntzan, ea efektu berdintsua lortuz, ikaslea ikasketa-prozesuan barneratuta mantentzea eta irakasgaiako kontzeptuekin erlazio estuagoa edukitzea lortzen den.

Ikaslearen profilaren arabera, motibazio intrintseko ezberdinak aurki ditzakegu epe luzera begira, hala nola, ezagutza handitzeko xedea, ikaskideen artean arrakasta lortzea, perfekzioa bilatzea edo ikasketa autonomia sustatzea. Hori dela eta, irakasleek irakasgai xede eta ikaslearen helburu pertsonalen artean erlazio bat bilatu beharko dute, esaterako, ikasleek jomugatzat duten lan profesionalean lagungarri izango dituzten gaitasunak garatzea.

Metodologia honek motibazio intrintseko nahiz estrintsekoko mekanismoak eta epe labur nahiz epe luzerako mekanismo laguntzaileak ere erabiltzen ditu. Geruza fineko gamifikazioa eta gamifikazio sakona bereiz ditzakegu. Lehena, sistema bati erantzen zaion metodo bat da, non jarduera espezifiko batzuk egitearren ikaslea saritzen duten. Era berean, epe laburrean, ikasleak puntu edo txartelak lortu ditzake sari edo hobari gisa; epe luzean, aldiz, sistema edo jokoaren erabiltzen den bitartean, parte hartzaileen zerrenda bat egingo da, non zenbat eta ekintza gehiago egin edo erantzun zuzen gehiago eman, sailkapenean orduan eta posizio hobetoan egongo den ikaslea. Gamifikazio sakonak ostera, ikaslea modu sakonagoan inplikatzera bultzatzen du, sentimendu narraitibo eta gogoangarriak erabiliz. Ondo planteatutako eta argumentu sinesgarri eta erakargarri bat duen irakasgai batek ikasleari motibazio intrintseko bat emango dio.

Irakasgai baten gamifikazioa era ezberdinetara egin daiteke, horren adibide: Narrazio bat sortu, jarduerak betetzearren ikasleari puntuak eman sari gisa edo ikasketa-prozesua dibertigarriago egingo duten osagaiak txertatu, hala nola, osagai pertsonalizatuak, gertutasun soziala sustatzen duten elementuak edota berrelikadura duten osagaiak.

“Sarean Eraikitzen” (CER), La Salle unibertsitateak, Bolivian kokatutako Suitzako Lankidetzaren aginduz, martxan jarritako proiektu bat da, Valda eta Arteaga-ren (2015) arabera. Bere helburua, plataforma teknologiko batetik abiatuz, ezagutza igorle, adituen elkarrizketen sustatzaile, esperientzia eta jakintza praktikoaren trukeko gune

eta hezkuntzan aldaketak bultzatzen dituzkeen ideia berritzaileen abiarazle izango den plataforma bihurtzea da. Horrela bada, erabiltzaileek CER plataforman edukiak gehiago erabili eta partekatzen, gamifikazioa barneratzea pentsatu zen.

Estrategia horretan erabilitako osagaietako bat **intsignia** edo bereizgarriena da. Erabiltzaileak helburu bat betetzean intsignia bat lortuko du, sari horrek ez duelarik balio monetariorik izango, baina bereizgarri bezala balio du erabiltzaileen lorpenak ikusteko. Entseina hauek maila ezberdinetakoak izango dira (hasiberria, bitartekoa edo aditua) eta ondorengo helburuak betetzearen lor daitezke: CER plataforman sesioa zenbait aldiz irekitzearen, foro ezberdinetan parte hartzearen, bertako edukiak baloratu eta iruzkinak egitearen, zenbait egun segidan plataforman sartzearen,... Erabiltzaileak lortutako bereizgarri horiek bere profilean ikusi ahal izango dira, lortu ez dituen entseinak galdera ikur batez markatuz, erabiltzailearen parte hartzea sustatzeko.

Beste osagaietako bat **progresio barra** da. Gizakiak ekintza bat egin ostean erantzun bat espero izaten du, erantzun horri berrelikadura deritzo. Bada, erabiltzaileak ekintza bat burutzean, plataformak automatikoki ihardetsiko dio. Horrenbestez, progresio barrak, besteak beste, honako ekintzen bilakaera erakutsiko du: Erabiltzaileak profileko informazioa betetzea, artikuluei buruzko lehen iruzkina edo artikuluetako bat haztatu edo puntuatzea eta foroetan lehen aldiz parte hartzea.

Azken osagai gisa **puntuak** ditugu. Kasu honetan, erabiltzaileak puntu kantitate zehatz bat jasoko du jarduera bat betetzearen, jarduera ezberdinek puntu kantitate ezberdinak emango dituztelarik. Gerora, puntu hauek trukeko edo erabiltzaileari onuraren bat ekarriko dion zerbaiterako erabili ahal izango dira. Aurrez determinatutako denboraldia amaitzean, hilabete bukaeran izan daiteke, sailkapenean lehenengo postuan amaitu duena saritu daiteke, esaterako unibertsitateko kafetegian plater konbinatu bat doan emanez. Sailkapen hori kompetentzian oinarritua egongo denez, bere alde negatiboak ere izan ditzake, hala nola, sailkapeneko lehenak puntu gehiegi baditu, bigarrenak atzemanazintzat jo eta interesa galdu dezake. Bestalde, estrategia egoki bat erabiliz, lehia osasuntsua sustatu daiteke eta diseinatutako helburuen lorpenean zentratu.

Bestetik, **Kahoot**, irakasleen artean fama hartzen ari den debaldeko erreminta bat da, bere erabilera erraza eta lan egiteko duen dinamika aktiboa dela eta, ikasgeletan presentzia gehiago lortuz. Aplikazio honekin, inkesta, galdetegi eta eztabaidak sor daitezke, ikasleen feedbacka lortuz momentuan bertan. Galdetegi kasuan, irakasleak galderak sortu, horien erantzun zuzen kopurua erabaki eta galderak erantzuteko denbora ezartzen du. Galderak klasean proiektatuko dira, eta ikasleek beraien smartphone edo mugikorrarekin erantzungo dute galdetegia. Galderak ondo erantzutearen puntuak lortuko dira (zenbat eta arinago aukeratu erantzun egokia, orduan eta puntu gehiago lortuko ditu ikasleak) eta galdera bakoitzaren ostean, sailkapena eguneratzen joaten da lehen bost ikasleak soilik agertuz pantailan, norgehiagoka bat balitz bezala (Rodríguez-Fernández, 2017).

Kahoot-ek ikasgelan duen erabilerrari buruzko zenbait ikerketa bat datoz ondorioetan, horrela bada, Kahoot gelan jarduerak burutzeko tresna egokia da eta ikaslearen parte-hartzea suspertzen du taldearen arteko erlazio positiboa sustatuz. Ikasleen bertaratzea handitzen da eta ebaluazio-sistema gisa ulertu beharrean, joko

gisa hautematen da. Ondorioz, erreminta hau erabiltzen duten ikasleek, gainontzeko jokoen dinamikak erabiltzen dituztenak baino %22 gehiago ikasten dute. Hala ere, aspektu negatiboen artean, internet konexio iraunkorra eta ikasleak elkar kopiatzeko aukera ditugu (Rodríguez-Fernández, 2017).


Socratic erremintak, berriz, Kahoot-en antzeko erabilera eta aplikazioa du. Lehenik eta behin, web orrialde bertan izena eman eta kontu bat sortu behar da. Honen ostean, irakasle profilari klik egin eta Quiz esparrua hautatuko da, non aukera anitzeko galderak, egia/gezurra erakoak edota ikasleak erantzun laburrak idaztekoak jaulki daitezkeen. Horrela bada, galderak sortu beharko dira dagozkien erantzun posibleekin (nahi adina erantzun posible erantsi daitezke), eta baita erantzun zuzenak aukeratu ere.

3.3. Gela Iraulia (Flipped Classroom)

Gela irauliak edo alderantzikatutako hezkuntza-ereduak, izenak dioen bezala, Martínez-Olvera et. al. (2014) dioten bezala, ikaskuntza tradizionaleko rol eta momentuak irauli nahi ditu, non klaseko ikasmateriala irakasleak eman beharrean, ikasleek ikas dezaten gelaz kanpoko orduetan eta multimedia erreminten bitartez. Hori dela eta, normalean etxean egin beharreko jarduera praktikoak ikasgelan egin ahalko dira, proiektuak gauzatu, elkarlanean edota problemetan oinarritutako ikasketaren bitartez. Diziplina honetan, irakasleak hurrengo klaserako, dagokion ikasgaia irakurtzea eskatzen du, laguntza gisa bideokonferentzia edo aurkezpenak baliatuz.

Ikasgela bateko ikasle-taldearen premiak kontuan hartuz, hezkuntza-metodo ezberdinak parekatuz eta irakaslearen klasea emateko modua eta ikasgelan duen rola zalantzan jarriz sortu da eredu hau. Hortik abiatuz, multimediaren erabilera, ikasleak ikasketa-prozesua bere erritmoan burutzen eta horretarako metodo eta bide egokienak aukeratzen lagunduko dion baliabideetat jotzen da. Ikasmateriala unibertsitatearen web orrialdean egongo denez, edo gutxienez eskuragarria izango denez, bertako edukiaren ulermenaren ardura ikasle eta irakaslearengana igaroko da.

IV.Irudia: Gela irauliaren osagarriak



Iturria: Lan propioa, Martínez-Olvera et. al. (2014) artikuluan oinarritua

Gela irauliaren ereduak, ikasleak garatu beharreko gaitasunak identifikatu eta helburu gisa hartzea du osagarri zentrala. Puntu honetan, irakasleak formakuntza zuzenez (edo bideokonferentziaz) irakatsi behar diren edukiak eta esperimendazioan oinarritzen direnak bereizi beharko ditu. Markatutako helburuak lortzeko, ikaslearengan zentratuko den metodologia bat erabili behar da. Bertan, elkarlana barneratzen duten jarduerak planteatu eta adimenaren abilezia gorenak erabili beharko dira, beti ere irakasleak euskarri edo laguntzaile bezala jardungo duelarik. Lehen momentutik, argi eta garbi utziko dira irakasgaiak zehar lortu nahi diren helburuak, klaseen plangintzak eta klasea aurrera eramateko erabiliko den ereduaren oinarriak zein diren. Ondorioz, modelo honetan, ikasleek erritmo pertsonalizatuan aurreratuko dute, eta ahal izanik gero, ikasle bakoitzaren garapenaren arabera ebaluazioa egitea litzateke egokiena.

Gelako jarduerak alderantziz (klasean eta klasetik kanpoko zereginak bereiziz), Bloom-en taxonomiarekin bat etorriz, maila baxuko esfortzu kognitiboak, ulertu eta gogoratzea esaterako, klasetik kanpo landuko dira; aldiz, kontzentrazio-maila altuagoa behar duten jarduerak praktikoak, besteak beste, aplikatu, aztertu, ebaluatu eta sortu beharrekoak, klasean egingo dira. Horrenbestez, metodo honekin, kompetentzia-maila ezberdineko ikasleekin lan egin daiteke, bakoitzak bere erritmoan lan egingo duelarik eta klasetik kanpo materia aurreratzeko aukera izanik. Horrela bada, behar izanez gero, irakasgaiko edukia nahi adina aldiz errepikatu ahal izango da, eta ondoren klasean praktikatu irakasle eta kideen laguntzarekin. Eredu honetan, beraz, irakasleak atentzio pertsonalizatua edo banan-banako laguntza emango die ikasleei, parte hartzea eta feedbacka sustatuz.

Hau praktikan jartzeko garaian, artikuluko berean, bi eredu aurki ditzakegu.

Lage-en arabera (Lage, 2000, Martínez-Olvera et. al. 2014-en aipatua), irakasgaiak zehar landuko diren gaiak ikasleei esleitu ondoren, eskuragarri duten multimediarik edukia, hala nola, aurkezpen, bideo, galdetegi eta ebaluazio praktikoak, behatzera animatuko zaie (edukia hainbat era ezberdinetan eskaintzea gomendatzen da, ikasleek beraien ikasketa-prozesura hobeto egokitzen den formatua aukera dezaten).

Klase presentzialen hasieran, gehienez 10 minutu erabiliko dira etxeko lanekin egon daitezkeen zalantzak argitzeko. Honen ostean, irakasgaiaren zati praktikoa landuko da, zailtasun-maila ezberdineko ariketak ebatziz. Gero, klasez kanpo egindako zereginen erantzunak talde txikitan eztabaidatuko dira, eta segidan, talde txiki horietan lortutako ondorioak klaseko gainontzeko ikaskideekin batera amankomunean jarriko dira. Azkenik, irakasleak kezka edo zalantza berriak proposatu beharko ditu.

Klasetan galdetegi edo prueba periodikoak egitea aholkatzen da, ikaslearen engaiamendua lortu eta irakasgaiko materiala klasez kanpo lantzeko. Ebaluazioa, klasean landutako edukia aplikatzeko ariketen bitartez egingo da. Bestetik, irakasgaiko web orrialdean, multimediarik edukiaz gain, jakinmina asetzeko eta ikaslearen arteko elkarrekintza bultzatzeko txoko bat egotea komeni da. Hori gutxi balitz, astean ordu zehatz batzuetan, irakaslearekin zuzenean txateatzeko aukera zenbatetsi behar da, klase presentzialen osagarri gisa.

Bergmann eta Sams-en (Bergmann eta Sams, 2012, Martínez-Olvera et. al. 2014-

en aipatua) proposamenean berriz, lehen saioan, ikaskuntza modeloaren nondik norakoak, klaseen antolaketa, gai bakoitzaren edukiaren laburpena eta aukeran, aurreko urteetako ikasleek irakasgai hortan izandako esperientziei buruzko bideo bat azaldu edo erakutsiko zaie ikasleei. Hurrengo bi saioetan, informazio-baliabideen aukeraketa eta bilaketa egokia egiten irakatsiko da, non oharkabetasunak saihesteko aholkuak eta testu idatzien mamia identifikatzen erakutsiko den.

Klase presentzialetan, ikusitako bideokonferentziari buruzko galdera bat planteatu beharko du ikasle bakoitzak. Honekin, ikusi den bideoan ulertu ez dena identifikatzea erraztu, okerreko ulermenak ekidin, eduki teorikoaren errepassoa egin eta ikasgaiaren analisia egin nahi da. Gehienez 10 minutu iraungo duen galdetegiaren ostean, talde txikiak osatu eta bakoitzari jarduera batzuk izendatuko zaizkio. Aukeran, taldeak txandakatzen edo aldatzen joango dira, ikasleak beste ikaskideekin eztabaidatu ostean, irakasgaiko edukiari buruzko ikerketak egitera bultzatuz.

Ebaluazioari dagokionez, ebaluazio jarraia hobesten da, ikaslearen ikasketa-prozesuaren garapena baloratuz. Ebaluazio jarraia, idatzizko froga eta gaiarekin zerikusia duten jarduera periodikoekin egingo da, behin edo behin ordenagailuko frogekin tartekatuz (berehalako emaitzak, berrelikadura, jarraipena eta gaien orden aldaketa baimentzen baitu). Frogetan lortutako emaitzen arabera, klasea aurrera jarraitu, berriz diseinatu, edota ikasle jakin batzuei aurreko ikasgaira bueltatu eta froga errepikatzen utziko zaie emaitzak hobetzen saia daitezen. Ereditu honetan, nota finalaren %50 ebaluazio jarraian burututako frogak eta jarduerari dagokie, aldiz beste %50a, ikasleak irakasgaiaren zehar izan duen garapenean eta irakasgaiaren hasieran ezarritako helburuen lorpenean oinarrituko da.

Gela irauliaren erabiltzaile eta ordezkarietako bat **Carlos González Martínez** da, Geografia eta Historiako irakaslea zenbait institututan, besteak beste, 'Cigales' Valladoliden, 'Juan Martín el Empecinado' Aranda de Dueron eta 'Canal de Castilla' Palentzian. Nahiz eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaslea izan, gela irauliaren metodoa ulertzeko erreferentziatzat har dezakegu. Carlos, kurtso bakoitzaren hasieran, bere web orrialdea edo bloga burutuko diren jardueren informazio zehatzaz hornitzen saiatzen da, irakasgaiaren gidaliburu bat eskegitzen duelarik landuko diren unitate didaktikoekin. Ondorioz, ikasleak argi eta garbi izango ditu zer gai eta zer ordenatan emango diren, aurreko urteko ikasleei galdetzen ibili ordez (García eta González, 2018).

Web orrialdean (<https://historiaencomentarios.com/2018/08/27/1o-de-bachillerato/>), irakasgaiko edukia hainbat ataletan bereizita dago: Irakasgaiaren gidaliburua, irakaslearen bitakora (gela irauliaren ezarpenak dituen abantaila eta desabantailak eta klaseetako gertakari buruzko erreflexio gunea), gai-zerrenda bideotan (2 eta 5 minutu bitarteko gertakari historiko ezberdinei buruzko 110 bideo), EDpuzzle (irakasleak edukiari buruzko azalpen-bideoak igotzen ditu, bideoan zehar test moduko galderak agertuz pantailan), kontzeptuen definizioak, Quizlet (ikasleak galdetegi batzuk izango ditu, galdera bakoitzeko diapositiba biratuz erantzuna azaltzen delarik, errepasso eta autoebaluzio gisa funtzionatuz), komiki esperientzia (hezkuntza-zentro ezberdinekin kolaboratuz, gertakari historikoak komikietan isladatzea bilatzen da), ikasleen blogak (artikulu, etxeko lan eta zereginak bertara igoko dituzte, irakasleak bertatik zuzenduz), sare sozialak (hashtag-ak erabiliz, gertakari historikoen difusio kanpainak egingo dira), emotikonoen liga (Whatsappeko emotikonoekin gertakari historikoen hieroglifikoak egitean datza), Kahoot (beste hezkuntza zentroekin, jokorako galdera-erantzunak

sortzea), 'Visual Thinking' (gertakari historikoak eskema eta marrazkietan azalduz), berregite epistolarra (historia zenbait pertsonaien gutunen bidez birsortuz), radio historia (ikasleek sortutako podcastak, historiako pertsonai ezagunak elkarrizketatuz), 1929ko kraka (Burtsan oinarritutako joko bat), errealitate birtuala (Google Street View eta errealitate birtualeko betaurrekoekin, leku historikoak birsortzea) eta eztabaidak (besteak beste, roleplay formatuan oinarritua, ikasleak ideologia ezberdineko pertsonaien lekuan jarri eta kritika-defentsak eginez). (García eta González, 2018)

Esan dezakegu Carlosek erabilitako ereduak gela iraulia eta gamifikazioaren arteko nahasketa bat dela, irakasgaiko edukia online eskegita edukitzeaz gain, horietan jokoaren dinamikak barneratzen baititu.

3.4. Ikaskuntza kooperatiboa

Klasean jarduerak egiterako garaian, Serna et. al. (2013) esanetan, hiru era ezberdinetan antolatu daitezke ikasleak: Lehian oinarritutako ikaskuntzan, banan-banako ikaskuntzan eta ikaskuntza kooperatiboan. Lehenengoan, zereginak lehiaketa gisa antolatzen dira, ea nork buruketa azkarren ebatzi, ea zein den lan ondoen egiten duena eta ea nork egiten dituen ariketa gehien. Ondorioz, ikasle baten arrakasta, gainontzeko ikasleekin porrotarekin estu loturik dago, ikaskideak lehiakide bihurtuz. Banan-banako ikaskuntzan, ikasleek ariketak bakarka ebatzen dituzte, bakoitzak bere burua erreferentziatzen hartuz. Hori dela eta, garapen-irizpideak pertsonalak dira eta ikaslearen errendimendu propioan oinarritzen dira, gainontzeko ikasleekin egon arren, ez da beraiekin lan egiten. Ikaskuntza kooperatiboan, aldiz, proposatzen diren jarduerak gainontzeko ikasleekin elkarlanean egitekoak dira, horrela bada, ikasle baten arrakasta eta taldekoarena eskutik doaz.

Horrela bada, ikaskuntza kooperatiboa talde-lan txiki eta hezigarrietan antolatu ohi da, ikasleek batera lan egin eta bai pertsonalki nahiz kolektiboki ikasteko helburuarekin. Xede horiek lortzeko, ordea, talde-laneko dinamikaren efektuei buruzko ezagutza, abilezia eta plangintza beharrezkoak dira. Kasu hauetan, ikaslearen arteko elkarrekintza ikasketa-prozesuko atal bat gehiago da.

Hezkuntza indibidualizatu egin behar da, ikasleari independentzia eta erritmo propioan lan egitea baimenduz. Haatik, ikaslearen arteko elkarrekintzak ideiak alderatzeko, informazioa elkar trukatzeko, pentsamenduak aldatzeko, ikaskuntza-estrategia ezberdinak ezagutu eta partekatzeko eta ikuspuntu ezberdinak alderatzeko balio du. Hau ikusirik, ondoriozta dezakegu ikasketa taldean egitera kondenaturik dagoela, era berean, ikasleei lana erraztuz eta hezkuntzaren kalitatea hobetuz; taldean lan egiteak ikaskidearen erlazioa hobetu, motibazioa handitu, autoestima igo eta gaitasun sozialak hobetzea dakarrelarik. Izan ere, Leonen (2009) arabera "inork ez dio inorri irakasten, eta norberak ez du bakarrik ikasten, baizik eta denok irakasten diogu elkarri" (Serna et.al., 2013, 33.orrian aipatua).

Ikasketetan, bakarka egin ezin diren zereginak taldean kooperatuz egiten dira, aurrez aipatu bezala, ikasle bakoitzak bere helburua beteko du, baldin eta taldeko kide bakoitzak bere helburua lortzen badu. Horretarako:

- Irakaslea, jarduerak planifikatu, behatu ahala esku hartu, esperimendu, zeregin eta jarduerak proposatu eta talde-lan aurretik bakarkako informazio-bilaketa sustatuko duen bitartekari bat izango da.
- Ikaslea protagonista izango da. Bere abiapuntua non dagoen jakingo du, garapen pertsonalaren jakitun izango da eta taldearen laguntza bere garapenerako erabiliko du.
- Klasea, ikaskuntza kooperatiboa aurrera eramango den lekua izango da, elkarlaneko jarduerak proposatu eta horien emaitzak hautemango diren agertokia.
- Elkarlanean jardungo den taldeak, zereginak burutu eta ariketak ebatziko ditu, arrakasta indibiduala taldeko arrakastarekin baldintzatuko da eta taldeko kide bakoitzaren ikasketa-prozesua erraztuko du.

Talde-lan eta ikaskuntza kooperatiboak ezaugarri eta puntu berdintsu asko izan arren, ez dira gauza bera. Talde-lan terminoa irakasleak zereginak burutzeko talde txikiak antolatzen dituen erabili ohi da. Ikaskuntza kooperatiboa talde-lan mota horren barruan sartzen da, baina talde-lan guztiak ez dira zertan ikaskuntza kooperatibo izan behar. Metodo hau, mahai eta aulkiak mugitzea eta galderak taldean eztabaidatzeko formulatzea baino zerbait gehiago da. Batelaan eta Van Hoof-ek (1996) aipatu bezala: "Taldea bati egitura eta rolik gabeko zereginak esleitzeari deritzo talde-lana, hots, ez da ikaskuntza kooperatiboaren kontzeptu bera" (Serna et.al., 2013, 36. orrian aipatua).

Talde-lanak ez du erantzukizun indibiduala kontuan hartzen, hori dela eta, kide bakoitzak egindako lan kopuruaren edo erabilitako denboraren artean ezberdintasunak aurki daitezke, hau da, posible da ikasle batzuk lan guztia edo lanaren zati handiena egitea, beste batzuk zati txiki bat egiten duten bitartean (esfortzu minimoa) edota agian hori ere ez. Kasu horietan, parte-hartzearen berdintasun eza dago. Hori gerta ez dadin, irakasleak taldeei zereginak esleitu baino zertxobait gehiago egin behar du, taldeko kide bakoitzak egindako lana gainbegiratzuz eta bakoitzaren garapen pertsonala ebaluatuz.

Hori horrela, irakaslearen eginkizun neketsuena taldeak elkarlanean jartzean hasten da. Irakaslea taldeetatik igaroko da partaideen arteko elkarrekintza sistematikoki behatuz. Johnson et.al. (1999) arabera, ikaslearen garapen-prozesua eta trebetasun interpersonalak eta taldekoak ebaluatuko ditu. Irakasleak talde bakoitzean hitz egiten dena entzun beharko du, partaideen arteko elkarrekintzari buruzko oharrik hartuz. Hori gutxi balitz, ikasleei ere eskatu diezaieke bere ordeztu begirale lanak egiteko. Behaketa burutu bitartean hartutako oharren arabera, irakasleak esku hartu dezake ikaslearen ikasketa-prozesua hobetzeko asmoz. Ikasleek beraien parte-hartzea ebaluatzea ere gomendatzen da, behaketa propioa sustatzen baitu, irakasleak zer hobetu eta zer egitea utzi dezakeen hausnartzuz (beti ere taldearen onurarako bada).

Talde bakoitzari banatzen zaizkion baliabideak murriztea, interdependentzia positiboa sortzeko eratako bat da, taldekideak elkarrekin lan egitera bultzatzen baititu zeregina burutzeko. Metodo horietako bat **buruhausteena** da, taldekideak interdependente bihurtzeko informazioa zatikatuta ematean datza, puzzle baten piezak balira bezala. Ikasle bakoitzak informazioaren zati bat jasoko du, ondorioz, beraien dagokien informazioa ondo ezagutzeko, gainontzeko kideei helaraztea eta beste kideek azaldutakoa ikastearen ardura dute. Adibide gisa, irakasleak eska diezaieke ikasleei

Abraham Lincolnen biografia bat idazteko. Taldekide bakoitzak, Lincolnen bizitzako periodo bati buruzko informazioa jasoko du, orduan bakoitzak bere zatiari buruz ikertu eta beste ikaskideei azaldu beharko die guztien artean biografia osatzeko. Taldeak zeregina burutzeko, kide bakoitza da garrantzitsua.

Beste metodo bat **talde-joko-torneo**arena da, ikaskuntza kooperatiboko taldeen errendimendua alderatzeko helburuarekin sortua. Irakasleak, ikasleen errendimenduan oinarriturik, talde heterogeneoak osatu beharko ditu, taldearen helburua kide guztiek ikasmateriala ikastea izango delarik. Gerora, txapelketa hasiko da, horretarako irakasleak fitxa batzuetan idatzitako galderak (fitxa bakoitzean galdera bat), erantzun orria eta prozedura-arauak erabiliko dituelarik. Ikasle bakoitzak hirukote bat osatuko du bere antzeko errendimendua (aurrekarien edo notaren arabera) duten gainontzeko taldeetako 2 kideekin. Hirukote hauei galdera sorta ezberdineko fitxak entregatuko zaizkie eta ikasleak txandakatu egingo dira fitxa hartu eta egokitzen zaien galdera erantzuteko. Galdera ondo erantzunez gero, ikasleak fitxa gordeko du, aldiz, gaizki erantzuten badu, fitxa galdera piloaren azpira pasako du. Hirukoteko batek bestearen erantzunari aurka egin eta zuzen badago, fitxa berarentzat izango da. Hirukotean fitxa gehien dituen ikasleak irabaziko du 6 puntu bereganatuz, bigarrenak 4 puntu, eta azkenak 2 puntu. Hirukote horietan, ikasle bakoitzak lortutako puntuak jatorrizko talde kooperatiboko kideek lortutakoei gehituko zaizkie. Puntu gehien dituen taldeak irabaziko du.

Taldeen konposaketari buruz, homogeen nahiz heterogeneoak izan daitezke. Kasu batzuetan talde homogeenak komeni dira, pareko errendimendua, abilezia sozial berdintsuak eta antzeko helburuen lorpena bilatzen duten kideak elkartuz. Orokorrean, ordea, talde heterogeneoak hobesten dira. Errendimendu akademiko eta interes ezberdinak dituzten ikasleak elkartuz, problemak ebazteko metodo eta ikuspuntu desberdinak alderatzen dira, ikasleen ikasteko grina eta garapen kognitiboa estimulatuz. Talde heterogeneoetan, gehiago pentsarazten da, ikasleen artean azalpen gehiago trukutzen dira eta edukiaren analisia egiterakoan perspektiba ugari onartzen dira, arrazoimena, ulermena eta epe luzerako memoria landuz.

Bestalde, klase kooperatiboak abian jartzerako garaian, debate edo eztabaidak erabil genitzake. Debate edo gatazka intelektualak irakaskuntza erremintarik garrantzitsu eta boteretsuenetarikoak dira, ikaskuntza kooperatiboa sustatzeko tresna aparta izateaz gain.

Debate edo roleplay bat antolatzeko pausuak hauexek dira:

1. Ikasleentzat interesgarria izan daitekeen, eta gutxienez, argumentaturiko bi posizio edo jarrera ezberdin (alde eta kontra adibidez) dituen gai bat aukeratzea.
2. Ikasleek egokitu zaien posizio edo jarrera identifikatzeko material didaktikoa prestatzea, behar izanez gero, rol hori defendatzeko argumentuen bilaketan lagunduz.
3. Lau partaideko taldeak osatu, bi kide alde eta beste bi kontra banatuz (beti ere bi rol soilik badaude). Helburu kooperatibo gisa, taldeko partaide guztiak adostasun batera iritsi beharko dira, eta ondoren, denen artean txosten bat idatzi beharko dute, irakasleak horrekiko ebaluatuko dituelarik.
4. Rol bakoitzeko partaide pareari, jarrera horren inguruko argumentuak

elkarlanean ikasteko ardura ezarri.

5. Rol bakoitzeko bikoteak, bere posizioa defendatu beharko du. Ondoren, aurkako rola eztabaidatuko da klasean, rol bakoitzaren indargune eta ahuleziak aztertuz.
6. Bikoteei perspektiba eta rolak alderantzikatzeko eskatuko zaie, aurkako jarrerari buruzko esposizio sinesgarri bat eginez.
7. Azkenik, rolak alde batera utzi, adostasun batera heldu eta txosten bat idatzi beharko dute, zer rokin geratzen diren argumentatuz.

Erantzukizun indibiduala egon dela egiaztatzeko, irakasleak jarrera horiei buruzko azterketa idatzi bat presta dezake, taldeko kide guztiek gaindituz gero, puntu gehigarriak eman ditzakeelarik.

3.5. Diseinu Pentsamendua (Design Thinking)

Diseinu pentsamendua Leinonen eta Durall-en (2014) esanetan, arazo konplexuei (osatugabeak, aldakorak eta atzean hainbat interes dituzten arazoak) aurre egiteko bide edo ikuspuntu gisa definitu izan da. Diseinuaren helburua ez da arazo bati behin betiko soluzio bat bilatzea, egungo egoera hobetzen laguntzea baizik. Diseinatzaileen misioa ez da diseinu perfektu eta gorena aurkitzea, beraien diseinuarekin nola edo ahala laguntzea baizik. Ondorioz, diseinua esplorazio-jarduera bat da, non momentuan egindako akatsak luzaro baino lehen konponduko diren.

Diseinu pentsamenduaren ikuspuntuan jarririk, munduko edozer gauza aldakorra da, guk gizaki bezala, aldagai aldakor horietan eragin dezakegularik; hau da, pertsonen soluzio garrantzitsuak diseina ditzakete munduan talka positiboa izateko. Diseinuak gauza berak egiteko forma desberdinak erakutsi ahal dizkio gizakiari, errealitatea ikuspuntu eta perspektiba ezberdinetatik aztertuz. Horrenbestez, metodo hau zailtasunei aurre egin eta gizadiari mundua aldatzen lagundu diezaiokeen erreminta bat da.

Diseinatzaile batek jarrera zalantzarri eta galdetzaile bat eduki behar du, ikertzerako garaian eguneroko ekintzetan oinarrituz. Normalizat eta aldaezintzat jotzen ditugun ekintza ugari pare bat buelta emanez gero, ohartu gintezke eguneroko ekintza horien atzean problematika bat dagoela. Oro har, jarrera zalantzarriko diseinatzaile batek etengabe hausnartuko du bere ikerketak zer suposatzen duen gizakiaren egunerokotasunean eta bertan ematen diren ekintza errepikakorretan.

Bestalde, diseinu pentsamenduan, honako ezaugarri eta jarrerak gailentzen dira (Brown, 2008):

- **Enpatia.** Eguneroko bizitza perspektiba ezberdinetatik, besteak beste, taldekideen, azken kontsumitzailearen edota egungo bezero edo bezero potentzialen ikuspuntutik, interpretatzeko gaitasuna eduki behar da. Gaitasun honen bitartez, desiratutako konponbideak eraiki eta bezeroen premiak asetzea errazagoa da. Diseinatzaileek xehetasun guztiak behatzen dituzte, gainontzeko pertsonen hautematen ez dituztenetaz ohartuz. Horrez gain, ezagutza pertsonala berrikuntzarako erabiliko da.

- Pentsamendu integratzailea. Analitika prozesuetan oinarritzeaz gain, arazo nahaspilatsu baten alderdi guztiak identifikatu eta jada existitzen direnekiko soluzio alternatiboak sortzea.
- Baikortasuna. Arazo batek izan ditzakeen limitazioak kontuan hartu arren, existitzen diren soluzioez gain, beti egongo da soluzio berritzaileago bat.
- Saiakuntza. Berrikuntza garrantzitsuak ez datoz doikuntza txikietatik. Diseinuari buruzko adituek galderak formulatu eta lan-oztopoak esploratzen dituzte, ideia berrien sorkuntzari bidea irekiz.
- Elkarlana. Produktu, zerbitzu eta esperientzien konplexutasun gorakorra dela eta, gaur egun, jenio sortzaile bakartiaren mitoa alde batera utzi eta diziplinarteko langile gogotsuaren irudia nabarmentzen da. Diseinu adituak, maiz, diziplina ezberdinekin jarduteaz gain, diziplina bat baino gehiagotan dira aditu. Hala ere, profil guztietako adituek jardun behar dute elkarlanean, hala nola, ingeniariak, marketinean espezializatuak, antropologoak, diseinatzaile industrialak, arkitektoak eta psikologoak.

Diseinu pentsamendua ikerketarako metodologia gisa harturik, prozesu jarrai bat bezala definitu dezakegu Leinonen eta Durall-en (2014) ustez, non sormenezko irtenbideak, jolas-esperimentuak eta prototipoen sorkuntza azpimarratzen diren. Bertan, ikertzaileak ideia eta kontzeptu ezberdinak probatzera bultzatzen dira, diseinuaren arazo eta aukerak definitu eta birdefinitu eta prototipoak diseinatu eta birdiseinatu. Prozesua oinarritzko lau fasetan bereiz daiteke, nahiz eta prozesu guztiak momentu berean eta paraleloan gertatu daitezkeen. Ikerketan zehar, fase batzuei besteei baino atentzio gehiago emango zaie.

Lehen fasea, testuinguruaren ikerketa izenez ezagutua, diseinuaren kontestu soziokulturala esploratzean datza, hots, helburua landuko den ingurugiroa, kultura eta egoera ezagutzea da. Testuingurua aztertzean, aukera eta erronka berriak identifikatzea bilatzen da, horretarako behaketa, oharrak, metodo etnografikoak eta elkarrizketa nahiz hizketaldi informalak erabiliz. Era berean, ikertzaileek informazio-iturriak berrikusi, mahai gainean jarritako irtenbideak ebaluatu eta alderatu eta lan-esparruko joerak aztertuko dituzte, diseinu-problemen ikuspuntu argiago bat edukitzeko helburuarekin.

Bigarren fasean, diseinu esku-hartzaile gisa ezaguna, lehen fasean lortutako emaitzen arabera, alde interesatuen artean tailerrak antolatzen dira. 4tik 6ra bitarteko taldeetan antolatuta, testuinguruaren ikerketan lortutako emaitzak eztabaidatu eta garatzen segitzen da. Sarritan, lehen faseko emaitzak desafio eta aukerak dituzten agertoki gisa aurkezten dira. Tailer hauetan, partaideak, aurkeztu diren erronkei konponbideak bilatzera eta ikuspuntu eta soluzio berriak ekartzera gonbidatzen dira.

Bigarren faseko emaitzak aztertu eta prototipo berriak probatu eta baieztatzeko tailer parte-hartzaileak egitean datza hirugarren fasea. Alde interesatuen artean nolabaiteko distantzia mantentzen denez, produktua diseinatzerako garaian, ikertzaileek bigarren faseko emaitzak berriro aztertu eta sailkatu, eta prototipoak diseinatzeko autonomia eta erabakiak hartzeko botere handiagoa izango dute.

Azken fasean, prototipo hauek, pertsona errealek beraien eguneroko bizitzan

probatzeko maila funtzionalerarte garatzen dira. Prototipo hauek oraindik hipotesi hutsak dira, ikerketan zehar definitu eta birdefinitutako arazoan irtenbidea izatea espero delarik. Azken bezeroaren edota alde interesatuaren eskuetan egongo da diseinu-ikertzaileek egindako afirmazioak onartzea.

Shimanok, bizikleten osagarriak fabrikatzen dituen enpresa japoniarrak, 2004ean, Estatu Batuetan saltzen zituen kalitate altuko errepide eta mendiko bizikleten segmentu tradizionalan, hazkundearen geldiera bizi izan zuen Brown-en (2008) hitzetan. Shimanok berrikuntza teknologikoekin sustatzen zuen enpresaren garapena, ondorioz, 40 urtetik gorakoentzat, nohizbehinkako erabilera emango zioten kalitate altuko bizikleta modelo bat sortzea otu zitzaion. Horretarako, IDEO, diseinu eta berrikuntzak aztertzen dituen enpresa, gonbidatu zuten proiektuan elkarlanean aritzera.

Hasiera batean, Shimano eta IDEOko langileekin, diziplinarteko talde bat osatu zuten. Talde honen helburua Estatu Batuetako helduen %90ak bizikleta ea zergatik ez zuten erabiltzen aztertzea izan zen, era guztietako kontsumitzaileei galderak eginez. Hiritar askok oroitzapen ederrak zituztela ohartu ziren haurtzaroan bizikletan ibiltzen zirenean. Bestalde, bizikletentzako diseinatu gabeko bideetatik ibiltzeko beldurra zutela, teknikoki sofistikatu den baina gutxi erabiliko den bizikleta bat erosteko nagikeria eta bizikleta, osagarri eta arropa espezializatuaren prezio altuak zirela bizikleten erabilera gutxitzearen zergatiak ondorioztatu zuten.

Horrela bada, 'Coasting' bizikletak diseinatu zituzten, paseatu eta disfrutatzen zuzenduriko bizikleta batzuk, kirolerakoengandik bereiziz. Modelo berri honek, bizikletaren markoan kontrolerako kable gutxiago eta biradera sinpleagoa izango zuten, balaztak atzeraka pedaleatuz funtzionatzeaz gain. Hori gutxi balitz, bizikletari erantsitako gailu baten ondorioz, martxak automatikoki aldatuko ziren ibilgailuaren abiaduraren arabera. Horrenbestez, bizikleta modelo berriak eserleku bigungarri eta erosoak, maneiatzeko erreza eta mantenimendu gutxi behar izango zuten.

Trek, Raleigh eta Giant fabrikatzaileek, Shimanoren osagarri berritzaileak baneratzeko zituzten bizikletak fabrikatu zituzten. Horrez gain, harreman publikoaren kanpaina bat diseinatu zuten, tokiko gobernuekin eta txirritulak elkarrekin elkarlanean, ziklismo bide seguruak identifikatuz. 2007ko merkaturatze arrakastatsuen ostean, bizikleta modelo berria egiteko 7 fabrikatzaile gehiago bilatu ziren 2008rako.

3.6. Gaitasunetan oinarritutako ikaskuntza

Metodo honek, Villa eta Villa-k (2007) adierazi bezala, gradu edo espezialitatearekin lotura duten ogibideetarako ikaskuntza garatzea du helburu, horretarako izaera profesional bat erabiliz, baina ahanzi gabe ikasleak oraindik formakuntza akademikoan daudela. Hori dela eta, formakuntza honetan ebaluatuko dira ikaslearen gaitasun eta ikaskuntza. Gaitasunetan oinarritutako ikaskuntza, beharrezko gaitasun generiko eta zeharkakoak (instrumentalak, pertsonartekoak eta sistemikoak) eta gaitasun espezifikokoak (lanbideari buruzkoak) garatzean datza. Ikasleak ezagutza tekniko eta zientifikoekin hornitu, horiek testuinguru ezberdin eta konplexuetan aplikatzen erakutsi eta balio eta portaera propioetan eta jarduteko era pertsonal eta

profesionalean integratzen erakusten zaizkie.

Bestalde, gakoa ez da ikasleei etorkizunean jardungo duten lanbiderako prestakuntza profesionala ematea soilik, formakuntza unibertsitario egoki eta sendo bat ere jaso behar da, ikasleei jakiten, egiten jakin, elkarrekin bizi eta izaten erakutsiz. Horrek, jakintzaz gaindiko gaitasunak erdiestea eskatzen du, ikasleak ikasitako edukia bere egitura mentalean ondo barneratu eta epe luzean iraun dakion. Horren haritik, metodo honek bilatzen duena unibertsitarioaren formakuntza integrala da, hasieratik argi utziz eskuratu nahi diren gaitasunak akademiko-profesionalak direla.

Baina zer ulertu dezakegu konpetentzia edo gaitasun gisa? Deustoko Unibertsitatearen (2006) arabera “Egiazko testuinguru ezberdinetara ongi moldatzeko ahalmena da, ezagutzaren, arauen, tekniken, prozeduren, abilezia eta trebetasunen, eta balio eta jarreraren integrazio eta aktibazioaren bitartez” (Villa eta Villa, 2007, 18.orrian aipatua). Konpetentzia definitzeko eta ebaluatzeko zaila den kontzeptu integratzaile bat da, ekintzen eta jarduera profesionalaren zentzu orokor eta ontologikoa bilatzen duelarik. Profesional batek, lana ondo egitean, bere jarrera eta balioak agerian utzi behar ditu modu koherente batean. Horrela bada, pertsona bati bere balioek edozein ekintzen aurrean orientatzen eta nola portatu jakiten lagunduko die.

Laburbilduz, gaitasunetan oinarritutako ikaskuntzan, unibertsitate bakoitzak, karrera edo graduaren arabera, bere ikasleentzat desio duen formakuntzarako ezinbesteko aspektuak aukeratzen ditu, graduari lotutako irtenbide profesionaletan beharrezko diren gaitasunak lortzeko exijentzien analisi bat egiteaz gain. 1998an, Goi Mailako Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzarrean azpimarratu bezala, gizartearen garapen kultural, sozial eta ekonomikoa bultzatzeko, datozen generazioak premiazko gaitasunez hornituko dituen hezkuntza etengabe eta iraunkor baten beharra dago.

V.Irudia: Gaitasun alorrak



Iturria: Lan propioa, Villa eta Villa-ren (2007) artikuluan oinarritua

Unibertsitateak, izatez, ikasleak formatu behar ditu, lehenik, pertsona bezala, bigarren, etorkizunean graduari lotutako lanbide batean jardungo duen profesional gisa, eta hirugarren, hiritar gisa (gaitasun sozial eta zibikoak eskuratuz). V. irudian, konpetentzian oinarritutako ikuspuntuaren hiru alorrak adierazten dira. Bertan, ikaslearen formakuntzaren garapen integrala baieztatzen dela ikus dezakegu, unibertsitateak erabakiko duelarik alor bakoitzari zer garrantzi eta zenbat denbora bideratu. Argi dago beraz, unibertsitateak bere ekintza formal nahiz informaletan hiru elementu horiek barneratzen ez baditu, ez dela ikaslearen garapen integrala lortuko. Ikuspuntu hau, metodo didaktiko-pedagogikoarekin estu loturik dago. Hori dela eta, klase tradizionaletan inongo metodologia aldaketarik eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko pentsaera, planifikazio, garapen eta ebaluaketa pausoetan aldakuntzarik txertatzen ez bada, gaitasunetan oinarritutako ikaskuntza moda iragankor soil bat izango da.

Hori ez gertatzeko, paradigma aldaketa bat eman behar da, non ikasle nahiz irakasleen ohiturak aldatu beharko diren, gizartea kontzientziatzeaz gain unibertsitateek inbertsioak gauzatzeko diru-laguntzak behar izango dituztela. Transformazio honek zera inplikaturiko luke: irakasleen funtzioei garrantzia eman eta begirune handiagoa izan, irakasleen ikerketa eta irakaskuntzaren arteko nolabaiteko oreka eta irakasleen zereginak hobeto antolatzea (izan ere irakasleek formakuntza behar dute eta ikasle kopuru izugarriak kide gehiagoren artean banatzea).

Unibertsitateek abian jarritako programen artean zenbait bereiz ditzakegu:

- **‘Zerbitzatuz ikasi’ programa.** Honen helburua unibertsitateek beraien ikasketak parte-hartze aktiboaren bitartez integratzea da, enpresen benetako premiak asetuko dituzten zerbitzuak eskainiz. Programa hauek curriculum akademikoaren barne daude eta eskaintako denboraren baitan kredituak aitortuko dira. Honen bitartez, ikasleak ikasitako edukia eta praktikaren arteko loturak egin ahalko ditu. Programa hauek epe laburrekoak (egun batekoak edo urtean behin egitekoak) zein intentsiboak (ikaslearen jardunaldi osoko murgiltzea suposatzen du) izan daitezke.
- **Boluntariotza programak.** Gobernu Kanpoko Erakundeekin eta fundazioekin elkarlanean arituz, izaera kultural eta hezigarria duten jarduerak antolatzen dituzte, non ikasleek modu aktiboan parte hartu eta beraien jakintza eskaini dezaketen. Jarduera hauek esparru diziplinario anitzetan eman daitezke, hala nola, medikuntzan, hezkuntzan, arkitekturan, psikologian, erizaintzan eta zuzenbidean. Gehienetan programa hauetan parte hartzearen ez dira kredituak aitortzen, pertsonalki eta sozialki garatzeko aukera gisa hautematen baitira.
- **Lidergo zerbitzua eta erantzukizun soziala.** Ikasleak erantzukizun kolektibo handiko profesionalak bihurtzeko eta ikuspuntu sozial batetik beraien hiritar bizitzari eta ogibideari zentzua bilatzeko, unibertsitateek lidergo formakuntza txertatu beharko lukete beraien curriculumean. Hori bai, helburu zibiko nahiz sozialak lortzeko, ikasleari gizatalde perspektiba ere erakutsi behar zaio, ez gestio eta kudeaketarena soilik. Ekintza hauek askotan, adituek nahiz unibertsitateak berak antolatutako tailer eta mintegiak izaten dira.

Lidergoa, Berrikuntza eta Ekintzaitzako gradua (LEINN), beraien web orrialdean adierazi bezala, Espainiako ekintzaitzako gradu unibertsitario ofizial eta internazional

bakarra da, Finlandian jatorri duen hezkuntzarako metodologia berritzaile bat aplikatu duten bakarrak izateaz gain. Metodo honen euskarriak hauek dira: Jardunez ikasi, ekintzaitza taldean burutu eta nazioarteko ikasketa bidaiak egin.

Karrera unibertsitario honetan, ikasketa bere osotasunean praktketan oinarritua dago. Ikasleak ikasle izan ordez, ekintzaileak dira, lehen kurtsoetik abiatuz enpresa erreal bat sortu behar dutelarik, eskainiko dituzten produktu edo zerbitzu eta guzti. Horretarako, bezeroekin negoziatu beharko dute, eta kurtsoz gaitzitzeko, besteak beste, enpresak irabaziak lortu beharko ditu. Irakasleak irakasle ordez, entrenatzaileak izango dira, eta ikasgelak egungo ingurune laboralengatik ordezkatzen dira. LEINN gradua ia %100ko enplegarritasuna duen Espainiako ikasketa unibertsitario bakarrenetakoa da.

LEINN graduak honetarako prestatzen ditu bere ikasleak:

- Enpresetan lidergo karguak hartzeko, enpresa munduari buruzko ulermena eta ikuspegi estrategikoa garatuz.
- Proiektu ekintzaileak abian jartzeko, proiektuen kudeaketarako gaitasunak eta proiektu berritzaileak landuz.
- Mundua aukeren nitxo gisa ikusteko, ikuspegi global batetik, baina hiritar ikuspegia albo batera utzi gabe.
- Etengabe aldatzen ari den ingurune batean lan egiteko, ikasleak inizatiba, lidergo eta zailtasunei aurre egiteko ausardiaz hornituz.

Ikasketa unibertsitario hauek, goi mailako hezkuntzan nazioarteko erreferentzia bihurtu den metodologia finlandiar bat aplikatzen dute. Bertan, ekinez ikasten dute, proiektu errealak sortu eta bezero errealekin jardunez. Adu eta entrenatzaileen laguntzarekin, ekintzaitzarako beharrezkoak diren gaitasunak lantzen dira praktika jarrai eta talde-lanen bitartez. Hori gutxi balitz, nazioarteko ikasketa bidaiak egiten dira. Lehen kurtsoan, ikasle orok, 6 aste igaroko ditu Berlin edo Finlandian Team Academy (12 eta 20 kide bitarteko gazteek sortutako enpresa erreal bat) ezagutzeko. Bigarren kurtsoan, New Yorkeko edo San Frantziskoko Silicon Valleyen base teknologikoa bisitatu dira bertako ekosistema ekintzailea esploratzeko. Hirugarren kurtsoan, berriz, 4 hilabeteko bidaia egiten da Txina edo Indiara, etorkizunera begira kontaktuak lortu eta negozio-ideiak pentsatzen joateko. Azkenik, ikasle bakoitzak lideratuko du bere heziketa-prozesua, beti ere entrenatzaile baten laguntzarekin. Ikaslea bere pasioak garatzen joango da, helburu neurgarri eta espezifikoekin konprometituz. (<https://www.teamlabs.es/es/grado-universitario-oficial-liderazgo-empresedor-e-innovacion>)

3.7. Esanahien bidezko ikaskuntza

Metodologia hau David P. Ausubelek proposatu zuen 1963an. Ikasketa modu honek, Rodríguez-en (2011) esanetan, ikasleek unibertsitatean maneiatzen den informazio guztia atxikitu eta eskuratzeko (ezagutza sortuz) erabiltzen dituzten mekanismoak erreferentzia gisa hartzen ditu. Metodo hau, ikasleak ikasmaterialaren inguruan eraikitzen dituen esanahien edo loturen prozesuan zentratzen da, ikasketa-prozesuaren funtsezko ardatza dela jotz. Hari beretik, irakasleek klasea ematerako garaian, beraien irakaskuntza metodoak landu beharko dituzte, ikasleak irakasgaiko

edukia ulertu eta epe luzean gogoratzea lortzeko. Irakaslearen helburua, ikasgaiko kontzeptuak eskuratu, asimilatu eta buruan gordetzea bermatzen duten teknikak bilatzea da, ikasleek edukiari esanahi bat esleituz. Gowinen arabera (1981) “Ikasleak hautemandako edukiaren esanahia irakasleak ikasleak hautematea nahi duen esanahia denean burutzen da irakaskuntza” (Rodríguez, 2011, 34.orrian aipatua). Horrela bada, metodo honen oinarrietako bat, irakasle, ikasle eta edukiaren arteko elkarrekintza hirukoitza da.

Informazio kantitate handiak erdietsi eta gogoan izatea fenomeno bitxia da, kontuan hartuz gizakiak, ordenagailuek ez bezala, momentuan erakutsitako informaziotik zenbait kontzeptu soilik antzeman eta gogora ditzakeela epe laburrean. Bestetik, memoriaz ikasitako informazio kopuruak ere bere limitazioa du bai denboran zehar bai kopuruaren baitan, ez badu ikasleak behintzat intentsitate handiko ikasketa burutzen eta informazioa maiz erreproduzitzen. Esanahien bidezko ikasketaren eraginkortasuna honako ezaugarriei dagokie: izaera ez arbitrarioa eta substantzialitatea, ez dela literala edo hitzez-hitzezkoa alegia.


Ikasleek ez dute beraien ikaskuntza zerotik hasten, esanahiak zuzkitzeko prozesuari esperientzia eta ezagutza gehitzen zaizkio. Ikasleak ikasten duena ezagutza eta esperientziak baldintzatuko dute, hau da, jada dakienetik ikasiko du. Prozesu honetan, informazio berria ikaslearen egitura kognitiboarekin erlazionatzen da, logika baten barne eta hitzez hitz ikasi gabe. Ikasleak burmuinean dituen ideia, kontzeptu eta proposamen inklusibo, argi eta erabilgarriek ematen die esanahia eduki berri horiei. Gerora, eduki berri hori egitura kognitibo bihurtuko da, pixkanaka landuz eta egonkortuz.

Esanahien bidezko ikaskuntza burutzeko funtsezko bi baldintza bete behar dira:

- Ikasteko jarrera eta gogoia edukitzea (predisposizioa).
- Lantzen den edukia esanahitsua izatea
 - Materialak logika bat jarraitu behar du, ikaslearen egitura kognitiboarekin era ez arbitrarioan eta modu substantiboan erlazionatzeko modukoa izan behar da.
 - Ikasleak subsumitzaileak edo ideiak atxikitzeko mekanismoak izatea, eduki berriarekin interakzioa existitu dadin.

Metodologia honetan, ikasleak ezin du informazio-hartzaile pasibo bat izan. Aurrez barneratu dituen esanahiak erabili behar ditu, hezkuntza-materialak eskaintzen dizkionak antzeman ditzan. Prozesu horretan, ikaslearen egitura kognitiboa **progresiboki ezberdintzen** ari den heinean (ikasleak barneratuta dituen esanahiak sarritan erabiltzen baditu, ezagutzen dituen kontzeptuak ezberdinduta izango ditu), **adiskidetze-integratzailea** ere egingo du, jada dakien informazioaren eta ideia berrien artean parekotasun eta desberdintasunak bilatuz eta bere ezagutza berrantolatuz.

VI.Irudia: Ausubelen teoria



Iturria: Lan propioa, Moreira-ren (2005) artikuluan oinarritua

Halaber, esanahien bidezko ikaskuntzaren aurkako prozesua ikasketa mekanikoa da. Gizakiak informazio berriari esanahiak esleitu ordez, ikasketa mekanikoaren bitartez, norbanakoaren egitura kognitiboaren eta eduki berriaren artean ez da elkarrekintzarik egoten, egotekotan, arbitrarioa eta literala izango litzatekeelarik. Hau gertatzean, ideiaak atxikitze mekanismo egokirik ez dagoelako edo ikasleak ikasteko gogorik ez duelako, lortuko den azken emaitza esanahirik gabeko ikasketa errepikakor bat da.

Egun, psikologiaren aurrerapenak direla eta, Ausubelen proposatutako teoria osatzen joan da, esanahien bidezko ikaskuntzaren prozesua azaltzeraino helduz. Bada, egoera ezagunetan hautemandako informazio berriaren aurrean, gizakiaren adimenak asimilazio-eskemetara jotzen du. Azken hauek, jokabidearen antolaketa aldagaitza suposatzen dute, memorian epe luzean jardun eta gizakiaren egitura kognitiboari egonkortasuna emateaz gain. Egoera berri baten aurrean, eskema hauek ez dute balio, eta beraz, garunak modelo mental bat eraikitzen du. Modelo hauek pertsonari aurreikusteko eta esplikatze boterea ematen die, egoera berria ulertzea baimenduz. Eskema eta modelo mental hauek elkarrekintza dialektikoan jarduten dute, hots, modelo berri bat sortzean, garunak egitura kognitiboan dituen eskemetara jotzen du. Hauek egonkortzen joan ahala, gizabanakoaren portaeran eragiten dute, asimilazio-eskemak aberastuz.

Gizakia sistema autopoiético bat da, bere antolakuntza propioa mantentzen duen norbanako bat, horretarako barne-aldaketak egiten dituelarik kanpotik datozen perturbazioen inputak orekatzeko. Hezkuntza arloan, ikaslea sistema autopoiéticoa litzateke eta irakasle eta eduki berriak, aldiz, agente aztoratzaileak. Ikaslea izango da kanpotik datozen perturbazioen aurrean, zer jarrera hartu eta zer barne-aldaketa emango dituen erabakiko duena. Ikasleak duen ezagutza, esperientziaren birformulazio eta hausnarketak dira. Horrela bada, esanahien bidezko ikasketa burutzen dela esan dezakegu, baldin eta antolakuntza autopoiéticoa asaldatu gabe (identitatea mantenduz), barne-aldaketak ematen badira kanpotik datozen estimulu

edo perturbazioak direla eta. Ondorioz, norbanakoa da zenbat eta zenbateraino ikasi erabakiko duena, kanpoko perturbazioei zenbatera arte kasu egin erabakiz. Ausubelen teoriaren harira, beraz, ikasketa hau emateko ezinbestekoa da, besteak beste, ikasteko gogoia eta interesa izatea, bestela kanpo-estimuluei kaso egiten ez bazaie, ez da barne-aldaketarik emango eta ez da egitura kognitiboa garatu eta hedatuko.

Erreminta hauek erabil ditzakegu irakasgaiko edukia ikasleei originaltasunez eta sormenez aurkezteko (Reyes et.al., 2014):

- **Analogiak.** Hauen bitartez, aurretiko ezagutza eta ezagutza berria erlazionatzen dira. Ikasleen parte-hartzea sustatzeko eta kontzeptu berriei buruzko ezaugarri eta ondorio nagusiak ateratzeko, irakasleak adibide zein gertakari errealen eta edukiaren arteko berdintasun eta diferentziak aztertzea proposatuko du.
- **Aurretiko antolatzaileak.** Ikasgaiari zehar landuko diren edukiak era antolatuan eta zentzu zabalean aurkezteko balio dute, ikaslearen egitura kognitiboaren eta informazio berriaren arteko zubi gisa funtzionatuz. Ikasleek ikasi beharreko informazio berriak baino inklusio eta orokortasun-maila handiagoa duten proposamen eta kontzeptu multzoa da, gerora eduki berria asimilatzeke ikaslearengan oinarritzeko ezagutza bat sortzea helburu duelarik.
- **Sare semantikoak.** Landuko diren kontzeptuen erlazio semantikoak bisualki aurkezteko eta esanahien bidezko ikaskuntza errazteko tresna indartsu bat da. Mapa kontzeptualen antzekoak dira, baina sare semantikoak kontzeptuen arteko erlazioak adierazterakoan malguagoak dira eta ez dute inongo hierarkiarik jarraitzen.

4. METODOLOGIEN APLIKAZIOA

Batetik, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako graduan kontabilitateko espezialitatearen aipamena lortzeko nahitaez gainditu behar diren irakasgaietan lantzen diren materia eta horien metodologia eta ebaluazioak aztertu ondoren; eta bestetik, gaur egun modan jartzen ari diren metodologia aktibo berritzaileen nondik norakoak eta horien adibide eta erabilerak aipatu ostean, atal honetan, metodologia horiek kontabilitateko minorreko irakasgaietan izan ditzaketen aplikazioak aztertuko dira.

Kontabilitateko espezialitateko irakasgaiak bost dira, aipamena lortzeko matrikulatu eta gainditu behar den hizkuntza alde batera utziz. Bada, horietako bakoitzean, irakasgaietan lantzen diren edukiak beste modu batera nola landu edota irakasgaietan zehar aipatzen diren kontzeptuei buruzko jarduera berriak proposatzen dira. Irakasgai bakoitzeko, bi proposamen gauzatzen dira, Kudeaketa Kontabilitatea eta Barne Kontrola eta Kontu Auditoria irakasgaietan izan ezik, non horietan bi proposamen egin ordez, bat iradokitu eta bestean, jada existitzen den edo diren metodologiak identifikatu eta aztertzen diren. Horrez gain, ikerketa-lanaren sarreran aipatzen den minorreko ikasgaien lotura landuko duen lan edo ekintza bateratuaren omenez, 4.6. puntuan, espezialitateko irakasgaien edukiaren loturak eta hortik atera daitezkeen proiektuen ideiak abian jartzen dira.

Bestetik, atal honetako proposamenen informazio gehigarria eranskinean gaineratu da.

4.1. Kontabilitate Aurreratua eta Zerga Sistema

4.1.1. Ariketa Excelen

Proposamen honetan, gaitasunetan oinarritutako ikaskuntza metodologia erabiliko da. Unibertsitateak, izatez, ikasleak formatu behar ditu, lehenik, pertsona bezala, bigarren, etorkizunean graduari lotutako lanbide batean jardungo duen profesional gisa, eta hirugarren, hiritar gisa (gaitasun sozial eta zibikoak eskuratuz). Metodo honek, beraz, gradu edo espezialitatearekin lotura duten ogibideetarako ikaskuntza garatzea du helburu, horretarako izaera profesional bat erabiliz, baina ahanzi gabe ikasleak oraindik formakuntza akademikoan daudela.

Proposamenaren helburua, lan-munduan ugari erabiltzen den Excel erreminta, klasean normalizatzen eta protagonismo handiagoa hartzen joatea da. Komeni litzateke ikasleak etorkizunean kontabilitateari buruzko lanbide bat lortzen badu, Exceli buruzko nozio edo formula batzuk jakitea, klaseetan horri buruzko gaitasunak eskuratuz. Horregatik, egokia litzateke ariketak irakasleak, zuzenean, helbide elektronikoz ikasleei bidaltzea edota eGelan eskegi, hauek ariketa deskargatu eta bertan ebazteko. Hori dela eta, ondoren, Kontabilitate Aurreratua eta Zerga Sistemako 2.gaiako, 'Finantza-inbertsioak', ariketa bat Excelera pasatu da (ikus 8.1.atala).

Ariketa, lokal bat salgai duen enpresa bati buruzkoa da, non ibilgetuaren salmenta prezioa, eskurapen kostua eta amortizazio metatuaren datuak ematen diren. Enpresa erosleak, ordainketa zatikatua izatea eskatzen dio saltzaileari eta beronek onartzen du, trukean %5,28ko interes-tasa efektiboa aplikatuz.

Finantzaketa-taulari dagokionez, 01/01/X1 datan, amortizatzeko kapitalaren saldoa 19.450.000€ izango da. 31/12/X1 datan, berriz, aurreko datuari dagozkion interesak aplikatuz, enpresa saltzailearen finantza-sarrerak 1.026.960€ dira, baina erosleak 600.000€ besterik ez ditu ordaintzen. Ondorioz, ordaintzen ez diren interesak amortizatzeko kapital gisa metatzen dira. 31/12/X2 ekitaldian ere erosleak ez ditu dagozkion interes guztiak ordaintzen. 31/12/X3 datan berriz, amortizatzeko kapital guztia eta dagozkion interesak osorik ordaintzen ditu, enpresa saltzaileak guztira 22.600.000€ kobratuz.

Idazpenei dagokionez, enpresak ibilgetu salmentarengatiko irabaziak izango ditu, eskuratze kostua baino garestiago saldu baitu. 31/12/X1 eta 31/12/X2 datan ordainduko ez dituen interesak epe luzeko krediten kontura joango dira. 31/12/X2 datan berriz, epe luzeko kredituak epe laburrekora birsailkatu beharko dira.

VII.Irudia: 2.gaiko ariketaren idazpenak

	A	B	C	D	E	F	G
1	IDAZPENAK						
2							
3	Idazp. zkia.	Data	Kontu kod.	Kontua	ZOR aldea	HARTZEKO aldea	Kontrola
4	1	01/01/X1	21.	Lokala		15.000.000 €	
5	1		28.	I.M. am. met	2.500.000 €		
6	1		2.	E/luz. kreditua	19.450.000 €		
7	1		77.	Ibil. salm. irab.		6.950.000 €	OK
8	2	31/12/X1	57.	Banku k/k	600.000 €		
9	2		2.	E/luz. kreditua	427.053 €		
10	2		76.	Sarrera finan.		1.027.053 €	OK
11	3	31/12/X2	57.	Banku k/k	600.000 €		
12	3		2.	E/luz. kreditua	449.603 €		
13	3		76.	Sarrera finan.		1.049.603 €	OK
14	4	31/12/X2	2.	E/luz. kreditua		20.326.656 €	
15	4		5.	E/lab. kreditua	20.326.656 €		OK
16	5	31/12/X3	57.	Banku k/k	21.400.000 €		
17	5		5.	E/lab. kreditua		21.400.000 €	OK

Iturria: Lan propioa, Zubiaurre eta Aldazabal-en (2019/2020) oharretan oinarritua

XIV.irudian ikus daitekeen bezala, 'Kontrola' zutabean, idazpen kontable bakoitzaren amaieran OK jartzen du. Horretarako, 'SI' eta 'SUMAR.SI' funtzioak erabili dira, ekuazio hau sortuz:

=SI(A7=A8;"",SI(SUMAR.SI(A:A;A7;E:E)-SUMAR.SI(A:A;A7;F:F)=0;"OK";"Berrikusi idazpena"))

Ekuazio hau, G7 laukian klikatuz agertzen dena da. Honekin, Exceli honakoa eskatzen zaio: A7 eta A8 laukien balioak berdinak baldin badira ez du ezer jarriko, aldiz ezberdinak baldin badira, beste baldintza bat ezarriko zaio; A zutabe osoa behatu eta A7ren balio bera duten laukiak identifikatu eta E zutabearen aurkitzen diren errenkada bereko balioen baturari, F zutabearen errenkada berean dauden balioen batura kenduko zaio. Emaitza 0 bada, zor eta hartzeko aldeko balioak berdinak izango dira (idazpen kontablea koadraturik dagoen seinale) Excelelek 'OK' jarriko du, aldiz, emaitza 0 ez bada, 'Berrikusi idazpena' agertuko da.

4.1.2. Ezberdintasunak bilatu

Atal honetan, esanahien bidezko ikaskuntza erabiliko da. Metodo honetan, aurretiko antolatzaileak erabiltzen dira. Ikasgaiaren zehar landuko diren edukiak era antolatuan eta zentzu zabalean aurkezteko balio dute, ikaslearen egitura kognitiboaren eta informazio berriaren arteko zubi gisa funtzionatuz. Ikasleek ikasi beharreko informazio berriak baino inklusio eta orokortasun-maila handiagoa duten proposamen eta kontzeptu multzoa da, gerora eduki berria asimilatzeke ikaslearengan oinarritzko ezagutza bat sortzea helburu duen delarik.

Kudeaketa Kontabilitatea eta Zerga Sistema irakasgaiko 5.3.atala, 'Kontabilitatea Kooperatibatan' landu baino lehen, Forum Sport S.A.-ren 2017 eta 2018 ekitaldietako urtarrilaren 31ko balantzeak eta Eroski, S.Coop.-ren 2016 eta 2017 ekitaldietako urtarrilaren 31ko balantzeen alderatuko dira (ikus 8.2.atala). Betidanik sozietate kapitalisten balantzeekin gelan lan egitera ohituta daude ikasleak, ondorioz, ideia ona izan daiteke, kooperatiben kontabilitatea lantzen hasi baino lehen, sozietate kapitalisten eta kooperatiboen balantzeen dauden diferentziak identifikatzea (ezberdintasunak bilatu ahala, irakasleak azalpenak ematen dituen elean). Helburua, 5.gaiako 3.atala lantzerantz helduz, jada oinarritzko ezagutza batekin helduz da, proposamen honek atariko jarduerak gisa balio duen delarik. Ondoren, beraz, enpresa-talde bereko, baina sozietate izaera ezberdineko bi enpresen balantzeen arteko ezberdintasunak azalduko dira.

Aktibo ez korrontean, Forum-en (2018) urteko kontuetan oinarrituz, ibilgetu ukiezinen artean, Eroskirekin alderatuz, traspasatze-eskubide batzuk ditu, lokalen alokairu eskubideetatik eratorriak. Bestetik, Eroski-ren (2017) urteko kontuen arabera, ibilgetu ukiezinetan, administrazio-emakidak, garapena eta bestelako ibilgetu ukiezinen eskubideak ditu. Ibilgetu materialean, aldiz, Eroskik egite-bideko ibilgetuak eta horien aurrerakinak ditu, 2017ko urtarrilaren 31n 2,22 milioi euroko balioarekin, 2016ko 1,6 milioi-en aldean. Horrez gain, Eroskik, besteak beste, 2016an Central de Serveis Ciencias, S.L.; Cecosa Diversificación, S.L.U; Inmobiliaria Armuco, S.L. eta Cecosa Supermercados, S.L. taldeko-enpresetan epe luzerako partaidetzak zituen, lehenengo biek irabaziak eta azken biek galerak suposatuz 2017an (memoriako 9.puntuaren arabera). Azkenik, Eroskik, hirugarrenei emandako kredituengatik, epe luzeko hartzekoak ere baditu balantzean.

Aktibo korrontean, zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuetan, Eroskik, lansarien aurrerakinak eta bazkideek oraindik despoltsatu gabeko kapital soziala ageri dira, Forumen ez bezala. Bestetik, taldeko enpresetan egindako epe laburreko inbertsioen barnean, kredituak ageri dira. Eroskiren memoriako 29. puntuaren arabera, 2016an, Inmobiliaria Gonuri Harizartean, S.L. eta Supermercados

Picabo, S.L. sozietateek zor zuten gehien epe laburrera emandako kredituetan, 2017an, ostera, Inmobiliaria Armuco, S.L. eta Central de Serveis Ciencies, S.L. taldeko enpresek. Epe laburreko inbertsio finantzarioetan, hirugarrenei emandako kredituak, epe laburreko zorra adierazten duten baloreak eta bestelako aktibo finantzarioak gailentzen dira, Forumen balantzean ez agertzearren.

Ondare Garbian, Fondo Propioetan, Forum-en kasuan, kapital soziala ageri da, Eroskiren balantzean, berriz, harpidetutako kapital kooperatiboa. Kontabilitate Aurreratua eta Zerga Sistema irakasgaiko apunteetan oinarrituz, CINIIF2 Kooperatiben Bazkideen ekarpenei buruzko nazioarteko araua dela eta, kooperatibako bazkideen ekarpenak ondare garbian kokatzeko bi arazo daude: Kapitalaren itzulketa eskatzeko bazkideen eskubidea eta interesak jasotzeko Kapitalak duen eskubidea (interesak eta derrigorrezko itzulkia Galdu-Irabazi kontura doaz, aldiz, kooperatiba itzulkia eta hautazko ordainsaria balantzera, pasibo gisa). Euskadiko Kooperatiben Lege aldaketaren ildotik ordea, kooperatibako Batzar Orokorrak, bazkideek eskatutako kapital itzulketa baldintzarik gabe ukatzeko aukera izango du. Kapital sozial kooperatiboa, bazkideek egindako derrigorrezko eta borondatezko ekarpenez osatua dago. Bada, Eroskiren memoriako 15.puntuaren arabera, 2016an, derrigorrezko ekarpenetatik 409,438 milioi euro bazkide laguntzaileenak dira, aldiz, 1,085 milioi euro kontsumo bazkideenak. 2017an, berriz, bazkide laguntzaileen derrigorrezko ekarpenak 399,649 milioi eurotara jaitsi ziren, kontsumo bazkideena, 1,212 milioi eurotara igoz.

Horrez gain, Forumen balantzean, Fondo Propioetan, Erreserba Legala agertzen den bezala, Eroskirenean Derrigorrezko Erreserba Fondoa deritzo (Eroskiren Fondo Propioetan, Estatu Erreserba ere ageri da). Kooperatibatan, pasibo finantzario gisa sailkatutako ekarpenek itzulkia kobra dezakete, eta hau emaitzen banaketa gisa kontabilizatzen da Batzar Orokorrak erabakia hartzen duen datan. Hori dela eta, Eroskiren Fondo Propioetan itzulki kooperatiboa eta hautazko ordainsaria ordaintzeko partida bat ageri da Fondo Propioetan parentesi artean. Hori gutxi balitz, Eroskik balantzean, bestelako ondare-tresnak eta negoziatzeko finantza aktiboak ditu (memoriako 11.puntua aintzakotzat hartuz, nagusiki Caja Laboral Popular Coop. de Crédito eta Mondragón Inversiones, S.P.E., S.Coop.-eko inbertsioetan oinarritzen dira), Forumez ez bezala.

Pasibo ez korrontean, Eroskik Forumen balantzean ageri ez diren beste hainbat partida ditu, hala nola, Hezkuntza, Formazioa eta Sustapenerako Fondoa epe luzera (Pasibo Korrontean epe laburrekoa ere ageri da). Fondo honetan, bazkideei, langileei eta, dagokionean, orokorrean gizarteari ongizatea ekarriko dien jardueratan (bazkideen eta langileen formazioa, kooperatiben arteko erlazioen sustapena edota sustapen kulturala, profesionala eta laguntzailea) aplikatuko diren zenbatekoak jaso behar dira derrigorrez. Hala ere, 2015 eta 2016ko ekitaldietan ez da saldirik bideratu fondo horretara, besteak beste, 2016an ekitaldiko emaitza negatiboa izan zelako (fondoazuzkitzeko beharra ekidinez).

Horrez gain, Eroskik, epe luzeko bestelako hornidurak (nagusiki Cecosa Hipermercados, S.L. taldeko-enpresan mantendutako inbertsioaren balio-narriaduratik eratorria, memoriako 17. puntuaren esanetan), obligazioak eta bestelako balore negoziagarrietan adierazitako epe luzeko zorrak (2002 eta 2004. urteen bitartean sozietateak Eroskiren Ekarpin Finantzario Subordinatuak, AFSE, hiru emisio burutu zituen, guztirako balio nominala 360 milioi euro izanik, 14,4 milioi baloreetan zatituz eta horietako bakoitza 25 euroko balio nominalarekin, memoriako 18.puntuari kasu

eginez), kreditu-erakundeekin epe luzeko zorrak eta finantza-errentamenduengatiko epe luzeko hartzekodunak (kooperatibak 2015etik 2021rako periodoan makineria kontrataturik du finantza-errentamendu erregimenean, Eroskiren memoriako 7.puntuari jaramon eginez) ditu balantzean.

Pasibo korrontean, aldiz, Eroskik, epe laburreko hornidurak eta epe laburreko obligazioak eta bestelako balore negoziagarrietan adierazitako zorrak ditu. Horrez gain, sozietateak bazkideekin epe laburreko zorrak ditu, memoriako 29.puntuan azaldu bezala, kooperatiban baja emandako bazkide laguntzaileen ekarpenen itzulketekin lotua. Bestetik, hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak atalean, Forumeak, enpresa-taldeko zenbait hartzekodun ditu, memoriako 14.puntuan adierazi bezala, bai 2017 eta 2018 ekitaldietako hartzekodun nagusiak Eroski, S.Coop. eta Cecosa Institucional, S.L. direlarik. Eroskiren aldetik, berriz, bere enpresa-taldeko hornitzaile nagusiak Grupo Distribución Eroski, S.A. eta Cecosa Institucional, S.L dira, memoriako 29.puntuaren baitan. Azkenik, Eroskik, 2016ko ekitaldian, zerga korronteagatiko pasiboak ditu, oinarrian saldoa 1,493 milioi eurokoa da baina atxikipenak, 221 mila euro, kenduz, balantzeko saldoa 1,272 milioi eurokoa da, desglosea memoriako 20.puntuan erakusten da.

Jarduera hau, bi sozietateen ezberdintasun guztiak bilatzean datza. Bestalde, ekintza, klasean burutzeko luzeegia izan daiteke, saldo bakoitza nondik datorren memorian begiratzen hasiz gero. Batetik, taldeetan antolatuz, ikasle bakoitzak ondare-masa bat aztertu dezake jarduera arintzeko. Bestetik, ezberdintasunak altuan aipatu eta irakasleak horietatik garrantzitsuenak gailendu eta horiei denbora gehiago eskaini diezaioke, ikasgai teorikoan murgildu aurretik. Horrela bada, sozietate kooperatiboak kapitalistengandik ezberdintzen dituzten epigrafe nagusiak honakoak dira: Kapital sozial kooperatiboa, Derrigorrezko Erreserba Fondoa, itzulki kooperatiboa eta hautazko ordainsaria (ondare garbian negatibo), Hezkuntza, Formazioa eta Sustapenerako Fondoa (gizarte erantzukizunagatik) eta bazkideekin zorrak (kasu honetan kooperatiban baja emandako bazkide laguntzaileen ekarpenen itzulketekin lotua).

Bestalde, nahiz eta proposamen hau esanahien bidezko ikaskuntzarekin erlazionatu, gamifikazioaren kutsuak ere baditu. Batez ere, '7 ezberdintasunak bilatu' joko klasikoaren mekanika barneratzen duelako.


4.2. Kontabilitate Publikoa

4.2.1. Kahoot

Kontabilitate Publikoan, lantzen diren gai teorikoak ebaluatzeko bi galdetegi egiten dira, lehenak 1.gaitik 6.ra bitarteko edukia barne hartzen du, bigarrenak, aldiz, teoria guztia. Teoria saio presentzialetan lantzen da, eta irakasleak adierazitako data posibleen artean burutzen dira galdetegiak. Irakasgai honetan, irakasleak Egelan prestatutako galdetegi batzuen bitartez burutzen da ebaluazio aurreko errepasoa, ikasleak kontzeptuekin adiskidetzen joan daitezten eta dena azken egunerako utzi ez dezaten. Bestalde, era horretan, ikasleek galdetegian egindako akatsak ikus ditzakete eta erantzun zuzena zein den identifikatu, baina ez dute azalpenik jasotzen irakasleari galdetzen ez baitie. Alde hortatik beraz, errazagoa litzateke Kahoot erreminta

erabiltzea, izan ere galdera bat pasa ostean, erantzun oker asko egon badira, irakasleak ikasle guztientzako azalpen orokorrak eman ditzake, ikasleei banan-banan akatsak azaltzen joan ordez.

VIII.Irudia: Kahoot adibidea



Iturria: INTEF, 'Kahoot. ¿Evaluamos o jugamos?', Martín (2019)

Kahoot bat sortzeko, lehenik eta behin, web orrialde bertan izena eman eta kontu bat sortu behar da. Honen ostean, irakasle profilari klik egin eta goi-mailako ikasketak esparrua hautatuko da. Ondoren, galderak sortu beharko dira dagozkien erantzun posibleekin (nahiz eta 4 espazio huts izan, 2 dira derrigorrez bete beharrekoak). Horrez gain, galdera erantzuteko izango den denbora aukeratu, nahi izanez gero galderarekin zerikusia duen irudi edo bideoen bat txertatu, galderak balioko duen puntu kopurua erabaki eta erantzun zuzen kopurua aukeratu beharko da besteak beste. Galdetegia bukatu ostean, ikasleek jokora sarbidea izan dezaten, irakasleak aplikazioak ematen dion pasahitza partekatuko du klasearekin. Joko honetan parte hartzeko, ikasle guztiek smartphone bat eta Internetera sarbidea izan beharko dute (bestela binakako taldeetan ere egokitu daiteke jarduera).

Horrela bada, Kahoot hau proposatu genezake galdetegietako eduki teorikoak errepasatzeko (ikus 8.3.atala).

Gamifikazio estrategia hauek hezkuntzari aplikatzeak, ikaslea irakasgai edo ikasketa-plan bateko jardueretan gehiago inplikatzeko du helburu. Ikaslearen profilaren arabera, motibazio intrintseko ezberdinak aurki ditzakegu, hala nola, ezagutza handitzeko xedea, ikaskideen artean arrakasta lortzea edota perfekzioa bilatzea. Aurrez esan bezala, beraz, Kahoot erreminta honekin, erreparasoko galdetegiak bakarka egin eta zalantzak irakasleari banan-banan galdetzen ibili ordez, ikasketa-prozesua bateratu eta horrela irakasleak azalpen orokorrak eman ditzake, ikasleek atentzio gehiago jartzeaz gain.

Nahiz eta jada ikasle gehienak saiatuko diren jokoan lehenengo postuan amaitzen eta gelakideen aurrean gaiarekiko duten jakintza zabala erakusten, Kahoot-ari lehiakortasuna emateko, garailea saritu daiteke. Irabazlea saritzeko modu ohikoena

irakasgaiko nota finalean positibo bat lortzea litzateke, edo zehazki, nota finalean 0,2ko igoera izatea. Beste alternatiba batzuk ordea, honakoak izan daitezke: Ikasleak autoa unibertsitatearen parking pribatuan uztea astebetetz esaterako, EHU dendako produkturen bat oparitzea (besteak beste, Koronabirusaren pandemian ezin hobeto datorren maskaratako bat EHU-ko logoarekin, edota unibertsitatearen markako katilu, boligrafo, pin edo oharrentzako bloka) edo EHUKo unibertsitateak dituen padel, tenis edo gainontzeko kirol instalazioen doako erabilera bi orduz.

4.2.2. Talde-lanetako zereginen aktak

Kontabilitate Publikoan, beste 3 puntu taldeka egindako ikerketa-lan batek izango ditu, non taldekideek aukeratutako udalerrri baten finantza eta egoera ekonomikoaren analisia egin beharko den 11.gaiko adierazleen bitartez. Ikerketa-lan hau, talde-lan gisa garatzen da, irakasleak lanaren oinarriak eta ikasleengandik espero duena azalduz. Bertan, udalerrri bat aukeratu eta Gipuzkoako Ogasunaren Udalgida erabiliz, lana burutzeko beharrezko diren urteetako hasierako aurrekontuak eta aurrekontu likidatuak datuak bilduko dira. Horrez gain, aukeratutako herriko udalaren finantza- eta egoera ekonomikoaren analisia egiteaz gain, Gipuzkoako udalerrri guztien batezbestekoarekin ere alderatuko da. Horrela bada, Udalgidatik ateratako datuekin zenbait aldagai kalkulatu dira Excel bitartez, hortik ateratako analisia Word edo PDF formatuan idatziko delarik. Ikerketa hau egiteko erabilitako aldagaiak 11.gaian aurki daitezke, hala nola, zorpetze-maila, aurrezki arrunta, inbertsio prozesuaren finantzaketa edota kreditu eta diruzaintza gerakinarekin lotutako beste zenbait aldagai.

Talde-lanak ez du erantzukizun indibiduala kontuan hartzen ordea, hots, kide bakoitzak egindako lan kopuruaren edo erabilitako denboraren artean ezberdintasunak aurki daitezke, hau da, **posible da ikasle batzuk lan guztia edo lanaren zati handiena egitea, beste batzuk zati txiki bat egiten duten bitartean** (esfortzu minimoa) edota agian hori ere ez. Kasu horietan, parte-hartzearen berdintasun eza dago. **Hori gerta ez dadin**, atal honetan, **ikerketa-lana kooperazio bidezko lan bat bihurtu nahi da** non irakasleak taldeei zereginak esleitu baino zertxobait gehiago egin behar duen, taldeko kide bakoitzak egindako lana gainbegiratu eta bakoitzaren garapen pertsonala ebaluatu beharko du. Irakaslea taldeetatik igaroko da partaideen arteko elkarrekintza sistematikoki behatuz, eta horien arteko elkarrekintzari buruzko oharrik hartuz.

II.Taula: Ikerketa laneko akta posibleak

<p><u>Saioa</u>: Ikerketa-laneko 3.saioa</p>	<p><u>Data</u>: 2019-05-08 <u>Lekua</u>: 2.8. ordenagailu gela</p>
<p><u>Egindako lana</u>:</p> <p>Iker → Zorpetze-mailaren aldaketa garbia aldagaiaren datuak kalkulatu eta antolatu Excel bitartez.</p> <p>Jon → Excelean aurrekontu likidatuko kapituluaren garrantzi erlatiboa ataleko datuak hartu eta ondorioztatutakoa Word formatuan azaltzea amaitu.</p>	<p><u>Parte-hartzaileak</u>:</p> <p>Iker Aitor Jon</p>

Aitor → Finantza kargaren bilakaerako datuak bildu eta Excelen kalkulatu.	
<u>Konpromisoak:</u> Iker → Zorpetze-mailaren aldaketa garbiko kalkuluak amaitu eta Word formatura igarotzen hasi. Jon → Zorpetze-mailaren aldaketa garbia atala Word formatura igarotzea amaitu. Aitor → Finantza kargaren bilakaeraren kalkuluak amaitu Excelen.	<u>Arduraduna:</u> Aitor

Iturria: Lan propioa

Aurreko taulako akta, ikerketa-lana lan kooperatibo bihurtzeko pauso posible bat da, izan ere, aurrez esan bezala, irakasleak taldeko kide bakoitzak egindako lana gainbegiratu eta bakoitzaren garapen pertsonala ebaluatu beharko du. Horretarako, klasean egindako saio bakoitzaren bukaeran, taldeko arduradun batek (klasero aldatzen joan daiteke) akta bete eta irakasleari entregatu beharko dio, edo bestela aktak Googlen Driven pilatzen joan eta kurtso amaieran lanarekin batera eman beharko dira. Akta horietan, bakoitzak eginiko lana eta etxerako hartu dituen konpromisoak adierazten dira, beraz horrek irakasleari gainbegiraketa lanak erraztuko dizkio. Hala ere, klase presentzialetan, irakaslea taldeetatik igaroko da partaideen arteko elkarrekintza behatuz, eta horien arteko elkarrekintzari buruzko oharra hartuz. Ikaskide bakoitzak etxean egiten duen lana ebaluatzeko berriz, talde bakoitzak lanaren dokumentua (sortu bezain laster) Drive bitartez partekatu beharko du irakaslearekin. Bestetik, gomendagarria litzateke ikasle bakoitzak bere autoebaluazioa ere egitea, horretarako aurreko taulako akta eredutzat hartuz (parte-hartzaileak eta arduraduna atalak kenduz noski).

Hori gutxi balitz, Ikaskuntza Kooperatiboaren teorian aipatu bezala, talde-lan eta lan kooperatibo baten arteko ezberdintasun nabariak egitura eta rolak dira. Izan ere, ikasle baten arrakasta eta taldekoarena eskutik doaz, hau da, ikasle bakoitzak bere helburua beteko du, baldin eta taldeko kide bakoitzak bere helburua lortzen badu.

Ikerketa-lan honetan, rolak taldekideak elkarren artean adostasun batera iritsiz banatu daitezke. Klasero, pertsona bat Excelean arituko da, aztertu beharreko aldagaien datuak bildu eta kalkuluak egiten, beste kide bat, Excelean egindako kalkuluak ondorioztatu eta Word formatuan idazten ibiliko da. Azkenik, hirugarren kidea taldearen eginbeharren arabera arituko da, hots, Word dokumentuan ezer gehiago idatzi ezin den kasuan, landu beharreko hurrengo aldagaia hartu eta Excelean kalkuluak burutzen hasiko da, eta alderantziz, Excel formatuan aldagai baten kalkuluak bukatu badira, informazioa Word-era pasatzen hasiko da. Taldean 4 kide izatekotan, saio bakoitzero bik Excelean eta beste bik Word dokumentuan lan egingo lukete. Rol hauek saio bakoitzero txandakatzen ibiltzea komeni da, horrela taldekide guztiek eduki osoa denen artean landuko dute. Ondorioz, teorian aipatutako buruhausteen metodoan bezala, taldekideak interdependente bihurtzen dira, kide bakoitzak informazioaren zati bat landuko baitu, eta beraz, garrantzitsua izango da bakoitzak dagokion informazioa ondo ezagutu eta gainontzeko kideei ongi helaraztea (kideek galderak egiten dituzten

kasuetan batez ere), azken hauen ardura izango delarik gainontzeko kideek egindako zatia irakurri eta ulertzen dutela ziurtatzea.

4.3. Kudeaketa Kontabilitatea eta Barne Kontrola

4.3.1. IKD Gazte

IKD Gaztek bere blogean azaldu bezala “Unibertsitatea mundu errealarekin harremanetan jartzeko ikasleek ikasleentzat sortutako proiektua da. Erakunde ezberdinek proposatutako erronken bitartez, talde-lana, kolaborazioa eta kooperazioa lantzen dira; sormena, ekimena eta hobekuntza pertsonala sustatzeko. Bestela esanda, ikaslea ikaskuntza prozesuaren protagonista izanik, gaitasun ezberdinak eskuratzen dira, ikaskuntza praktikoaren bidez” (<https://ikdgazte.wordpress.com/>).

IKD Gaztek lan desberdinak gauzatzen ditu, horietako bat Modulua da, urtero antolatzen duen ekintza garrantzitsuenetariko bat. Bertan, eragile sozial eta enpresek erronka sozialak aurkezten dituzte beraien arazo edo behar bati erantzuna emateko, erakundeetan jorrotzen diren kasu konkritu eta errealak aztertuz. Klaseetan ez bezala, IKD Gazten, benetako proiektuak gauzatzeko aukera ematen da, konpetentzia malguak garatuz eta norberak dituenak aberastuz. Horrela bada, IKD Gazteko partaideak talde interdisziplinarretan (hainbat gradu ezberdinetako ikaslez osatua) antolatu eta talde bakoitzari arazo edo erronka bat esleitzen zaio, kurtsu amaieran enpresari edo arazo nahiz erronka aurkezten duen eragile sozialari irtenbide edo prototipo bat aurkeztu beharko zaiolarik. Horretarako, talde motorreko kide bat (moduluaren gidaritzaz arduratzen diren kideetako bat) ezartzen da taldearen laguntzaile gisa.

Kudeaketa Kontabilitatea eta Barne Kontrola irakasgaiko ebaluazio jarraian, proiektu edo programa honetan parte hartzeko aukera ematen da, nota finaletik 7 puntu bertan ebaluatuz (beste aukera, irakasgaiko notaren %70a bakarkako eta taldekako proiektuak landuz ebaluatzea da). Horrela bada, IKD Gazten erabiltzen den metodologia Diseinu Pentsamenduaren islada garbia da ondorengo kasu errealetan erreparatuko dugun bezala, horretarako informazioa IKD Gazteren blogetik ateraz.

UPV-EHU Mugikortasuna-Musikene

Kasu honetan, erronka proposatu zuen enpresa (2017/2018 ikasturtean) UPV-EHU da, bertako Mugikortasun Arloak honako programa hauek kudeatzen dituelarik: Sicue/Seneca (Espainiako unibertsitateak), ERASMUS (Europako unibertsitateak), EHU-Latinoamerika (Latinoamerikako unibertsitateak) eta Beste Norako Batzuk (AEB, Errusia, Kanada, Korea, Filipinak, Puerto Rico, Zelanda Berria eta Asiako unibertsitateak).

ERRONKA: Orain dela 2 urteko diagnostikoari jarraiki eta ekintza bat planteatuz, mugikortasun ohiturak eraldatzeko pausoak ematea. Ohiturak ezagutu eta gero, Campusean bai bizikleta bai garraio publikoaren erabilpena bultzatzea izango zen helburua. Ikasleek Gipuzkoako Campusera zein modutan hurbiltzen den jendea

aztertuko dute. Eraldaketa bat bultzatzeko dinamika bat egiten ikasiko dute, horrek berarekin dakarren guztia ikasiz.

Bigarren saioa (lehen saio formal a edo gelategiko aurrena, izan ere lehenengo saioan taldeak osatu eta erronkak aurkeztu eta esleitzen dira), dinamika eta jolas batzuekin hasi zuten IKD Gazteko partaideek, kideen izenak eta bakoitzaren interes, bitxikeria eta etorkizuneko ametsak ezagutzeko asmoz. Kideen arteko lehen hurbilpen honek rola eta arauak ezartzeko balioko zuelarik. Eginkizun horien artean nahiz eta batzuk rol finkoak izan (ordezkaria eta testuen gramatika zuzentzailea), gehienak aldakorak zirenez (argazkilaria, aktak eta lana banatzeko ardura, bloga betetzeko eta binaka askaria ekartzeko), astero kide bakoitzak eginkizun desberdinak zituen. Sormena lantzeko dinamikak alde batera utzita (esaterako 3 hitz emanda, istorio bat asmatu eta gainontzeko partaideei kontatzea), saioko bigarren zatian brainstorming-aren bitartez proiektua abian jartzeko ideia ezberdinak bota zituzten, ideia horiek nola gauzatu eztabaidatuz, bi gailendu zirelarik. Lehen prototipoa hasieratik argi egituratu zuten eta bigarrenari ere zertxobait kosta arren, itxura ematea lortu zuten.

Laburbilduz, bigarren saioan elkar ezagutu, rola zehaztu eta lanaren nondik norakoak ezarri ziren. Saio hau, Diseinu Pentsamenduaren teoriako lehen fasearekin alderatu dezakegu. Kasu honetan, lehen fasea etxean hasten da, testuinguruaren ikerketa eta landuko den ingurugiroari buruzko informazioa bilatuz, gerora ordea, ikasgelan jarraitzen du mahai gainean jarritako irtenbideak ebaluatu eta alderatuz, erronkaren soluzioen gaineko ikuspuntu argiago bat edukitzeko helburuarekin. Ez dugu ahortzi behar partaideen misioa ez dela diseinu perfektu eta gorena aurkitzea, beraien prototipoarekin nola edo ahala laguntzea baizik.

Hirugarren bileran, binakako dinamika bat antolatu zuten, erronkaren eskema bat sortu ahal izateko. Bikoteak ausaz suertatu ostean, bakoitzak eskema bat sortu behar zuten erronkaren atal eta eredu desberdinen inguruan. Ondoren, eskema horiek besteen aurrean aurkeztu eta gainontzeko bikoteek ideiak gehitu eta kendu zituzketen. Dinamika hau eskema handi eta bakar bat sortzean zatan, talde guztiaren ideiak partekatuz. Atsedena eta gero, binaka berriz elkartu eta IKD Gazteko gainontzeko erronka edo arazoetako partaideei prototipoaren eskema aurkeztu zitzaizen. Azken horiek emandako ideia, aholku eta ekarpenak kontuan hartuz, prototipoaren azken eskema osatu zen.

Saio hau, Diseinu Pentsamenduko bigarren fasearekin lotu dezakegu. Partaideak 4tik 6ra bitarteko taldeetan antolatuta, lehen fasean (kasu honetan bigarren saioan) lortutako emaitzak eztabaidatu eta garatzen segitzen da (ideia posible horien inguruan oinarri bat ezartzen). Horrela bada, tailer hauetan, aurkeztu den erronkari konponbideak bilatu eta ikuspuntu eta soluzio berriak ekartzera gonbidatzen da, horregatik hartzen dira kontuan Moduluko gainontzeko partaideen ideia, aholku eta ekarpenak.

Laugarren sesioan, ikaskideak Musikenen elkartu ziren eragileen etxea ezagutu eta prototipoa aurkezteko. EHUko mugikortasun eta Musikeneko arduradunekin bilera bateratua izan zuten, aurrez esan bezala prototipoa aurkeztu eta feedbacka jasotzeko. Bilera ostean, Musikeneko zuzendariak eraikinaren nondik norakoak azaldu zizkien IKD Gazteko partaideei bisita gidatu bat egin bitartean, auditorioa, gelak, liburutegia, etab. ezagutuz. Bisita ondoren, Musikeneko zenbait ikaslerekin elkartu eta beraien

idea eta iritziak kontuan hartu ziren prototipoari itxura berria emateko asmotan. Azkenik, taldean txostenaren marko teorikoari errepasso bat eman eta hurrengo saiorako rola banatu ziren.

Laugarren astean, hirugarren faseari hasiera ematen zaio, Musikeneko zuzendariak eraikinaren nondik norakoak azaldu eta bertatik zehar bisita gidatua eskaintzen baitie. Hirugarren faseari hasiera ematen zaio, izan ere erronkari aurre egiteko ideiarekin oinarriak eztabaidatu ordez, prototipoa abian jartzeko ezaugarrietan zentratzen dira partaideak, sentsibilizazio-kanpainaren egun, leku eta ordu egokiak aztertuz. Nahiz eta bezeroarekin harremanetan jarri ordea, diseinu definitiboa lortu ez denez, IKD Gazteko partaideek prototipoa diseinatzeko autonomia eta erabakiak hartzeko botere handia dute oraindik.

Bestetik, bigarren fasea ere hauteman dezakegu, bisita ondoren Musikeneko ikasleekin elkartu eta beraien ideiak eta iritziak kontuan hartzen baitira prototipoa beste ikuspuntu batzuetatik landu eta garatzen segitzeko, hots, prototipoaren euskarria sendotzeko (oraindik prototipoa bukatu aurreko ezaugarrietan erreparatu gabe, hirugarren fasean ez bezala). Kasu honetan, Diseinu Pentsamenduaren teorian azaldu bezala, posible da prozesu bat baino gehiago momentu berean eta paraleloan gertatzea.

IX.Irudia: IKD Gazteko talde motorra



Iturria: IKD Gazte bloga

Bosgarren astean, saioa bibliografiaren zitaketa eta marko teorikoa modu egokian burutu ahal izateko saio txiki batekin hasi zen, talde motorreko kideak edo dinamizatzaileak prestatutako apunte batzuen eta APAren laguntzaz. Azalpen horiek jaso ondoren, erronkaren prototipo zehatza amaitzeari ekin zitzaion, bakoitzak etxetik ekarritako ideia eta asmoak erabiliz, baina aurreko saioan eragile sozialak esandakoa ahaztu gabe. Horrela bada, prototipo ideala sortu nahi zen, bakoitzak bere ekarpenak eginik. Jarraian, Moduluko gainontzeko taldeekin elkartu eta proiektuaren inguruko feedbacka jaso zen. Amaitzeko, taldekideak berriro elkartu eta beste taldeko kide batekin planteatu duen ideiarekin buelta batzuk eman zitzaizkion, feedback positiboa izanik. Aste Santua bistan, ohi baino zeregin gehiago esleitu zitzaizkion partaide bakoitzari.

Aste honetan ere bigarren fasea identifikatu dezakegu, prototipoari itxura ematen segitzen baitute partaideek. Horren erakusgarri, Moduluko partaide batek proposatutako ideia kontuan hartu eta prototipoan barneratzen saiatzea, hots, bigarren fase honetan prototipoaren oinarriak finkatzea bilatzen da; horretarako ikertzaileek ideia eta kontzeptu ezberdinak probatzen dituzte, diseinuaren arazo eta aukerak definitu eta birdefinitu eta prototipoak diseinatu eta birdiseinatuz.

Seigarren saioan, partaideak EHUko errektoretzan elkartu ziren Musikene eta EHUkoekin zerbitzu egunari buruzko xehetasunak erabakitzeko. Eragile sozialaz gain, EHUko zenbait ikasle ere bertaratu ziren, zenbait ideia interesgarri proposatuz. Zerbitzu egunaren antolamendua, egitaraua, dinamika edo jolasak eta horretarako finantziarioari buruz hitz egin zen. Eztabaidatu ondoren, adostasun batzuetara iritsi ziren, esaterako jaialdian zehar musika egongo zela eta dinamika eta tailerrak etengabe izango zirela. Karaokeari dagokionez, ikasleei aurretiaz galdetuko zitzaien parte hartuko zuten ala ez; bestetik, publizitatea kartelen, sare sozialen eta pankarten bitartez burutuko zen. Hori finantziatzeko IKD Gazteko partaideek aurrekontua gauzatu eta EHU eta Musikenekoek esango zuten bideragarria litzatekeen ala ez.

Saio honetan, bigarren fasearen bukaera antzeman dezakegu, izan ere nahiz eta IKD Gazteko partaideak bilerara gerturatzen diren EHUko ikasleen proposamenak aditzeko prest egon, jada hirugarren faseari atentzio gehiago ematen die, kontzientziazio-kanpainaren antolamendu, egitarau, dinamika eta finantziarioan zentratuz (prototipoa amaitzeko xehetasunetan gehiago zentratzen dira prototipoaren oinarri eta argumentuan baino), azken finean nahiz eta prozesu jarraia izan, fase batzuei besteei baino atentzio gehiago ematen baitaie.

Zazpigarren astea ere zerbitzu eguna antolatzea eskaini zen, horretarako hiru talde txikitan bereiziz. Lehen taldea publizitateaz arduratuko zen, kartel eta flyer-etaz alegia, bigarrenak aurrekontua berdindu beharko zuen, partida bakoitzeko saldoak justifikatuz; eta azkenik, hirugarrena, eszenatokia, txosnak eta photocall-a non jarri eta dinamika antolatzeaz arduratu behar zen. Ondoren, talde motorreko kideekin hitz egin eta adostasun batzuetara heldu ziren: Egingo ziren flyer eta kartel kopurua eta hauen diseinua, enpresak eszenatokia ekarri beharreko egun eta ordua erabaki, nola egin zozketa eta zer zozketatu, arratsaldeko 6tan karaokea zumbagatik ordezkatu, jaialdiko leloa erabaki <Ingurua zaindu musikarekin alaituz>, kontzertuak amaitu eta hurrengo hasi bitartean jarriko den musika USB batera pasa, musika taldeei edari eta pintxoak doan eman eta aurrekontuaren zenbatekoa hitzartu.

Entsegu hau, bere osotasunean, Diseinu Pentsamenduko hirugarren faseari eskaintzen zaio, oraingo honetan saioa zerbitzu eguna antolatzeari bideratzen baitaie espresuki, aurrez aipatu bezala, prototipo idealaren xehetasunak (kartel eta flyer kopurua, eszenatokia, txosnak, photocall-a,...)osatzeaz alegia.

Zortzigarren sesioa zerbitzu eguna (erronkaren eguna) zen. Lehenik eta behin, Musikene eta EHUko zenbait ikasle elkartu ziren egun hartako jaialdia antolatzeko. Musikenekoek entsegu egin bitartean, IKD Gazteko partaideek amaitzeke zeuden gauzei ekin zien, hala nola, photocall kartela margotu, Kalapie (irabazi asmorik gabeko txirrindularien elkarte) kartela egin eta toloa prestatu (eguraldiak ez baitzuen lagundu). Hori dena buruturik, jaialdiari hasiera eman zitzaion. Azken orduko arazoan ondorioz, zumbako emanaldia bertan behera utzi zen, Moduluko partaideek dinamika

batzuk antolatu zituztelarik hura ordezkatzeko. Horren ondoren, Musikeneko ikasleek musika zuzenean jo zuten. IKD Gazteko partaideen esanetan, erronkaren helburua soberan bete zen.

Jaialdi aurretik, amaitu gabeko lanei ekin zitzaizenez, hirugarren fasearen amaieran aurkitzen gara, prototipo definitiboa prest uzteko azken ezaugarriak lotuz. Gerora, jaialdian zehar, laugarren fasera igarotzen gara, jada prototipoa (EHU eta Musikeneko ikasleen artean bai bizikleta bai garraio publikoan unibertsitateko joatea bultzatzeko kanpaina) hirugarrenei aurkezteko eta bere efizientzia probatzeko mailara arte iritsiz. Hori gutxi balitz, partaideen misioa ez da diseinu perfektu eta gorena aurkitzea, beraien prototipoarekin nola edo ahala gizartearen egunerokotasunean laguntzea baizik. Ondorioz, kontzientziazio-kanpaina honek izandako talka erreala neurtzeko eta ea IKD Gazteko ikasleek garatutako prototipoa baliagarri izan den jakiteko, Musikene eta EHUk bere ikasleei inkesta bat egin beharko lieke unibertsitateko joateko bide eta garraioari buruz.

Bederatzigarren eta hamargarren bileretan, itxiera eta agurra hurrenez hurren, talde bakoitzetik bat hartu eta mahai ezberdinetan elkartu ziren. Mahai bakoitzean talde motorreko bat, eragile sozial bat edo bi, irakasle bat eta IKD Gazte talde ezberdinetako partaide bana elkartuz, erronken nondik norakoak (nola eraman diren aurrera, zer oztopo aurkitu zituzten,...) azaldu ziren, guztiek ezagutu zituzten erronka guztien progresuak eta amaiera. Gerora, Moduluko antolatzaileek jinkana eta dinamika batzuk antolatu zituzten, partaideei diploma bat emateaz gain. Azken saioan, IKD Gazteko bulego teknikariak Curriculum Vitae eta Europass-ari buruzko hainbat azalpen eman zizkien partaideei. Amaitzeko, taldekideek Moduluaren inguruan hausnartu zuten, indargune eta ahuleziak azpimarratuz, hurrengo urteetan hobetzeko asmoz.

Bi saio hauek IKD Gazte feedback-a jasotzeko antolatzen dira, hurrengo urteetako edizioetan zer hobetu daitekeen ikusi eta ikasle bakoitzak egin duen lanaren inguruko hausnarketa eta autoebaluazioa burutzeko ere balio du.

IKD Gazte programa Diseinu Pentsamenduarekin zuzenean lotu da ikerketa-lan honetan, baina aipatu beharra dago Ikaskuntza Kooperatiboaren eta Gaitasunetan Oinarritutako Ikaskuntzaren kutsuak ere badituela.

Batetik, IKDn ez dio inork inori irakasten, baizik eta denek irakasten die denei, taldekideek elkarri laguntze die. Horrela bada, arrakasta indibiduala izateko, aurretik arrakasta kolektiboa existitu behar da, bakoitzak bere zatia bete beharko duelarik. Aurrez azaldutako bi kasuetan ikusi bezala, IKD Gazteko taldeetan rol eta egitura batzuk jarraitzen dituzte, taldekide bakoitzak bere erantzukizun propioak bete beharko dituelarik taldeak ondo funtzionatu dezan.

Bestetik, Gaitasunetan Oinarritutako Ikaskuntzaren helburua ikasleen formakuntza integrala da, lehenik, pertsona bezala, bigarren, etorkizunean graduari lotutako lanbide batean jardungo duen profesional gisa, eta hirugarren, hiritar gisa. Unibertsitatean, ikasleak akademikoki, klaseen bitartez, eta profesionalki, praktiken bidez, garapena antzeman dezake. Azkenaldian ordea, unibertsitateek ikasleak hiritar gisa formatzea oharkabetu dute. Bada, hori da IKD Gazteren misioa, ikasleek gaitasun sozial eta zibikoak eskuratzea, horretarako eragile sozial eta enpresek erronka sozialak

aurkezten dituztelarik, erakundeetan jorratzen diren kasu konkretu eta errealak aztertuz.

4.3.2. Roleplay

Jarduera hau, ikasleentzat interesgarria izan daitekeen, eta gutxienez, argumentaturiko bi posizio edo jarrera ezberdin (alde eta kontra adibidez) dituen gai bat aukeratzean datza. Ikasleek egokitu zaien posizio edo jarrera identifikatzeko material didaktikoa prestatu behar izango dute, rol hori defendatzeko argumentuak bilatuz. Gerora, lau partaideko taldeak osatuko dira, bi kide alde eta beste bi kontra banatuz (beti ere bi rol soilik badaude). Horren ostean, rol bakoitzeko bikoteak, bere posizioa defendatu beharko du. Ondoren, aurkako rola eztabaidatuko da klasean, rol bakoitzaren indargune eta ahuleziak aztertuz. Nahi izanez gero, saio amaieran, talde txikitan eztabaidatutakoa amankomunean jarri daiteke klasean komentatuz. Azkenik, rolak alde batera utzi, adostasun batera heldu eta txosten bat idatzi beharko dute taldeek, zer rolek geratzen diren argumentatuz. Erantzukizun indibiduala egon dela egiaztatzeko, irakasleak jarrera horiei buruzko azterketa idatzi bat presta dezake.

Proposamen hau, ikaskuntza kooperatiboaren aplikazioetako bat da, jarduera aurrera eramateko, taldekide bakoitzak hartutako rola betetzea ezinbestekoa delarik, hau da, ikasle bakoitzak bere helburua beteko du, baldin eta taldeko kide bakoitzak bere helburua lortzen badu. Ondorioz, esan dezakegu ikasle baten arrakasta eta taldekoarena eskutik emanda doazela.

Protektionismoa eta merkataritza askea

Kudeaketa Kontabilitatea eta Barne Kontrola irakasgaiko 4.gaian, besteak beste, munduko ekonomien integrazio, nazioarteko merkataritza eta globalizazio prozesuari buruz hitz egiten da. Bada, hori baliatuz, protektionismoa eta merkataritza askea bezalako bi merkataritza estrategiari buruzko roleplay bat egin daiteke.

Antzinate herrialde baten kanpo-merkataritza estrategiak zer esan asko eman izan ohi du Gómez-en arabera (2003). Adam Smith-en ustetan, nazio baten aberastasuna, ondasun eta zerbitzuak sortzeko duen gaitasunean oinarritzen da, eta ez herrialdeak pilatu ditzakeen metal preziatuen kantitatean. Bere aburuz, gobernuak ez du herrialdeko ekonomian esku askotan hartu behar, egokiena *laissez faire* politika litzatekeelarik, nazioaren aberastasuna maximizatzea bermatzen baitu. Politika hori aplikatzeko, gobernuak edozein oztopo baztertu behar du, merkaturako esku ikustezinak eraginkortasunez eta bere kabuz jardun dezan.

Smith-en iritziz, herrialdeek jarduera ekonomiko batean espezializatu eta abantaila absolutua duten produktuak esportatu behar dituzte, nazioaren bazkide komertzialek abantaila absolutua duten produktuak inportatuz. Horrela bada, trukean jardungo duten bi herrialdeak baliatuko dira **merkataritza askearen** onurataz, 'suma zero' (nazio baten irabazia bestearen galera izango da eta alderantziz, hots, azken finean bi herrialdeek ez dute ez superabit ez defizitik pairatuko) ordez, 'suma positiba' (bi herrialdeek irabazten dute, elkarri irabaziak ekarriz) dinamikaz baliatuz. Egia da nazio aberatsek bere inguruko nazioekin alderatuz, manufaktura eta laborantzan esaterako, abantaila

konparatiboa izan dezaketela, baina jarduera batean bestean baino abantaila handiagoa izango du gainontzekoekiko.

Hori gutxi balitz, nazioarteko merkataritzak edo merkataritza askeak, tokiko merkatuaren hedapenean laguntzen du, lanaren banaketaren (produkzio faktore gisa, ondasun eta zerbitzuak sortzeko baliabide gisa) limitazioak apurtuz. Merkatuaren zabalkuntzak, herrialdearen baliabideen produktibitatea hobetzen du eta hazkunde ekonomikorako faktoreak agertzen dira:

- Eskala-ekonomiak.
- Erabili gabeko baliabideen aktibazioa.
- Lanaren banakuntzaren ondorioz, langileen abileziaren hobekuntza.
- Makineria espezializatua eskuratzea.

Horiexek dira beraz, Adam Smith-ek babesten duen nazioarteko merkataritza estrategiaren onurak. Haren ustetan, nazio baten aberastasuna areagotzeko politika hoberena merkataritza askea edo librekanbismoa da, hots, estatuen arteko merkataritza truke libreak eta tarifarik gabeko aduanak dituen sistema ekonomiko bat.

Friedrich List-ek, bestalde, uste du Smith-ek ekonomia nazionalari buruzko teoria garatzen saiatu eta huts egin zuela, nazio ikuspegia galdu baitzuen. Horrez gain, jarduera ekonomikoa, nazioarteko merkataritza barne, merkatuaren jarrera lehiakor eta berekoiaren eskuetan utzi zuen. Ildo beretik, List-en arabera, mundua estatu burujabeetan banatzen da. Herritarrak ere ongizatea maximizatzea bilatzen duten eragileak dira, baina gizabanakoaren interes partikularrek ez dute zertan estatuaren interes orokorrekin bat etorri.

Horrela bada, nazio guztiek ez dute garapen-maila bera eta batzuk ezin dute garapenaren fase gorenera heldu, baina giza-baliabide eta baliabide natural egokiak dituztenek saiatu beharko lukete horra iristen. Produkzio-faktoreak suspertzeko era egokiena muga-zergazko babesaren bidez da, era berean, industriaren ezarpenerako **protektionismoa** erabili beharko litzatekeelarik. List-en ustetan, muga-zergazko babesa, herrialdeak industriaren zimendu naturalak dituenean, baina lehiakide atzerritarren ondorioz nazioaren garapen ekonomikoak atzerapenak jasaten dituen kasuan erabili beharko liriateke. Tokiko industriak atzerritarrenarekin lehiatu ahal duen momentura arte justifikatu ahal izango da muga-zergen erabilera, hots, industria nazionalak izango duen babesa tenporala izango da.

List-en baitan, historian oinarriturik, arrazoi ugari daude pentsatzeko merkataritza askea ez litzatekeela errepublika unibertsal bihurtuko, baizik eta manufaktura-potentzien nagusitasunak ekonomikoki gutxien garatu diren herrialdeen esklabotza bermatuko luke. Ondorioz, manufakturatutako ondasunen merkataritza askea epe luzerako helburu gisa ezarri behar da, garapen ekonomikorako potentziala duten herrialdeek maila industrial bera lortzean soilik izango baitute nazioarteko norgehiagoka batean lehiatzeko aukera. Bitartean, herrialdearen garapen ekonomikoa protektionismoaren bitartez eman behar da, hori bai muga-zergak ez dira oso altuak izango eta inportazioak ez dira inolaz ere debekatuko (autarkia bezalako bat-bateko isolamendua kaltegarri eta gaitzesgarria litzateke nazioarentzat, besteak beste,

kanpotik ekarri daitezkeen produktu merkeak herrialde bertan ekoitziz kostu altuagoa izango baitute). Esportazioei ostera, ez zaizkie diru-laguntzak emango ezta debeku edo muga-zergak ezarriko (neurri hau inportazioei soilik aplikatuko zaie).

Haatik, List, ez dator bat bihurteta neurriekin. Neurri horiek, herrialde batek, bere merkatura sartzeko, atzerriko produktuei oztupoak jartzean dizkienean aplikatzen dira. Neurri horiek ez dira jomuga izaten, atzerriko herrialdeak tokiko produktuei ezarritako muga-zergak ezabatze bidea baizik, hau da, norberak atzerriko produktuei muga-zergak ezartzean datza, atzerriko herrialdeak tokiko produktuei egin dien bezala. List-en arabera, ordea, bihurteta neurri horiek kalteak besterik ez dituzte sortzen, izan ere norberak neurri protekzionista horiek ezabatu arren, atzerriko herrialdeak antzeko neurriak aplikatzen segi dezake. Ondorioz, bihurteta neurriak arrazional eta erabilgarriak izango dira, herrialdeak bere industriaren garapena, beti ere potentziala baldin badu, babestu nahi duen kasuan soilik. Hori dela eta, List-ek herrialdeen arteko hitzarmen komertzialak eta aduana-batasunak babesten ditu, bere ustez, nazio ezberdinen arteko merkataritza-tratuak erraztu eta eraginkor bihurtzeko bidea baita. Hitzarmen horiek baliagarri izan daitezzen, herrialdeek abantailak eman beharko dizkie elkarri, eta neurri berean.

III.Taula: Politika bakoitzaren abantaila eta desabantailak

Protektionismoa		Merkataritza askea	
<u>Abantailak</u>	<u>Desabantailak</u>	<u>Abantailak</u>	<u>Desabantailak</u>
- Barne kontsumoarentzako barne-produkzioa handitzen du	- Erlazio ekonomikoak indargabetzen dira beste herrialdeekin	- Atzerritar inbertsioa erakartzen du	- Burujabetasun nazionalaren galerara darama
- Enpresa nazionalen garapena bilatzen du, atzerriko konkurrentziatik babestuz	- Kontsumitzaileek prezio altuagoak ordaindu behar dituzte kalitate berdin edo okerragoko produktuengatik	- Eskaintza handitu, lehiakortasuna areagotu eta produktibitatea hobetzen ditu	- Langileen desplazamendua dakar atzerrira (lana produkzio-faktorearen banakuntza)
- Nazioak espezializatu nahi duen industria estrategikoa babesten du	- Esportatzea zailago denez, produkzioari limiteak ezartzen zaizkio	- Kostuak eta erabilitako denbora gutxitu eta ongizatea handitzen du	- Beste herrialdeen irabazienganako menpekotasuna
- Ekonomia eta produkzio nazionala babestu eta sendotzen ditu	- Globalizazio prozesua atzeratzen du, merkatu berriei atea itxiz	- Merkatuan produktuen aniztasun handiagoa dakar	- Baliabide urriak dituzten sektoreentzako galerak dakartza
- Dumping estrategiak baztertzen dira	- Produktuen inportazioa murrizten du	- Hobekuntza eta gaikuntza teknologikoa dakar	- Kapital nazionalaren galera suposatzen dezake

Iturria: Lan propioa, Gómez-en (2003) artikuluan oinarritua

Estrategia ekonomiko bakoitzaren nondik norakoak azaldu, eta politika bakoitzaren abantaila eta desabantailak bisualki adierazi ostean, taldekideen artean adostasun batera iritsi eta orain arte egindako guztia txosten batean plasmatu behar da. Horrela bada, ondorio edo adostasun posibleetako bat merkataritza askea ibiltzea hobesten dela da, kasu konkrituak salbuetsiz. Esaterako, protekzionismoa herrialdeak industriaren funts naturalak (potentziala) dituenean, baina lehiakide atzerritarren ondorioz nazioaren garapen ekonomikoak atzerapenak jasaten dituenean soilik erabili ahalko da, tokiko industriak atzerritarrenarekin lehiatu ahal duen momentura arte justifikatu ahal izango delarik. Osterantzean, muga-zergen bidezko babesarekin jarraituz gero epe luzean, enpresa nazionalak ekonomiko garatzen segi ezin duten puntura helduko dira, merkatu berrietan ezin izango dutelarik sartu (izan ere gainontzeko herrialdeek muga-zergak ezarriko dizkie, eta ez zaie errentagarria egingo kostuen igoeraren ondorioz, era berean prezioak igo beharko dituzte irabazi-marjina mantentzeko, salmenten beherakada jasatea).

Roleplay hau ebaluatu eta irakasgaiko notarako baliatu daiteke. Irakasgai honetan, 10etik 6 puntu bakarkako eta taldekako lanen bitartez ebaluatzen dira. Bada, horietatik 2 puntu bakarkako lan pare batek balio dituzte. Kasu honetan, protekzionismo eta merkataritza askeari buruzko debate eta horrekin loturiko txostenak bakarkako lan bat ordezkatu dezake, roleplay honi nota finaletik puntu 1 esleituz.

4.4. Kontabilitatearen eta Kontu Auditoriaren Lege Markoa

4.4.1. Socrative

Proposamen hau, gela iraulia eta gamifikazioaren arteko nahasketa bat da, non gela irauliaren kontzeptua probatzeko, irakasleak, etxeko lan gisa, irakasgai honetako 4.gai: 'Kontuen auditoriaren kontzeptua eta oinarriak' irakurtzeko eskatuko dien ikasleei. Horrela, hurrengo klase presentzialean, Socrative aplikazioaren bitartez, (test moduko galdetegi baten bitartez) ikasleek ulertu dituzten eta ez dituzten kontzeptuak antzemango dira. Horrela, gai teorikoa klase presentzialetan landu ordez, izan ere askotan kontzeptu ugari irakaslearen azalpenik gabe ulertu daitezke, etxean landuko dute ikasleek. Gainera, era honetan, gela irauliaren helburua betetzen da, ikaskuntza tradizionalerako rol eta momentuak iraultzea, hots, klaseko ikasmateriala irakasleak eman beharrean, ikasleek lantzea gelaz kanpoko orduetan.

Galdetegia erantzun ahala, irakasleak akats gehien dituzten galderak zein diren behatu eta gehiago sakondu ditzake, ikasleekin mintzatuz ikusiko duen galderaren atzean dagoen kontzeptua. Proposamen honen helburua, beraz, jokoan mekanika eta diseinuetan propio diren elementu eta kontzeptuak hezkuntzari aplikatzeaz gain, **gai teoriko guztiak klasean altuan irakurtzea saihestu eta irakasleak kontzeptu guztiak azaltzea ekiditea da.**

Socrative erremintak, Kahoot-en antzeko erabilera eta aplikazioa du. Lehenik eta behin, web orrialde bertan izena eman eta kontu bat sortu behar da. Honen ostean, irakasle profilarik klik egin eta Quiz esparrua hautatuko da, non aukera anitzeko galderak, egia/gezurra erakoak edota ikasleak erantzun laburrak idaztekoak jaulki daitezkeen. Horrela bada, galderak sortu beharko dira dagozkien erantzun posibleekin

(nahi adina erantzun posible erantsi daitezke), eta baita erantzun zuzenak aukeratu ere.

Bestetik, erabiltzaileek izena jarri behar duten edo ez, edota galdera eta erantzunak aplikazioak ausaz ordenatu edo sortzaileak jarritako segidan utzi erabaki beharko du irakasleak. Horrez gain, ikasle bakoitzaren bukaerako puntuazioa, hala hautatuz gero, 'Emaitzak' atalean klik egin eta taulan bertan adieraziko da. Oraingo honetan, Kahoot-en ez bezala, ezin da galderak erantzuteko ikasleek izango duten denbora hautatu eta galdera bakoitza erantzun ostean, ikasleak galderari loturiko azalpena ikusi ahalko du (irakasleak jartzen badu behintzat). Aplikazioak galdetegia aurrera eramateko hiru metodo eskaintzen ditu:

- Berehalako berrelikadura. Ikasleek galderak ordenean erantzungo dituzte eta ezingo dute atzera egin eta erantzuna aldatu. Galdera bakoitza erantzun ostean, berehalako feedback-a jasotzen da. Ikasleek erantzuten dutena taula batean adierazten da momentuan bertan.
- Nabigazio irekia. Ikasleek edozein ordenatan erantzun ahal dituzte galderak, eta beraz, erantzunak ere aldatu ditzakete, galdetegia amaitu aurretik noski. Kasu honetan ere, ikasleek erantzuten dutena taula batean adierazten da denbora errealean.
- Irakasleak moderatutako erritmoa. Ikasleek lehen galdera erantzun ostean, hurrengo galderara igarotzeko, irakasleak baimendu beharko die, izenak dioen bezala irakasleak maneiaturiko du jardueraren erritmoa. Ondorioz, behin galdera pasa ostean, ezin izango da atzera egin eta erantzuna aldatu. Ikasleek emaitzak momentu errealean ikusteko, 'Emaitzak' atalean klik egin eta bertan egongo dira ikusgarri (aurreko bi metodoetan bezalaxe).

Galdetegia bukatu ostean, ikasleek jokora sarbidea izan dezaten, irakasleak aplikazioak ematen dion pasahitza partekatuko du klasearekin. Joko honetan parte hartzeko, ikasle guztiek smartphone bat eta Internetera sarbidea izan beharko dute (bestela binakako taldeetan ere egokitu daiteke jarduera). Hori gutxi balitz, galdetegi bakoitza bukatu ostean, Socrative bertan, galdetegiko emaitzei buruzko informeak sortu eta gordetzen dira. Txosten horiek, Excel artxiboan deskargatu eta helbide elektronikora edo Google Drivera pasa daitezke.

Horrela bada, Socrative eredu hau proposatu genezake ikasleek irakasgai honetako 4.gaiari buruzko zer eduki ulertu duten eta ez duten hautemateko (ikus 8.4.atala).

X.Irudia: Socrative, emaitzen taula

Show Names Show Answers

Name ↑	Score (%)	1	2	3	4	5	6	7	8	9
*****	32%	D	C	A	A	B	C	D	C	A
*****	76%	A	C	D	E	D	B	D	C	A
*****	49%	C	B	C	C	A	B	C	E	B
*****	46%	E	B	C	E	B	D	B	E	A
*****	68%	A	B	C	B	D	B	D	E	A
*****	49%	C	B	C	B	B	B	D	E	A
*****	56%	A	C	C	E	D	B	D	C	A
*****	59%	B	C	B	A	D	B	A	E	D
*****	76%	A	C	A	B	D	B	D	C	D
*****	78%	B	C	C	A	D	B	D	C	A
*****	63%	C	C	C	B	A	B	A	E	C
*****	95%	A	C	A	B	D	B	D	C	A
*****	59%	A	C	B	B	D	D	D	C	A
*****	56%	A	C	D	E	A	C	D	C	D

Iturria: Educación Innovadora (2020), 'tabla-resultados-socrative'

Socrative eta Kahoot-en artean zenbait ezberdintasun daude. Lehenik eta behin, Socrative-n ez dago galderak erantzuteko denbora kopuru finkorik (irakasleak erabakitzen du klase guztia erritmo berean joan edo ikasleei bakoitza bere erritmoan joaten utzi). Eta bestetik, galdera bakoitza erantzun ostean, horri loturiko azalpena irakurri daiteke. Kahoot-en berriz, galderak erantzuteko denbora jakin bat ezartzen da eta denbora hori bukatu baino lehen erantzuten duenak, ikasle guztiek erantzun arte itxaron behar du, denak batera igaroko baitira hurrengo galderara. Hori gutxi balitz, ezin dira galderari buruzko azalpenak atxikitu. Azkenik, Kahoot-en, galderak erantzutearren puntuak ematen dira (zenbat eta azkarrago hobea), aldiz, Socrative-n ez.

Hau guztia ikusirik, determina dezakegu Kahoot lehiakorragoa dela eta ikaslearen atentzia lortzeko balio du, izan ere, galdera bakoitza erantzun ostean, puntu gehien dituzten bost erabiltzaileen izenak agertzen dira pantailan (jarduera bukatzean podiumeko hiru erabiltzaileen izenak goraitzen dira garaile gisa), ikaslearen artean galderak ondo baina azkar erantzuteko lehia sortuz. Horregatik ikerketa-lan honetan, Kahoot-eko proposamena Kontabilitate Publikoan egin da, eduki teorikoak erreparatu eta kontzeptuak ikasteko bide egokia baita.

Bestetik, Socrative-k ez du garailerik nabarmentzen (ez dago klasifikaziorik), nahiz eta ikasle guztien errendimenduak ikusi daitezkeen emaitzen taulan (balio erlatibo nahiz absolututan). Galdera bakoitza erantzutearren ez du punturik ematen, eta denbora mugarik ere ez dagoenez, ikasleak galdera eta erantzunak lasai irakurri eta erantzuna pentsatzeko denbora hartu dezake, klasifikazioan postuak aurreratzeko helburua alde batera utziz. Hori gutxi balitz, emaitzen taularen bitartez, galdera bakoitzak izan duen harrera eta zailtasuna aztertu daitezke, goiko irudian ikus daitezkeen bezala ondo erantzundako galderak berdez, eta gaizki erantzundakoak gorri adierazten baitira. Ondorioz, Socrative erremintak, galderari buruzko analisiak eta ikaslearen errendimenduak behatzeko balio du (Kahoot-ek ez bezala, lehen postuetako erabiltzaileak kenduta, ez baitu gainontzeko ikaslearen errendimendua erakusten pantailan). Horregatik erabili da tresna hau Kontabilitatearen eta Kontu Auditoriaren Lege Markoan, helburua irakasgaiko zer kontzeptu ulertu diren eta ez diren ikustea

baita. Hori gutxi balitz, Socrative test moduko azterketak egiteko ere erabilgarria da, Kahoot baino formalagoa izateaz gain, jarduera eta ikasle bakoitzaren notak gordetzen baititu, irakasleak deskargatu ditzakeelarik.

4.4.2. Albisteen bidezko hurbilpena

Aurreko proposamenean, Socrative erreminta erabili nahi izan da 4. gai teorikoa gela irauliaren bitartez, klasean landu ordez, ikasleak etxeko lan gisa irakurria ekartzeko. Ondorioz, gai teorikoak lantzen denbora gutxiago igaroko denez, gelako denbora jarduera praktikoa gehiago egiteko baliatu ahal izango da. Horrela bada, proposamen honetan, esanahien bidezko ikaskuntza erabiliko da. Metodo hau, ikasleak ikasmaterialaren inguruan eraikitzen dituen esanahien edo loturen prozesuan zentratzen da. Aurretiko antolatzaileen bitartez, ikasgaiaren zehar landuko diren edukiak era antolatuan eta zentzu zabalean aurkeztuko dira, ikaslearen egitura kognitiboaren eta informazio berriaren arteko zubi gisa funtzionatuz. Hori dela eta, gerora eduki berria asimilatzekeo ikaslearengan oinarrizko ezagutza bat sortuko da.

Beste era batera esanda, ikasgai bat landu aurretik, bertan landuko diren kontzeptuei buruzko informazioa bilatzean datza. Horrela, ikasleek, eduki teorikoa ematerakoan, jada aurretik aztertutako kontzeptuei buruzko ideia orokor bat izango dute, eta beraz, gerora ikasiko duten eduki berria jada aurrez dakienarekin erlazionatuko dute. Ondorioz, errazagoa izango da ikasleak materia ikasi eta denbora luzeagoan gogoraraztea.

Proposamen honetan beraz, irakasgaiko 6. eduki teorikoari, 'Auditorearen independentzia eta bateraezintasunak', buruzko albisteak bilatu nahi dira.

EY - PwC - Santander

Santander bankua, Jiménez-en arabera (2015), diferentzia handiz, Espainiako aholkularitza eta kontuen auditoriako bezero onenetakoa da. 2015eko uztailan, Santander bankuak PricewaterhouseCoopers (aurrerantzean PwC) izendatu zuen bere urteko kontuen auditore gisa hurrengo hiru ekitaldietarako. Haatik, PwC-ek, kontuen auditoria lanak onartzeko, aurrez Santanderri eskaintzen zion aholkularitza kontratuari uko egin behar izan zion, Ernst & Young-ek (aurrerantzean EY) ordezkatu zuelarik.

Antza denez, EY-ek Santanderri aholkularitza-zerbitzuak prestatzeko, PwC-ko bi bazkide, bost zuzendari eta zenbait aholkulari kontratatu zituen, hain zuzen PwC-en, aurreko urteetan, bankuari aholkularitza-zerbitzuak ematen zizkien pertsonal bera. Oraindik ez dago argi zenbat langileri eragin zion kontratu-aldaketa horrek, baina kopurua ehun inguruan ezartzen da.

PwC-k Santanderri eskaintzen zizkion aholkularitza-zerbitzuak, sistema informatikoen esparruan zentratzen ziren. 2015eko uztailak 6an, Gonzalo Sanchez-ek Espainian zuzentzen duen enpresak, Santanderren urteko kontuak 2016, 2017 eta 2018. urteetan egiaztatzekeo norgehiagoka irabazi zuen. Horren aurretik, Deloitte-k 13 urte zeramatzan bankuaren urteko kontuak auditatzen.

Santanderren urteko kontuak egiaztatzeko lehiaketa, 2015.urtean finantza sektorean ospatu zen garrantzitsuenetakoa izan zen. Hala ere, auditoria firma guztiek zekiten kontratu horrek bere aukera kostuak izango zituela, kontuen auditoriako lege berriak, bezeroari edozein zerbitzu eskaintzerako garaian behatu beharreko bateraezintasunak indartzen baitzituen. Ondorioz, PwC-entzat bateraezintasun horrek, (Kontuen Auditoriari buruzko Legeko 16.artikuluko b) ataleko 5^o azpiatalak, ez dio baimentzen PwC-i auditoria eta sistema informatikoen aholkularitza-lanak enpresa berari, aldi berean, prestatzea) auditoria kontratua onartu eta aholkularitzakoari uko egitea suposatu zuen.

PwC - Aena

PwC-ek, 2011. eta 2013. urteen bitartean, Aena-ren urteko kontuak egiaztatu zituen Fernández-ek dioen bezala (2019). Bada, jarduera horretan, Kontu Auditoriari buruzko Legeak jasotzen duen independentzia betebeharra (13.artikuluaren erregulatua) urratu zuen, 2019ko urtarrilean, Auzitegi Nazionalak erabaki bezala, era garbi eta eztaba daezinean. PwC-ek orduan, Auzitegi Gorenera jo zuen, baina azken honek, ekainaren 21ean, auditoria firmaren helegitea gaitzetsi zuen. Ondorioz, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak (aurrerantzean ICAC) ezarritako isunik handiena, 10,5 milioi eurotara helduz, mantendu egiten da. ICAC-ek dioen bezala, auditoreak Aena-ren urteko kontuen formulazioan parte hartu zuen, babes-neurri egokirik hartu gabe.

Araudi kontableak, auditoreei muga batzuk ezartzen dizkie bezeroei zerbitzu osagarriak prestatzerako orduan. Aitzitik, PwC-en defentsa, muga horien lausotasunean oinarritzen da, hau da, auditoria firmaren ustez, limiteak ez daude era egokian zehaztuta. PwC-en arabera, zigortutako jarduera kontabilitate informazioari buruzkoa zen, baina auditoria jardueraren atal bat gehiago besterik ez zen. Ondorioz, auditoria firmak Aena-ri emandako aholkularitza tekniko hori, auditoria lanetik ezin dela bereizi dio PwC-ek, urteko kontuen egiaztapen ororen barne hartzen baita, kontuen-doikuntza eta zuzenketekin batera. Hori gutxi balitz, ICAC berak publikoki onartu izan du kontzeptua erregulatzen duen artikulua interpretatzerako garaian, desadostun handia dagoela sektorean.

Bestetik, ordea, Auzitegi Gorenak ez du uste alegatu horiek baloratzeak merezi duenik, kasazio-interesa falta baitute. Gainera, ICAC-ek ekitaldi horietako PwC-en lan paperak ikertu zituen, Aena-ren urteko kontuen zirriborroen berrikuspena Nazioarteko Auditoria Araudiak markatzen duena baino haratago joan zela ondorioztatuz. Horrez gain, ICAC-ek ikusi zuen gainbegiraketa zerbitzua, auditoria gauzatu aurretik burutu zela.

Horrela bada, ICAC-ek ezarritako isun historikoak, 10,5 milioi euro ingurukoak, PwC-ek 2016an, urteko kontuen auditoriatan, fakturatutako zifraren %5,25 suposatu zuen.

4.5. Kontu Auditoria

4.5.1. Metodologia aplikatuak

Kontu Auditoria irakasgai, ikerketa-lanaren atal honetan jada landu diren zenbait metodologia aurkitu dira, hala nola, roleplay bidezko ikaskuntza kooperatiboa eta Excelen bidezko gaitasunetan oinarritutako ikaskuntza. Hori gutxi balitz, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza ere sustatzen da, IV.ataleko 'Auditorearen lan arloak' proiektuetan (metodologia honek irakasgai hontan duen aplikazioa ez da aztertuko, ikasleek egindako lanak ez baitira bateratuak; hots, talde bakoitzak egokitu zaion arlora bideratu du lana, besteak beste, izakin, bezero, hornitzaile eta diruzaintza arloetara). Ondorioz, proposamen berriak sortu ordez, irakasgai erabiltzen direnak hartu eta azalduko dira.

4.5.1.1. Excelen erabilera

Irakasgaiko 4.ataleko edo 6. eta 7.gaietako ariketa batzuk Excelen egiten dira. Kontabilitate Aurreratua eta Zerga Sistemak, ariketak Excelean egiteko proposamena egin zen, lan-munduan ugari erabiltzen den erreminta hau, klasean normalizatzen eta protagonismo handiagoa hartzen joateko. Hori horrela, irakasgai honetan, banku berdinkatzea (CICUTA, S.A.) eta izakinen eragiketen banaketari (PRECIO, S.A.) buruzko ariketak, txantiloiekin egiten dira.

CICUTA, S.A. sozietatearen ikuskaritza egitean, 2013ko abenduak 31n, enpresak banku kontziliazioa aurkezten du, non enpresaren saldoa, mugimendu guztiak eta gero, 19.694,00€-koa den. Auditoreak beraz, doikuntza idazpenak egin eta bere iritziz egon beharko litzatekeen saldoa kalkulatu du.

Hori dela eta, auditoreak honako doikuntzak egin beharko ditu: Enpresak bankura eramanez ez duen eskudirua, txeki diferentzia (enpresak txekia kontabilizatu duen eta luzatutako eta bankuak ordaindutako zenbatekoaren arteko diferentzia), bezeroak itzultutako txekia, zirkulazioan dauden txekiak (enpresak txekiak jada luzatu ditu, eragiketa kontabilizatuz; bankuan ez da kontabilizatu ordea, txekia duena bankutik oraindik ez baita pasa), bankuak abonatuak sarrera (enpresak oraindik kontabilizatu gabea). Ariketa honetan, banku berdinkatzea egin ondoren, egiaztatu da CICUTA, S.A. enpresaren 2013ko abenduak 31n bankuan azaldu behar den saldoa 16.965€ dela. Auditoreak, enpresak doikuntza idazpen horiek burutuz gero, ez du salbuespenik aipatu behar diruzaintzako arloan.

Bestetik, PRECIO, S.A. elkarteak segurtasun kutxak salerosten ditu. X1 ekitaldi hasierako izakinen balorazioan auditorea ados egonik. Ekitaldian zehar erosketa eta salmenta bana burutu dira. Salmentagatiko izakinak 201Xko abenduaren 21ean atera ziren biltegitik, bezeroak ordea, X2ko urtarrilaren 4an jaso ditu eta salmentaren gauzapea ere data horretan egin da. Ondorioz, salgai salmentaren eta izakinen aldaketaren doikuntza idazpenak burutu behar dira. Segurtasun kutxen erosketa eta salmenten azterketa, hots, eragiketen banaketaren proba, egin ondoren, beraz, auditoreak egiaztatu du PRECIO, S.A. enpresaren 201Xko abenduaren 31n salgaien

saldoa 1.500.000€ dela. Auditoreak, enpresak doikuntza idazpenak burutuz gero, ez du salbuespenik aipatuko izaniken arloan.

4.5.1.2. Debatea

Irakasgai honetako 4.gaian, 'Etika eta independentzia', ikasgaia gehiago lantzeko sakontze jarduera egiten da: Auditoreen bateraezintasunak kontutan hartuz, eta mehatxu eta salbuespen sistema ezagutuz, beste zerbitzuak eskaintzearen aldeko eta kontrako ikuspuntuak aztertu, horretarako irakasleak eskuragarri egindako irakurgaiak erabiliz. Jarduera edo zeregin hau, Kudeaketa Kontabilitatea eta Barne Kontrola irakasgaien proposatutako roleplay-aren antzekoa da, ezberdintasun bakarra irakasgai honetako zereginak debate itxura gehiago duela, izan ere, bikote edo talde bakoitzari rol bat esleitu eta hori defendatu ordez, ikasleek aldeko eta aurkako ikuspuntuei buruzko informazioa bilatu eta gero klasean amankomunean jartzen da.

Pérez eta López-en (2004) arabera, auditoria firmek, kontuen auditoriaz gain, beste zerbitzuak eskaintzeak abantailak dituztela dioten aditu batzuk badaude, hala nola, Parkash y Venable, Arruñada, Hatherly eta Windmöller. Honako abantailak aipatzen dituzte:

1. **Bezeroekiko ezagutza handitzen du.** Beste zerbitzu batzuk eskainiz, kontabilitate informazioaz gaindiko informazioa eskuratze da. Ondorioz, aholkularitza zerbitzuen prestakuntzak, auditoreak sozietate ikuskatuarengan duen ezagutza handitzen du, urteko kontuek irudi fidela erakusten duten ala ez iritzia ematea errazagoa izango delarik. Horrez gain, auditoria prozesuaren kostuak jaitsi eta ikuskaritza zerbitzuaren kalitatea igoko litzateke.
2. **Auditoria enpresen merkatuko konkurrentzia sustatzen da.** Egun, auditoria zerbitzuen fakturazioaren hazkuntza gelditurik dagoenez, auditoria firmek lehiatu dezaketen merkatu-nitxoak bilatzen dituzte. Ildo beretik, auditoria sozietateek, jarduera bat baino gehiago eginez, negozio-arriskua dibertsifikatzen dute.
3. **Auditoreen independentziari on egiten dio.** Aurreko argumentuaren ildotik, produktu linea geroz eta zabalagoa edukitzeak, independentzia errespetatzeko pizgarriak ematen ditu. Izan ere, sozietateak bezero bat galtzen badu, irabazi kopuru bera dakarkion jardueraren bat bilatzea errazago egingo zaio.
4. **Sozietateko bezeroen asebetetze-maila handiagoa da.** Auditoriaz gaindiko zerbitzuen eskariaren hazkuntzarekin, ikus dezakegu bezeroek beraiek eskatzen dutela zerbitzu horien prestakuntza. Ondorioz, auditoria firmek zerbitzu horiek ez balituzkete eskainiko bezeroaren nahiak ez lirateke guztiz asetuko.
5. **Pertsonala erakarri eta atxikitze aukera gehiago ematen ditu.** Zerbitzu-sektoreko enpresetan giza baliabideen garrantzia handia izaten da, beraiek baitira bezeroekin etengabeko kontaktua dutenak. Hori ikusirik, langile kualifikatu eta trebatuak edukitzea funtsezkoa da, zerbitzuaren kalitatean pisu handia izateaz gain, enpresaren balio-katean osagai garrantzitsua baitira. Horrenbestez, zerbitzu sorta handia eskaintzea, profesiorako ikasketetako promozioei irtenbide profesional gehiago ahalbidetzea bezala ikusi daiteke.

Bestalde, kontuen auditoriaz gain, beste zerbitzuak eskaintzeak desabantailak dituztela dioten adituak ere badaude, besteak beste, Shockley, Grajal y Gutiérrez, Klarskov eta Van Der Plaats. Ondorengoak dira aipatzen dituzten desabantailak:

1. **Bezeroarenganako dependentzia ekonomikoa handitzen du.** Betidanik, auditorea, ikuskatutako enpresarekiko dependentea kontsideratu izan ohi da, ikuskatze-jardueragatik kobratutako ordainsaria dela eta. Beraz, auditoreak enpresa berari zerbitzu anitz eskaintzeak bezeroarekiko lotura ekonomikoa handitzen du.
2. **Auditoriaren kalitate galera dakar.** Ikuskatze-negozioak pairatutako lehiakortasunaren hazkundera dela eta, pentsatzen da auditoria firma ugarik bezeroak lortzeko ikuskaritza lanen prezioak jaisten dituztela, epe luzera bezero berari zerbitzu gehiago eskainiko dizkiela pentsatuz (horrela, auditoria lanen prezio jaitsiera gainontzeko zerbitzuekin konpentsatuko da, irabazten ateratzeaz gain). Ildo beretik, prezio-jaitsiera horiek, ikuskatzaileek enpresaren urteko kontuak egiaztatzen denbora eta esfortzu gutxiago ibiltzearekin lotzen da.
3. **Bezeroarekin etxekotasuna eta konfiantza handitzen ditu.** Auditoreek bezeroei eskaintzen dizkien zerbitzu-prestazioak handitu ahala, bien arteko erlazioaren konfiantza handitzen da. Gehiegizko konfiantza horrek, auditoreak independente gisa jarduteko duen gaitasunean eragin dezake.
4. **Berrikusketa propioak, gatazka egoerak dakartza.** Auditoreak bere lan propioa edo bere sozietate bereko kideen lana epaitu edo ebaluatu behar dutenean gatazka garrantzitsuak sortzen dira. Egoera hori, esaterako, auditore edo sozietateak barne kontrolari buruzko aholkularitza zerbitzua eskaintzen duenean eman daiteke. Horrelako kasuetan, auditorea, aholkulariaren ebaluatzaile eta aholkulari bihurtzen da.
5. **Ikuskaritza lanbideari ospea kentzen dio.** Gaur egun, auditoretza gizartearen jopuntuan dago, sarritan bertakoen independentzia zalantzan jartzen delarik. Kontuan eduki behar da, sozietate bezeroen Batza Orokorrak auditorea izendatzerako garaian, entzute handiko ikuskatzaileak bilatzen dituztela, ospe hori kalitate altuko zerbitzuarekin lotzen baita.

4.5.2. Kurtso erdipresentziala

Proposamen honetan, Gela Iraulia metodologia erabiliko da. Gelako jarduerak alderantzikatuz (klasean eta klasetik kanpoko zereginak bereiziz), Bloom-en taxonomiarekin bat etorritik, maila baxuko esfortzu kognitiboak, ulertu eta gogoratzea esaterako, klasetik kanpo landuko dira; aldiz, kontzentrazio-maila altuagoa behar duten jarduera praktikoak, besteak beste, aplikatu, aztertu, ebaluatu eta sortu beharrekoak, klasean egingo dira.

Koronabirusaren pandemia dela eta, hezkuntzak aldaketa bortitzak jasan ditu. Espainian, martxoaren erdialdean, Gobernuak alarma-egoera aditzera eman zuen. Hori dela eta, derrigorrezko konfinamenduaren ondorioz, goi-mailako ikasketen saio

guztiak presentzialak izatetik ez presentzialak izatera igaro ziren egun batetik bestera. Horrenbestez, unibertsitate eta irakasleek kurtsoaren plangintza berregituratu egin behar izan zuten. 2020/2021 kurtsoari begira, berriz, momentu batetik bestera birusa berragertu daiteke eta ondorioz, gizartea etxean konfinatuta egotera igaro. Kasu horretan, irakasle eta ikasleek jada badakite nola jardun, bi hilabeteetan zehar, klaseak online bidez ematen aritu baitira.

Hala ere, birusaren berragertzea ekiditeko eta Gobernuak alarma-egoera exekutatzeko, neurrietako bat klase presentzial kopurua murriztea da, lezio presentzial eta ez presentzialak konbinatuz. Horrela bada, Kontu Auditoria irakasgaien, landuko den edukiaren egutegia eskaintzen da, nahiz eta urtero aldaketa txiki batzuk izan, ikaslea orientatzeko balio du. Proposamen honetan, plangintza hortatik abiatuz, kurtso erdipresentzial batean oinarrituriko egutegi bat eraikiko da (ikus 8.5.atala).

Gela irauliaren teorian aipaturiko Lage-en ereduaren arabera, klase presentzialen hasieran, gehienez 10 minutu erabiliko dira etxeko lanekin egon daitezkeen zalantzak argitzeko eta etxeko lanak zuzentzeko. Honen ostean, ikasgaiaren zati praktikoa landuko da, zailtasun-maila ezberdineko ariketak ebatziz. Klase bukaeran, irakasleak kezka edo zalantza berriak proposatu beharko ditu. Bada, moldatutako egutegi edo plangintzako klaseek antzeko eredia izango dute, bai klase birtual bai presentzialetan. Etxeko lan ugari edukiko dituzte ikasleek, irakasgaiko materiala klasez kanpo lantzeko eta ikaslearen engaiamendua lortzeko. Hori dela eta, klase bakoitzaren hasieran, aurreko saioko etxeko lanak zuzenduko dira. Ondoren, ikasgai teoriko edo praktikoarekin segiko da, klasea presentziala edo online bidezkoa denaren arabera. Azkenik, hurrengo saiorako etxeko lanak bidaliko dira (ez beti, baina sarritan), ikasleak klasean landutakoari buelta batzuk eman diezazkion.

Plangintza erdipresentzialaren lehen zatia (lehen saiotik hamahirugarrenera, zortzigarrena eta hamaika nahiz hamabigarrenak salbuetsiz), nagusiki, Zoom aplikazioaren bitartez, birtualki emango litzateke (irakasgaiko zazpi gai teorikoak eta dagozkien zereginak eta etxeko lanak landuz). Zenbait zeregin egin ahal izateko, garrantzitsua izango da ikasle eta irakasleen arteko koordinazioa, hala nola, MásMovil Ibercom, S.A.-ren 2018ko ikuskaritza txostena irakurri eta komentatzeko edota Enron kasuari buruzko bideo bat ikusi eta horri buruz solasteko. Lehen bost gaiak landu ostean, test era kontrol bat egingo da, azken notaren %20 balio duena. Bestetik, irakasgaiaren bigarren zatia presentziala izango da, 6.eta 7.gaiko ariketak eta aurreko urteetako azterketa ereduak burutuz. Azken laugarren saioan, 27.an, 4 puntu balioko dituen azterketa praktikoa egingo da. Hortik aurrera, 8.gaia landu eta auditoria txostena idatzi eta entregatu beharko da (online eran). Ondorioz, goian aipatu bezala, eduki teorikoak online bidez eta ariketa praktikoa presentzialki landuko dira.

Bai test erako kontrola bai kontabilitatean aditua denaren eta auditorearen hitzaldiak aukeran presentzialak izango balira hobe, baina birusagatiko egoeraren arabera, online bidez ere antolatu ahalko lirateke. Gauza bera, azken notaren %30a balio duen proiektuaren aurkezpenekin, birtualki antolatu ahalko lirateke, baina beti erosoagoa izango da presentzialki egitea. Bestalde, etxeko lanak birtualki zuzendu edo klasean komentatzerakoan, ikasleei banan-banan galdetu ordez, aurreko saioan talde txikiak antolatuz egin daiteke. Horrela, lehenik, zeregina ikasleek bakarka landuko dute, gerora taldekoekin alderatuko da, eta azkenik, talde bakoitzeko ordezkariak taldean egin dena aditzera emango dute. Saio presentzialetarako aldiz, nahiz eta a priori ikasleek beraien artean ez duten zertan kontakturik eduki, irakasleak kurtso osoan

zehar mantenduko diren talde batzuk ezarriko ditu (6. eta 7.gaiako proiektua egin eta aurkezteko talde berdinak erabiliko dira), horrela ikasle guztiak nahastu ordez, bakoitzak bere interakzio-burbuila izango du.

Klaseen ordu kopuruei dagokienez, oinarrizko plangintzan aipatzen den bezala, lehen 5 asteetan klaseak bi ordukoak izango dira eta hurrengo 10 asteetan berriz, ordu t'erdikoak (guztira 50 ordu). Bada, lezio erdipresentzial hauetan, online bidezko 12 klaseren iraupena ordu t'erdikoa izango da, eta klase presentzialena berriz, ordu eta hiru ordu laurden, 26. eta 27.saioak (azterketa praktikoa eta horren erreparorako klasea) izan ezik, non hauek bi ordu iraungo dituzten (12 klase birtualek ordu t'erdia, 16 klase presentzialek ordu eta hiru ordu laurden eta 2 saio presentzialek bi ordu, guztira 50 ordu).

5. DIZIPLINARTEKO LOTURAK

Atal honetan egingo diren proposamenak, kontabilitateko espezialitateko irakasgaietan landutako edukiak beraien artean konbinatzean datza. Irakasgai bakoitzeko eduki teorikoan, azaletik landu diren kontzeptuak gehiago sakontzeko eta ikasleak klasean ikasitakoari buelta batzuk emateko balio dezake. Horretarako, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza metodologia erabiliko da. Proiektu batean oinarritutako lanak, ikasleak egungo errealitateko egoeratan barneratzea ahalbidetzen du, esperientzia lortuz, gaitasun berriak garatuz edota abileziak eta jakintza baliatuz. Ikasleak, bere kabuz, errealitatea esploratu eta sormena lantzerantz bultzatuz, bere garapen pertsonala sustatzen da.

Kasu honetan, diziplinar-teko loturek irakasgai baten izaera izango lukete, izan ere irakasgai bat baino gehiagoren arteko konbinazioa denez, zaila litzateke horietako baten ebaluazioan barneratzea. Nolabait esateko, Gradu Amaierako Lanaren ezaugarriak izango lituzke, hots, ez litzateke klase presentzialik egongo, baina irakasle edo tutoreekin egindako bilerak lirateke ikaslearen orientazioa. Proiektuak bete beharreko gida estilo bat ere egin beharko litzateke (dokumentu eta orriaren formatua, testurako letra eta tamaina, epigrafe motak, etab. erabakiz).

Irakasgai hau, 4.kurtsoko 2.lauhilekoan egin beharko litzateke, kontabilitateko minorreko irakasgai guztiak landu ostean. Bestetik, proiektuek izan beharreko luzera (hitz kopurua) erabaki ostean, irakasgaiak izango lukeen kreditu kopurua hautatu beharko litzateke (kreditu bat edo bi aukeran). Proposamen hau aurrera eramanez gero, ordea, espezialitateko beste irakasgai bati kredituak gutxitu beharko zaizkio, hizkuntzei adibidez, izan ere hizkuntzen optatibak minorretik kanpo ere burutu daitezke (ikasleek hizkuntza konpetentzia lortzeko aukera hori ez baztertzeko).

Proiektuaren gaiaren esleipena egiteko, GRAL-ren metodo tradizionalaren antolakuntza segi daiteke. Ikasleak nahi izanez gero, gai bat minorreko irakasle bati proposatu diezaiotke, bestela, batz besteko nota altuena duenetik hasita gai posibleen zerrendan aukeratu beharko du (gai bakoitzak dagokion bi irakasgaietako irakasleak izango ditu tutore gisa). Kontabilitateko minorreko ikasle guztientzat gaiak bilatzea zaila izango da ordea. Horretarako, brainstorming bat egin daiteke edo bestela irakasgai bakoitzean lantzen diren kontzeptuak papeltxoetan idatzi eta irakasgai bakoitzeko papeltxo guztiak ontzi berean sartu (irakasgai bakoitzeko ontzi bat ezarriz, guztira 5 ontzi egon beharko dira). Ondoren, ontzi ezberdinetatik papalak ateraz, kontzeptuen konbinazio interesgarriak atera daitezke. Printzipioz, proiektua entregatu soilik egin beharko da (aurkezteko beharrik gabe), ikaslearen tutoreek zuzendu beharko dutelarik, azken honen eboluzioa eta garapena ebaluatuz (zuzenketa irizpideak ere erabaki beharko lirateke).

Ondorioz, proposamen honek, Gaitasunetan Oinarritutako Ikaskuntzaren kutsuak ditu, ikaslea akademikoki formatzeaz gain, profesional gisa prestatzea bilatzen baitu, etorkizuneko ogibidean erabili ahalgo dituen gaitasunak eskuratzen saiatuz.

5.1. Kooperatiben barne kontrola

Kudeaketa Kontabilitatea eta Barne Kontroleko 6.gaian, 'Barne kontrola enpresaren ikuspuntutik', sozietate kapitalisten barne kontrolaren elementu eta arduradunak, Zuzendaritza Orokorra, Barne Ikuskaritza, etab. aipatzen dira, beraien funtzioak landu gabe. Bestetik, Kontabilitate Aurreratua eta Zerga Sistemako 5.gaian 'Kooperatiben kontabilitatea', kooperatiben gobernu organoak, Batzar Orokorra, Kontseilu Errektorea eta Zaintza Batzordea definitzen dira diapositiba batean. Azkenik, Kontabilitatearen eta Kontu Auditoriaren Lege Markoa irakasgaiko 2.gaian, 'Sozietate Anonimoaren eta Erantzukizun Mugatuko Sozietatearen organuak. Batzar Nagusia', sozietate kapitalisten Batzar Nagusiaren funtzio, mota, deialdi eta akordioak eta Administrazio Kontseiluaren funtzioak aipatzen dira era laburrean. Hori horrela, proiektu honetan, kooperatiben administrazio-organuek dituzten funtzioak aztertu eta horietan gehiago sakondu nahi da, sozietate hauen funtzionamendua eta hartzen dituzten erabakiak hobeto ulertzeko asmoz.

Espainiako Kooperatiben Legeko 19.artikuluari adierazi bezala, honakoak dira sozietate kooperatiboaren organoak:

- A. Batzar Orokorra
- B. Kontseilu Errektorea
- C. Kontu-Hartzaitza

Batzar Orokorra, bere eskumeneko arazoei buruz eztabaidatu eta akordioak hartzeko ospatzen den bazkideen bilera da. Bertan hartutako erabakiek, kooperatibako bazkide guztiak lotetsiko dituzte (Espainiako Kooperatiben Legeko 20.artikulua).

Batzar Orokorrak, kooperatibaren politika orokorrak finkatu eta bere aginpideko edozein gairi buruz eztabaidatu dezake, beti ere kooperatibako beste organu baten eskuduntzako materiari izan ezik. Bestalde, sozietateko Estatutuak aurkakorik adierazi ezean, Batzar Orokorrak Kontseilu Errektoreari aginduak eman ahalko dizkio eta azken organu honek hartzen dituen erabakiak bere onarpenera azpiratu ditzake. Printzipioz, Batzar Orokorraren eskumena ordezkazina da. Horrela bada, Batzar Orokorrak, honako arazo hauei buruz eztabaidatu eta erabakiak hartuko ditu (Espainiako Kooperatiben Legeko 21.artikulua):

1. Kudeaketa soziala aztertu, urteko kontuak, kudeaketa txostena eta erabili daitezkeen eszedentzien aplikazioa onartu eta galerak egotzi.
2. Kontseilu Errektoreko kideak, Kontu-hartzaileak, urteko kontuen auditoreak eta likidatzaileak izendatu eta baliogabetu. Hori gutxi balitz, Helegite Batzordeko kideak izendatu eta likidatzaile eta aholkularien ordainsaria erabaki.
3. Estatutuak eta kooperatibako barne-araudia onartu eta aldatu.
4. Derrigorrezko eta borondatezko diru-ekarpenak onartu, kapital sozialari egindako ekarpenen balioak eguneratu, bazkide berrien kapital-ekarpenak erabaki, kapital sozialari egindako ekarpenengatik abonatu beharreko interes-tasa ezarri eta sarrera kuotak ipini.
5. Partaidetza-tituluen eta partizipazio berezien emisioa.
6. Sozietatearen fusio, zatiketa, eraldaketa edota desgiteak.

7. Kooperatibaren egitura ekonomikoaren, sozialaren, funtzionalaren edota antolaketaren funtsezko aldaketa dakarten erabakiak hartzea.
8. Bigarren mailako kooperatiben eta talde kooperatiboen sorrera, existitzen diren kasuan, horien txertaketa. Ordezkaritza izaera duten erakundeetara itsatsi eta baita banandu ere. Azkenik, kolaborazio ekonomiko erako partaidetzak ere Batzar Orokorrak eskumena dira.
9. Kontuen auditore, likidatzaile eta Kontseilu Errektoreko kideen aurka (behar den kasuan) erantzukizun soziala gauzatzea.
10. Legeetatik edota sozietateko Estatutuetatik eratorritako erantzukizun oro.

Kontseilu Errektoreari, Espainiako Kooperatiben Legeko 32.artikuluaren arabera, goi-mailako gestioa, zuzendarien ikuskeraketa eta kooperatiba ordezkatzea dagozkie. Bestalde, 10 bazkidetik beherako kooperatibatan, Estatutuetan adieraziz, administratzaile bakarra (bazkidea den pertsona fisiko bat izan behar delarik) ezarri ahalko da Kontseilu Errektorearen funtzioak ordezkatzeko.

Kontseilu Errektoreak kooperatiba ordezkatzeko duen boterea, kooperatibaren arazo sozialarekin bat datozen egintzetara zabaltzen da. Era berean, obligazioen emisio eta balore negoziagarrien jaulkipen bidezko finantzaketa dakarten bideak ere bere eskumena dira, Estatutuetan aurkakorik adierazten ez bada behintzat. Partaidetza-titulu eta partizipazio bereziak, berriz, Batzar Orokorraren aginpinde dira.

Kontseilu Errektoreko lehendakariak eta lehendakariordeak, kooperatibaren errepresentazio legala burutuko dute, Estatutuek baimendutako kasuetan, eta baita Batzar Orokorrak hartutako erabakiak betetzeko beharrezkoa den uneetan ere. Horrez gain, organu honek, botere-eskrituratan aipatzen diren pertsonen botereak eman eta kentzeko ahalmena du. Gainera, gerentea eta zuzendari orokorra izendatu eta baliogabetzeko gaitasuna ere badu. Izaera iraunkorreko zuzendaritza eta kudeaketa botereak ematea, aldatzea eta ezeztatzea Sozietate Kooperatiboen Erregistroan inskribatu behar da.

Espainiako Kooperatiben Legeko 33, 34 eta 35.artikuluari jaramon eginez, Estatutuek erabakiko dute Kontseilu Errektorearen osaketa. Hori bai, aholkulari kopurua ezingo da hiru baino txikiagoa izan, eta lehendakari, lehendakariorde eta idazkari karguak existituko dira. Kooperatibak hiru bazkide dituen kasuan, organua bi kidek osatuko dute, lehendakariordearen kargua baliogabetuz. Bestelako karguen eta ordezkarien existentzia Estatutuetan adieraziko da. Kontseilu Errektoreko kideak Batzar Orokorrak aukeratuko ditu isilpeko botazio bidez eta botoen gehiengoari kasu eginez. Kide horien karguak hiru urtetik sei urtera bitartean iraungo du, Estatutuetan zehaztutako delarik.


Kontu-Hartzailetzak, kooperatibaren fiskalitate-organu gisa, sozietateko dokumentu oro egiaztatzen eta kontsultatu ditzake, Espainiako Kooperatiben Legeko 38.artikuluak dioen bezala. Estatutuek, ikuskatzaile titular kopurua (ezingo da aholkularien zenbatekoa baino handiagoa izan) eta horien ordezkoak finkatuko dituzte. Ikuskatzaileen mandatua hiru urtetik sei bitartekoa izan ahalko da, Batzar Orokorrak isilpeko botazio bidez eta botoen gehiengoari kasu eginez aukeratuko dituelarik.

Pertsona juridiko bat aukeratu den kasuan, honek, pertsona fisiko bat ezarri beharko du karguaren funtzio propioak gauzatzeko.

39.artikuluaren arabera, berriz, kudeaketa txostena eta urteko kontuak Batzar Orokorrean onartu aurretik, ikuskatzaileek behatu beharko dituzte, kooperatiba kontuen auditorian murgildurik ez badago behintzat. Azkenik, urteko kontuen txostena formulatu eta Kontseilu Errektoreari erraztu beharko zaio hilabeteko epean. Desadostasun kasuan, ikuskatzaile bakoitzak, txostena bere kabuz igorriko du.

Espainiako Kooperatiben Legeko 44.artikulua aintzakotzat hartuz, sozietateko Estatutuek **Helegite Batzorde** baten sorkuntza aurreikusi dezakete, Kontseilu Errektoreak bazkideei jarritako zigorrak izapidetu eta ebatzi beharko dituelarik. Batzordearen osaketa eta funtzionamendua Estatutuetan finkatuko da. Bertako kideak, Batzar Orokorrean isilpeko botazio bidez hautatuko dira, mandatuen iraupena Estatutuetan adieraziko delarik (berrautatuak izan daitezke). Helegite Batzordearen akordioek, behin betiko izaera hartuko dute eta berehala exekutatu ahal izango dira, Batzar Orokorrek hartutako erabakiak bailira bezala. Bestalde, Batzordeko kideak magistratu eta epaileei aplikagarri diren errekusazio eta abstentzio kausen eraginpean egongo dira. Bukatzeko, organu honen erabakiak materia diziplinarioari buruzkoak direnean, isilpeko botazioz eta kalitatezko botorik gabe hartuko dira.

XI.Irudia: Kooperatiben Gobernu Korporatiboa



Iturria: Lan propioa, Puentes et.al. (2009) artikuluan oinarritua

Euskadiko Kooperatiben Legeko 53, 54, 55 eta 56.artikuluek ordea, **Zaintza Batzordea** deritzon organuari buruz hitz egiten dute. Batzordearen existentzia ez da beharrezkoa izango kooperatibaren bazkideak ehun baino gutxiago direnean. Gutxienez hiruk kidek osatuko dute eta karguaren iraupenak ezin du administratzaileenarekin bat etorri. Organuko kideak bazkideak izan beharko dira, Estatutuek gaituak diren hirugarrenen hautaketa aurreikusten ez badute behintzat. Sozietateak 50 langile baino gehiago baditu lan-kontratuarekin, soldatapeko kontratu mugagabea dutenen artean bat aukeratu eta Batzordeko kide izango da. Organuak, kooperatibaren informazio oro ikusteko ahalmena izango du beharrezko egiaztapenak egiteko bada. Bestalde, ezin izango du kooperatibaren kudeaketan zuzenean parte hartu, ezta sozietatea hirugarrenen aurrean ordezkatu ere. Artikuluaren arabera, honakoak dira organuaren funtzioak:

1. Urteko kontuak ikuskatu eta horiei buruzko, eszedentzien antolamenduari buruzko eta galeren egozpenari buruzko txosten bat igortzea (Kontu Hartzailletzaren antzeko funtzioa), azken hauek Batzar

Orokorrean aurkeztu aurretik (sozietatea auditoria egitera behartuta dagoen kasuan izan ezik).

2. Kooperatibaren liburuak berrikustea.
3. Beharrezkoa ikusten duenean eta administratzaileek jaramonik egiten ez diotenean, Batzar Orokorra iragartzeko ahalmena izango du.
4. Errepresentazio idatzien egokitasuna kalifikatu eta gainbegiratu beharko du, Batzarretarako sarbide-eskubideari buruzko zalantza eta gertakariei irtenbideak emateaz gain.
5. Hala dagokionean, akordio sozialak aurkaratu.
6. Batzar Orokorra, hark eskatutako egoera eta galdera konkretuei buruz informatzea.
7. Batzar Orokorrak gainontzeko organuetako kideak aukeratzekoan, burutzen den izendapen- eta hautaketa-prozesua zaintzea.
8. Jarduteko ezintasuna eta debekuak urratzen dituzten administratzaileak baliogabetu eta Batzar Orokorra ospatu arteko beharrezko neurriak hartu.
9. Euskadiko kooperatiben Legetik edota sozietateko Estatutuetatik eratorritako erantzukizun oro.

Proposamen honek, diziplinarteko loturen proiektu bateko sarrera gisa balio dezake (kooperatiben administrazio-organuak labur azaltzea). Gerora, barne kontrola lantzen duten organuetako bat hautatu eta horren funtzioetan sakondu eta alde praktikoa gehiago landu daiteke. Besteak beste, barne kontrola lantzen diren ekintzak honakoak dira: Kontseilu Errektoreari goi-mailako gestioa eta zuzendarien ikuskapena dagozkio, Kontu-Hartzailtzak kudeaketa txostena eta urteko kontuak egiaztatu eta azken horiei buruzko txostena igorri beharko du (administratzaileen lana gainbegiratzeko da) eta Zaintza Batzordeak kooperatibaren liburuak eta errepresentazio idatziak gainbegiratzeko ditu.

5.2. Auditoreen sekretu profesionala

Kontabilitatearen eta Kontu Auditoriaren Lege Markoa irakasgai 9.gaian, 'Auditorearen obligazio batzuk', hirugarren puntuan, auditoreek sekretua gordetzeko duten obligazioa eta mugak aipatzen dira. Kudeaketa Kontabilitatea eta Barne Kontroleko 4.ikasgaietan, 'Kudeaketa Kontabilitatean ikuspuntu berriak. Enpresarako Gizarte Erantzukizuna -EGE-, Etika eta Deontologia jardunean', berriz, deontologia profesionala definitzen da, jarduera profesional bat gidatzen duten printzipio eta arau etikoaren multzoa. Horrela bada, proposamen honetan, Deontologiaren Batzorde Nazionalak eratuak eta Kontuen Azterlari Zineginen Institutuak (Instituto de Censores Jurados de Cuentas de España, 2007) onartutako Etika Profesionalaren Kodea aztertuko da. Era berean, Kontuen Auditoriari buruzko Legeak sekretua gordetzeko obligazioa eta mugei buruz aipatzen duena ere landuko da.

Auditoreei aplikagarria den Etika Profesionalaren Kodeak, honako funtsezko printzipio etikoak adierazten ditu:

- A. Zuzentasuna
- B. Objektibitatea
- C. Gaitasun eta ardura profesionala
- D. Profesionaltasuna
- E. Sekretu profesionala

Zuzentasun printzipioak, auditoreak, beraien erlazio profesional eta komertzialetan, egiazaleak eta prestuak izatera behartzen ditu. **Zuzentasunak**, inpartzialtasuna eta egia dakartza berarekin, izan ere auditore profesional batek ezin du ondorengo ezaugarriak dituzten txosten, adierazpen, jakinarazpen edota gainontzeko informazioei loturik egon:

- Baieztapen faltsuak edota akats materialak (garrantzitsuak) ekarri ditzaketen baieztapenak.
- Zuhurtziarik gabe hornitutako informazio eta baieztapenak.
- Informazioaren omisio edota informazio nahaspilatsua duten baieztapenak, aspektu horiek okerreko interpretazioak ekarri ditzaketenean.

Objektibitate printzipioak, auditoreak, joera, interes-gatazka edo hirugarrenen eraginagatik bere irizpide eta sena ez aldatzera behartuta daude. Auditorea bere **objektibitatea** arriskuan egon daitezkeen egoeratan aurki daiteke, baina hain zuzen, bere erantzukizuna izango da joera desegoki horiengandik urruntzea.

Gaitasun eta ardura profesionalaren printzipioak, bezeroek zerbitzu profesional bat jasotzea bermatzeko, bere gaitasun tekniko-profesionalak eta jakintza mantentzera eta bere zerbitzuak eskaintzen dituen bakoitzean arduraz jardutera behartzen ditu auditoreak. Zerbitzu egoki bat eskaintzeko, lehenik, auditoreak gaitua egon behar du, gaitasun profesionalak eskuratuz, baina horrez gain, gaitasun horiek mantendu behar ditu era jarraian. Gaitasun horiek mantentzeko, auditoreak negozioaren garapen eta teknika profesionalari buruzko jakintza egunean mantendu beharko du.

Bestetik, ardura profesionalak, kontratu bakoitzak dituen eskakizunak era arduratsu eta aproposean betetzeko erantzukizun oro barne hartzen ditu. Hori gutxi balitz, auditorearen ardura izango da bere laguntzaileek beharrezko prestakuntza dutela eta horiek egindako lana ikuskatzen dela ziurtatzea. Azkenik, auditoreak bere zerbitzuari atxikitutako muga oro jakinarazi beharko dizkio bezeroari, auditorearen iritzia esanahia eta edukiaren inguruan gaizki ulerturik ez egoteko.

Profesionaltasun printzipioaren arabera, auditoreak legea eta aplikagarri zaien araudia betetzera eta ogibidearen ospearen galera ekar dezaketenean ekintzak saihestera beharturik daude. Ondorioz, auditoreak prestua eta egiazkoa izan behar du, eta ez du honakorik egingo: Eskaini dezaketenean, dituzten trebezien edo duten esperientziaren inguruko baieztapen esajeraturik, ezta hirugarrenen ospea laidotu dezakeen erreferentzia edo bidegabeko alderaketarik egin ere.

Sekretu profesionalaren printzipioaren ondorioz, auditoreek debekatua dute bere jarduera profesionalaren bitartez lorturiko informazio konfidentziala bere probetxu propiorako edo hirugarrenentzako baliatzea edota informazio hori norbaiti ezagutaraztea baimen egoki eta berariazkorik gabe. Auditoreak, sekretu profesionala, bulegoan nahiz bere ingurune sozialean ere mantendu beharko du, ezusteko errebelazio eta giro-familiar eta lagunartekoetan esaten duenari adi ibiliz. Hori gutxi balitz, bezero potentzialek erraztutako informazioarekin ere sekretu profesionala gorde behar du. Gainera, bere laguntzaileek sekretu profesionala gordetzen dutela egiaztatzen neurriak hartzea ere bere ardura izango da. Auditoreak, bezero bati prestatutako zerbitzua bukatu arren, ezin izango du jarduera horretan lortutako informaziorik ezagutzera eman. Bestalde, salbuespen batzuk daude. (Kontuen Auditoriari buruzko Legean, Etika Profesionalaren Kodean baino gehiago zehazten dira).

Kontuen Auditoriari buruzko Legeko 32.artikulua aintzakotzat hartuz, auditorearen sekretu obligazioaren salbuespen bezala, kontu auditoria bakoitzeko dokumentazioa eskuratzeko ahalmena izango dute:

- Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak. Institutuak eskatzen duen dokumentazioa, bakarrik, kontrola egiteko izango da (auditoria jardueraren berrikuspena, kontrol teknikoa edo kalitate kontrola).
- Epaileren erabakiz izendatzen diren pertsonak. Bidezko sententzia bat egin ahal izateko, prozedura judizial baten inguruan gertatzen diren egintzak ezagutu beharrak, batzuetan, sekretu obligazioa mugatzen du.
- Legeak baimentzen dituen pertsonak.
- Espainiako Bankua, Baloreen Merkatuaren Batzorde Nazionala, Aseguruaren eta Pentsio Fondoen Zuzendaritza Orokorra, bakarrik, gainbegiratze eta kontrol funtzioetan eta, bereziki, larriak diren kasuetan, eta Kontuen Auzitegia.
- Auditoreen Korporazioak, beren kideen lanen kalitate kontrola egiteko.
- Auditore bat kentzen denean eta beste berri bat enpresaren kontuak ikuskatzera datorrenean, aurreko auditoreak, atzetik datorren auditoreari, ikuskatutako enpresari buruzko informazio guztia erakusteko prest egon behar da.
- Auditoreen gainbegiraketan eskuduntza duten Europar Batasuneko eta hirugarren Estatuak autoritateak.

Proposamen honek, diziplinarteko loturen proiektu bateko sarrera gisa balio dezake. Gai hau dagokion ikasleak, sekretu profesionala mugatzen duten azken zazpi kasu horiek praktikan sakondu ditzake.

6. ONDORIOAK

Ikerketa-lanaren helburua, sarreran aipatu bezala, kontabilitateko espezialitateko metodologiei alternatiba bat bilatu eta bertan burutzen diren jarduerak lantzeko era ezberdinak proposamen berriekin hornitzea da, jada erabiltzen diren metodoak eztabaidatuz. Horretarako, zenbait metodologia aktibo berritzailek, minorrean izan dezaketen aplikazioa landu da, proposamenen bidez, klase magistral tradizionalen alternatiba gisa.

Proposamen hauek, hiru taldetan sailkatu daitezke: Irakasgaiaren eduki edota zereginak beste era batera irakasten lagundu ditzaketen proposamenak, helburu zehatzak dituztenak eta kontabilitateko espezialitatean aldaketak bultzatu ditzaketenak. Lehen bi taldeko proposamenek minorra epe laburrean hobetzea bilatzen dute, azken taldekoak berriz, epe luzeagoak dira.

Lehen taldean honakoak ditugu: Ezberdintasunak bilatu, kooperatiben kontabilitatea ikasgaia ematen hasi aurretik sozietate kapitalista eta kooperatiba baten balantzean diferentziak bilatzen saiatuz; Kahoot, irakasgaietako edukien errebasoa modu dinamikoan egin eta ikaslea kontzeptuekin geratzeko (irakasleak azalpen bateratuak ematea ahalbidetuz); roleplay, protekzionismoa eta merkataritza askea irakasleak teorikoki diapositibatan azaldu ordez, ikasleari rol bat esleitu eta hori defendatzeko argumentuak bilatuz edota albisteen bidezko hurbilpena, legeak dioena aztertu aurretik, egungo berrietan aipatzen diren kontzeptuetatik ezagutza eraikitzen hasiz.

Bigarren, helburu espezifikoak dituzten proposamenak daude, hala nola, talde-lanetako zereginen aktak eta Socratic erremintaren erabilera. Lehenengoaren helburua, ikasle guztiek talde-lanari esfortzu bera eta antzeko denbora eskaintzen diela bermatzea da, horretarako bakoitzari rol bat esleituz (ikasleak arrakasta lortuko du, baldin eta taldeko kide guztiek beraien rola bete eta taldeak arrakasta lortzen badu) eta bakoitzak egindako lana gehixeago gainbegiratzuz. Bigarrenaren helburua berriz, eduki teoriko guztiak klasean eman ordez, ikasleek teoriaren zati bat etxean irakurri eta zer ulertu duten eta ez duten identifikatu eta kontzeptu horiek klasean gehiago sakontzea da.

Azkenik, kontabilitateko espezialitatean, orokorrean, aldaketak bultzatu ditzaketen proposamenak daude, besteak beste, diziplinarteko loturak, IKD Gazte (Kudeaketa Kontabilitatea eta Barne Kontrolean jada martxan dagoen proiektua), ariketak Excelen eta kurtso erdipresentziala, hurrenez hurren.

Diziplinarteko loturekin, kontabilitateko espezialitatean aipamena lortzeko, irakasgaietako edukiak konbinatzen dituen proiektu bat lantzeak minorraren egitura aldatzea suposatuko luke. Haatik, testuinguru eta egoera ezberdinetan aplikagarri diren gaitasun transbertsalak, diziplina aniztasuna eta pentsamendu kritikoa, gaur egun, lan munduan ugari eskatzen diren gaitasunak, landuko lirateke. Azken finean, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan graduatzeko GRAL egin eta aurkeztu behar den bezala, kontabilitateko espezialitatean aipamena lortzeko proiektu bat egin beharko litzateke.

IKD Gazte proiektuak, EHUko gradu ezberdinetako ikasleak elkartzen ditu, enpresa batek planteatutako arazoei irtenbideak ematen saiatzeko. Bada, interesgarria litzateke, IKD Gazte proiektuaren barnean, kontabilitateko sail bat egitea, non kontabilitatea lantzen duten enpresek beraien arazoak proposatu ditzaketen. Horretarako ordea, proiektu honek izena egin eta ospe gehiago irabazi beharko luke, horrela kontabilitate arazoan proposamenak ugalduz, izan ere gaur egun parte hartzen duten enpresen kopurua urria da (parrafo honetan adierazitakoa aurrera eramateko behintzat).

Ariketak paperean eskuz landu ordez, Excelean egiten joatea beharrezkoa da (trantsizioa pixkanaka emanez), auditoria firma eta kontabilitateko enpresa ugarik Excela erabiltzen baitute kalkuluak egiteko (horrela, ikasleak etorkizunean izan dezakeen lanbideko gaitasunak eskuratuko ditu). Haratago joanez gero, ikaslea lan mundura hurbilduz, ideia ona litzateke enpresek erabiltzen dituzten kontabilitate programatako bat minorrean barneratzea.

Horrez gain, koronabirusaren pandemiak, unibertsitateak online bidezko klaseak (ez presentzialak) ematera behartu ditu. Hau ikusirik, garrantzitsua da irakasgaiak badaezpadako plangintza erdipresentzial bat prestaturik edukitzea, horrelako egoerek irakasgaien metodologia eta plangintzatan ahalik eta talka txikiena izateko. Azken finean, batek daki, normaltasunera bueltatzean edota etorkizun hurbilean, agian kurtso erdipresentzialak eskatzen dituzten ikasleen kopuruak gora egin dezake, klase birtualek funtzionatu duten seinale. Ildo beretik, lan munduan, etxetik lan egiteko aukera orain hilabete batzuk ez zen bideragarri ikusten, pandemia zela eta, ordea, enpresa txiki eta ertainek bizirauteko bide bakarra bihurtu zen. Gaur egun, telelana mantendu edo ez enpresari askoren ahotan dago, hots, unibertsitatean ere antzeko eztabaida eman daiteke.

Nahiz eta kontabilitateko espezialitatean zenbait metodologia aktibo interesgarri erabiltzen diren, komeni da klasea emateko betiko metodoekin geratu ordez, funtzionatu dezaketen alternatibak begiratzen joatea. Horrenbestez, ikerketa-lan hau epe luzera begiratzuz burututako lan bat da, enpresa batek epe luzean bizirauteko ikerketa eta Garapenean berrikuntzak bilatzen dituen gisa. Izan ere, unibertsitatearen ingurua etengabe aldatzen ari da, eta ez da komeni ingurunea baino erritmo geldoagoan mugitzea, zaharkitua geratzeko arriskua baitago.

7. BIBLIOGRAFIA

Dokumentuak

ACS (2018). Política General de control y gestión de riesgos. [Irudia]. *Hemendik berreskuratua*:

https://www.grupoacs.com/ficheros_editor/File/05_Compliance/Pol%C3%ADticas/2%20Pol%C3%ADtica%20de%20control%20y%20gesti%C3%B3n%20de%20riesgos.pdf

Aldaz, M. (2018/2019). Kontabilitate Publikoa. *Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua, EHU/UPV*

Azkue, I., Anabitarte, L. (2019/2020). Kontu Auditoria. *Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua, EHU/UPV*

Brown, T. (2008). Design thinking. *Harvard business review*, 86(6), 84.

Ceballos, A. (2015). Previsión de ingresos y gastos. [Irudia]. *Hemendik berreskuratua* <<https://sites.google.com/site/lagestioneconomicaylatesoreria/2---prevision-de-ingresos-y-gastos>>

Comisión de Coordinación Universitaria (2006). Propuestas para la renovación de las metodologías educativas en la Universidad. *Madrid: Secretaría General Técnica. Subdirección General de Información y Publicaciones.*

Educación Innovadora (2020). Tabla-resultados-socrative. [Irudia]. *Hemendik berreskuratua* <<https://educacioninnovadora.es/sin-categoria/socrative-evalua-con-mas-frecuencia-invierte-menos-tiempo/attachment/tabla-resultados-socrative/>>

Eduteka (2007). Tipos de proyectos de clase. *Hemendik berreskuratua* <<http://eduteka.icesi.edu.co/modulos.php?catx=7&idSubX=182#proint>>

Egenfeldt-Nielsen, S. (2009). Los videojuegos como herramientas de aprendizaje. *Aprovecha el tiempo y juega. Algunas claves para entender los videojuegos*, 185-210.

Eroski, S.Coop. (2017). Cuentas anuales a 31 de enero de 2017. *Hemendik berreskuratua* <<https://www.eroski.es/wp-content/uploads/2018/10/Cuentas-Anuales-EROSKI-2016.pdf>>

Fernández, J. (2019). El Supremo rechaza el recurso de PwC contra la multa récord por la auditoría de Aena. *El País. Cinco Días*

Forum Sport, S.A. (2018). Cuentas anuales a 31 de enero de 2018. *EHU-ko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako graduko 3.kurtsoko Kontabilitate Analisisa irakasgaiko apunteetatik aterata.*

Garayar, A., Garmendia, A. M. (2018/2019). Kudeaketa Kontabilitatea eta Barne Kontrola. *Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua, EHU/UPV*

García, R. J., González, C. (2018). La clase invertida. *El País*

Gómez, C. (2003). De Adam Smith a List, del libre comercio al proteccionismo?. *Red Aportes*, 8(24), 103-113.

Instituto de Censores Jurados de Cuentas de España (2007). Código de ética profesional. *Hemendik berreskuratua* <<https://www.icjce.es/codigo-de-etica-profesional>>

Jiménez, M. (2015). Ernst & Young se queda el negocio de consultoría que PwC daba a Santander. *El País*

Johnson, D. W., Johnson, R. T., & Holubec, E. J. (1999). El aprendizaje cooperativo en el aula. *Hemendik berreskuratua* <<https://www.guao.org/sites/default/files/biblioteca/EI%20aprendizaje%20cooperativo%20en%20el%20aula.pdf>>

Leinonen, T., Durall, E. (2014). Pensamiento de diseño y aprendizaje colaborativo. *Comunicar: Revista Científica de Comunicación y Educación*, 21(42), 107-116.

Martín, S. M. (2019). Kahoot, ¿Evaluamos o jugamos?. [Irudia]. *Hemendik berreskuratua* <<https://intef.es/wp-content/uploads/2019/10/Kahoot.pdf>>

Martín, M. L., Díaz, E., Castillo, B., del Barrio, L. (2011). Estudio comparativo de cambios metodológicos y percepción del alumno en la materia de Dirección de producción y operaciones para la adquisición de competencias en el proceso de adaptación al EEES. *Revista de Formación e Innovación Educativa Universitaria*, 4(2), 126-144.

Martínez-Olvera, W., Esquivel-Gámez, I., Martínez, J. (2014). Aula invertida o modelo invertido de aprendizaje: Origen, sustento e implicaciones. *Los Modelos Tecnológicos Educativos, revolucionando el aprendizaje del siglo XXI*, 143-160.

Moreira, M. A. (2005). Mapas conceptuales y aprendizaje significativo en ciencias. [Irudia]. *Rev Chil Educ Cient*, 4(2), 38-44.

Pérez, J. Á., López, M. D. R. (2004). Los verdaderos efectos de la realización de múltiples servicios por parte de las firmas de auditoría. *Contaduría y Administración*, (212), 25-40.

Prieto, A., Díaz, D., Monserrat, J., Reyes, E. (2014). Experiencias de aplicación de estrategias de gamificación a entornos de aprendizaje universitario. *ReVisión. Revista de Investigación en Docencia Universitaria de la Informática*, 7(2), 76-92.

Puentes, R., Velasco, M. D. M., Vilar, J. (2009). El buen gobierno corporativo en las sociedades cooperativas. [Irudia]. *REVESCO. Revista de estudios cooperativos*, 98, 118-140.

Reyes, F., Vera, L. J., Colina, E. R. (2014). Estrategias creativas para promover el aprendizaje significativo en la práctica docente simulada. *Opción: Revista de Ciencias Humanas y Sociales*, 30(75), 55-74.

Rodríguez, M. L. (2011). La teoría del aprendizaje significativo: una revisión aplicable a la escuela actual. *IN. Investigació i Innovació Educativa i Socioeducativa*, 3(1), 29-50.

Rodríguez-Fernández, L. (2017). Smartphones y aprendizaje: el uso de Kahoot en el aula universitaria. *Revista Mediterránea de Comunicación/Mediterranean Journal of Communication*, 8(1), 181-189.

Serna, H., Díaz, A., Betancur, J. D., Pino, C. E., Posada, P. J., Gaviria, O. A., ... Arbeláez, J. (2013). Metodologías activas del aprendizaje. *Hemendik berreskuratua* <<http://www.fumc.edu.co/wp-content/uploads/publicaciones/metodologias.pdf>>

Valda, F., Arteaga, C. (2015). Diseño e implementación de una estrategia de gamificación en una plataforma virtual de educación. *Fides et Ratio-Revista de Difusión cultural y científica de la Universidad La Salle en Bolivia*, 9(9), 65-80.

Villa, A., Villa, O. (2007). El aprendizaje basado en competencias y el desarrollo de la dimensión social en las universidades. *Educar*, (40), 15-48.

Zubiaurre, A. (2018/2019). Kontabilitatearen eta Kontu Auditoriaren Lege Markoa. *Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua, EHU/UPV*

Zubiaurre, M. A., Aldazabal M. E. (2019/2020). Kontabilitate Aurreratua eta Zerga Sistema. *Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua, EHU/UPV*

Webguneak

<https://historiaencomentarios.com/2018/08/27/1o-de-bachillerato/>, 2020ko maiatzaren 9an kontsultatua

<https://www.teamlabs.es/es/grado-universitario-oficial-liderazgo-empresedor-e-innovacion>, 2020ko ekainaren 17an kontsultatua

<https://ikdgazte.wordpress.com/>, 2020ko uztailaren 24an kontsultatua

Legedia

1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, egokitutako Kapitaleko Sozietateen Legea onartzen duena

11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatiben ingurukoa

1517/2011 Errege Dekretua, urriaren 31koa, Kontuen Auditoriari buruzko Legea garatzen duen Erreglamendua onesten duena, 1/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, uztailaren 1ekoak, onartuz

22/2015 Legea, uztailaren 20koa, Kontuen Auditoriari buruzko Legea

27/1999 Legea, uztailaren 16koa, Kooperatibei buruzkoa

Berrikusitako 700 Nazioarteko Auditoria Araua, 2016ko abenduaren 23ko Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren ebazpenaren bitartez Espainiara moldatua

Berrikusitako 705 Nazioarteko Auditoria Araua, 2016ko abenduaren 23ko Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren ebazpenaren bitartez Espainiara moldatua

8. ERANSKINA

8.1. Ariketa Excelen

XII.Irudia: 2.gaiko ariketaren enuntziatua

	A	B
1	ARIKETA	
2		
3	Azaroa enpresak lokal bat du salgai eta ondorengo datuak ditugu:	
4	Salmenta prezioa	19.450.000€
5	Eskurapen Kostua	15.000.000€
6	Amortizazio metatua	2.500.000€
7		
8	Enpresa erosleak ordainketa zatikatua izatea eskatzen dio Azaroa enpresari eta beronek onartzen du, trukean interesak aplikatuz.	
9	Interes-tasa efektiboa	5,28%
10		
11	Salmentaren Kobrua honela burutuko da:	
12	- X1/01/01, salmenta datan ez da ezer kobratzen	
13	- X1-2/12/31, bi urteen amaieran 600.000€ kobratuko ditu	
14	- Azkenik, X3/12/31, 21.400.000€ kobratuko ditu	
15		
16	Finantzaketa Taula eta idazpenak egin	

Iturria: Lan propioa, Zubiaurre eta Aldazabal-en (2019/2020) irakasgaiari oinarritua

XIII.Irudia: 2.gaiko ariketaren finantzaketa-aula

	A	B	C	D	E
1	FINANTZAKETA TAULA				
2					
3	Datak	Amortizatzeko Kapitala	Finantza sarrerak	Kobroak	Ordaindu gabeko int.
4	01/01/X1	19.450.000€			
5	31/12/X1	19.877.053€	1.027.053€	600.000€	427.053€
6	31/12/X2	20.326.656€	1.049.603€	600.000€	449.603€
7	31/12/X3	0	1.073.344€	21.400.000€	0
8	Guztira		3.150.000€	22.600.000€	

